

Curriculumaren funtsezko alderdiak

LH



Jarri PRESt!

2020ko martxoan, ikastetxeetako irakaskuntza-jarduera presentziala eten zenetik, ezohiko egoera bizi dugu. Ohiko irakaskuntza guztiz berria den eszenario batera egokitu behar izan dute ikastetxe eta irakasle gehienek eta ingurune birtualean aritzeko metodologia aldatu eta tresna egokiak bilatu ikasturte honetan hasitako prozesuak jarrai dezan.

Testuinguru honetan, 2019-2020 ikasturte amaierako Hezkuntza Planak jasotzen duen moduan, ikastetxeen autonomia pedagogikoa eta berezko hezkuntza-errealitatea errespetatuz, ikastetxe bakoitzak erabakiko du ikasturte amaieran ikasleekin izango duen esku-hartzea.

Hartara, ikasturte honetako hirugarren hiruhileko eskola-jarduerak eta hurrengoko hasierako hilabeteetakoak ezinbesteko ikaskuntzetan eta konpetentzietan zentratu behar dira, etapa, maila, arlo eta ikasgai guztietan, errepassoa egiteko, berreskuratzeko edo indartzeko helburuz.


Horretarako, programazioak berrikusi behar dira eta curriculumeko funtsezko alderdiei erreparatu, bai metodologiari, bai arlo eta ikasgaiak garatzeko eduki eta ebaluazio-adierazleei dagokienez; betiere, ikasleek ikasmaita bakoitzean lortu behar dituzten helburuak eta konpetentzien garapena oinarri hartuta.

Aurkezten dugun dokumentuak orientazio izaera du, eta ikastetxeek eta irakasleek egin behar duten egokitzapen-lan horri lagundu nahi dio. Hezkuntza Sailak aurretik aurkeztutako LH4, LH6, DBH2 eta DBH4 ikasmailatarako gutxieneko ikaskuntzak dokumentuak osatzera dator eta, horrenbestez, Oinarrizko Hezkuntzako ikasmaita guztietarako ezinbesteko ikaskuntzak eta ebaluazio adierazleak zehazten ditu, prozedurak eta jarrerak ere barne.

Azkenik, ikas-irakaskuntza ez-presentzialeko egoerara egokitutako jarduera batzuk jasotzen ditu ikasmaitarik ikasmaita. *Amaraura* eta *Etxean ikasten* edo Berritzeguneek argitaratutako webguneetan beste hainbat baliabide aurki daitezke. Hemen jasotakoak adibide batzuk dira, ezinbestekotzat jotako alderdiei lotuak, eta arloa edo ikasgaia lantzeko ez ezik ikasleen konpetentzia ebaluatzeko ere baliatu daitezke.

Hau da dokumentu honen egitura:

- 1.- Arloaren edo ikasgaiaren funtsezko alderdiak eta ebaluazio-adierazleak, ikasmalarik ikasmala.
- 2.- Arloa edo ikasgaia lantzeko zein ebaluatzeko jardueren adibideak.
- 3.- Eranskinak. Zenbait orientabide arloaren edo ikasgaiaren lanketari zein ebaluazioari lotuak eta IKT tresnak erabiltzeko jarraibideak.



MATEMATIKA

EBALUAZIO ADIERAZLEAK

I. Eduki komunak

A. Arlo eta ikasgai guztietan komunak diren oinarrizko zehar-konpetentziekin lotutako edukiak: talde-lanean eragikor eta sortzailea kudeatzen du informazioa eta emaitzak komunikatzen ditu.

B. *Ikasgai honetako multzo guztien eduki komunak:* problemak ebazten ditu hainbat estrategiekin eta laguntzaile manipulagarriekin.

ZENBAKIKUNTZA:

- Zenbakiak irakurri eta erabiltzen ditu ehun arte
- Zenbakien arteko oinarrizko erlazioak ezagutzen ditu

ERAGIKETAK:

- Hogei arteko deskonposaketa egin eta ulertzen du.
- Hogei arteko eragiketa oinarrizkoak egiten ditu.
- Digito bakarreko batugaietako eragiketak (+,-) burutzen ditu.

BURUKETAK:

- Eragiketak erabiltzen ditu testuinguruetan.

MAGNITUDEAK:

- Magnitudeak: pisua, distantzia... erabiltzen ditu testuinguruetan.

BURUZKO KALKULUA:

- Oinarrizko buruzko kalkuluak egiteko gai da.
- Batuketa baten batugaien deskonposaketa egiten moldatzen da.

GEOMETRIA:

- Poligonorik errazenak ezagutu eta deskribatzen ditu.
- Gorputz geometrikorik errazenak ezagutu eta deskribatzen ditu.

EDUKIAK

I. Eduki komunak

A. Arlo eta ikasgai guztietan komunak diren oinarrizko zehar-konpetentziekin lotutako edukiak: informazioen kudeaketa, plangintzak egin eta bete, lanen emaitzak komunikatzea, talde-lanean aritzea motibazioaz eta gatazkak kudeatzea autoerregulazioatik.

B. *Ikasgai honetako multzo guztien eduki komunak:* problemen ebazpena, modelizazioa eta manipulazioa.

ZENBAKIKUNTZA:

- Zenbakiak ehun arte. Bi zifrako zenbakiak.
- Izena, zifren leku balioa, aurrekoa eta ondorengoa, handiagoa, txikiagoa.

ERAGIKETAK:

- Hogei arteko konposatzea eta deskonposatzea.
- Hogei arteko osoak batzea eta kentzea.
- Batuketak eramanarekin eta eramanik gabeko kenketak egitea.

BURUKETAK:

- kenketa eraman barik eta batuketak eramanarekin.

MAGNITUDEAK:

- Kiloa / m / osoa eta erdia.

BURUZKO KALKULUA:

- +/- (gehienez, bi zifra erabilita) zihurtatu lehenengo hamar zenbakien konposaketa eta deskonposaketa menperatzen dutela.

GEOMETRIA:

- Poligonoak (karratua / laukizuzena / eta hirukia)
- Gorputz geometrikoak. Zirkulua, kuboia eta piramidea.
- Espazioan kokapena, orientazioa eta errepresentazioa

Matematika - LH - 1. maila-rako jarduerak

[Matematika koronabirus garaietan](https://labur.eus/matecovid19): <https://labur.eus/matecovid19>

[Etxean ikasten Matematika](https://labur.eus/etikmate): <https://labur.eus/etikmate>

[Etxetik irakatsi](https://labur.eus/etxetikirakatsi): <https://labur.eus/etxetikirakatsi>

[Flipped classroom](https://labur.eus/flipped): <https://labur.eus/flipped>

Eduki komunak

A. Arlo guztietan komunak diren oinarritzko zehar-konpetentziekin lotutako edukiak:

[Arazo-egoerak eta Unitate didaktikoak](https://labur.eus/AE-UD) <https://labur.eus/AE-UD>

B. Matematikarako eduki komunak: [Problemak](https://labur.eus/probh) <https://labur.eus/probh>

ZENBAT GARA FAMILIAN

Etxea bakoitzean lagun kopuru bat bizi da eta ikasle bakoitzak bere kasua partekatuko du. Gelako zeinen etxean bizi dira gehien? Eta gutxien? Gehiago posible al da? Eta gutxiago? Zenbat gela ditu nire etxeak? >Pertsona bakoitzak badu gela bat berarentzako nire etxean? Nola neurtzen da etxearen tamainua?

GELAKO KIDEAK NON BIZI DIRA

Batzuk oinez beste batzuk busez datoz eskolara? Zergatik? Gertu-urruti bizi zea zer da? Nola neurtu dezakegu etxetik eskolarainoko distantzia? Denboran, minututan? Metrotan? Kilometroan? Adieraz al dezakezu bakoitza non bizi den marrazki bat eginez?

IPUINAK ZENBAKIEKIN

Hiru txerri txoak, Ali Baba eta berrogei lapurrak... ipuin ezagunak dira eta zenbakiak titulu agertzen dituzte. Aztertu irakurtzen ari zareten ipuinetan topa daitezkeen zenbakiak eta kideei kontatu zein testuingurutan agertzen diren.

ARGAZKIAK AZTERTZEN

Zenbakiak edonon agertzen dira eta horregatik argazkietan agertzen diren elementuak kontatuko ditugu. Ate bat, leiho bi, hiru loreontzi, lau balkoi, bost zuhaitz, sei eskailera-maila, zazpi farol, zortzi kotxe, bederatzi lagun, hamar hatzamar... kontatu elementuak argazkietan.

ZENBAKIAK DESKONPOSATU

Zenbakiak deskonposatu daitezke. Adibidez bost deskonposatu daitezke bi eta hirutan edota bat eta lautan. Are gehiago, bost deskonposatu daite bi, bat eta bitan... zati horiek elkartuz beti emango dute bost. Landu deskonposaketa [Hamarrekotan](https://labur.eus/hamar) <https://labur.eus/hamar> aplikazioarekin. [Batu eta kendu](https://labur.eus/batu_eta_kendu): <https://labur.eus/btk10>

HIZKUNTZAK (EUSKARA/GAZTELANIA)

EBALUAZIO ADIERAZLEAK

ENTZUMENA eta IRAKUMENA

- Ahozko testuak ulertzen ditu: berariazko informazioa eta zentzu orokorra.
- Informazio garrantzitsua erregistratzen du era gidatuan: taulak, fitxak, marrazkiak...
- Fonemak ezberdintzen ditu eta hitzak irakurtzen ditu.
- Hitz eta esaldi errazak irakurtzen ditu eta ulertzen ditu testuinguruari lotutakoak.
- Parte aktiboa hartzen du irakurketa jardueretan.

AHOZKO ELKARREKINTZA

- Modu aktiboan eta egokian parte hartzen du komunikazio trukeetan: txanda errespetatu, besteei arretaz entzun, elkarrizketaren haria jarraitu.
- Euskaraz hitz egitearen aldeko jarrera du.

MINTZAMENA eta IDAZMENA

- Bere ideiak, gertaerak, bizipen, sentimenduak adierazten ditu laguntzarekin: ideien ordena eta koherentzia, ahoskera egokia, oinarrizko hiztegia, oinarrizko esapide sinpleak.
- Abestiak, olerkiak errezipitatu ditu ahoskera, erritmo eta intonazio egokia erabiliz.
- Eredubatek abiatuta oso testu motzak ekoizten ditu: hitzak edota esaldi motzak.

EDUKIAK

ENTZUMENA ETA IRAKURMENA

- Adinari egokitutako testu anitzak arretaz entzuteko eta ulertzeko jarduerak proposatzea.
- Adinari egokitutako askotariko testu oso laburrak laguntzarekin irakurtzeko eta ulertzeko jarduerak proposatu: irakaslearen irakurketa ozena, hitzak, esaldiak edo testuak irakurri helburu bati begira...
- Kontzientzia fonologikoa era ludikoan eta testuinguruan era sistematikoan lantzea.

AHOZKO ELKARREKINTZA

- Ikastaldeko kideen arteko elkarrizketetan parte hartzea intereseko gaien inguruan.

MINTZAMENA eta IDAZMENA

- Eredubatek abiatuta ahozko eta idatzizko testu laburrak eta anitzak sortzea edo osatzea.
- Oinarrizko hiztegia lortzeko hitzekin jolastea.
- Olerkien, bertsoen eta narrazioen dramatizazio-, birsortze- eta errezipitazio-jarduerak testuinguruan kokatuta.

Ahozko eta idatzizko testu generoak: norberaren aurkezpena, gai kurrikular bati buruzko azalpen sinplea, arauak, jarraibidezko testuak, pertsonen deskripzioak, norberaren zaletasunak, ipuinak, postala, jarraibidezko testu batzuk (errezeta, jolasa, eskulana...), gertaeren kontakizuna....

LH1 EUSKERA ETAGAZTELANIA

NIRE IZENAREN HISTORIA KONTATZEN

- Noizbait pentsatu duzu ea zergatik aukeratu zuten gurasoek zure izena? Badakizu nork eta nola aukeratu zuen? Galdetu aitari, amari, aitona –amonei...
- Badago familian beste norbait izen berdinarekin? Eta izen berdina duten bi pertsona bazarete familia berean, nola bereizten dituzue bata eta bestea?
- Ezagutzen duzu beste pertsona ospetsuren bat izen horrekin? Nor?
- Marraztu zure izena era polit batean, letra handiz, txikiz, txuri-beltzez, kolorez, eta jar ezazu zure logelako atean itsatsita.
- Gelako kideekin batera ikasgelan bazaude, azaldu zure izenaren historia.

ZURE LEIHOTIK USOAK IKUSTEN DIRA?

Gogokoak ditugun ipuinak behin eta berriro entzutea edo irakurtzea asko gustatzen zaigu eta, oraingo honetan, zu izango zara entzundakoa, atsegin bazaizu, idatzi eta marraztuko duzuna, anai-arreba txikiei kontatzeko, edota gelako liburutegian jartzeko.

[Jardueraren deskripzioa.](#)

HAUEK DIRA NIRE/ GURE USTEZ EUSKARAZKO HITZIK POLITENAK

Zerrendak zertarako erabiltzen ditugu? Gelakoen izenak ikasteko, erosketak egiteko... Guk beste zerrenda bat egingo dugu: euskarazko hitz politenen zerrenda osatuko dugu.

- Bakoitzak bere hitza idatziko du daukagun paper gainean.
- Nahi badugu azaldu ahal dugu zergatik aukeratu dugun hitz hori.
- Ondoren, hitzekin jolasten hasiko gara.
- Egin ditzakegun ariketak [kontzientzia fonologikoarekin](#) zerikusia dute.

ILARGIA

Ilargian Kulunkantari Saileko liburuxka batean oinarritutako lanketa. Hasiera-hasierako urratsetan, entzun, ulertu, irakurri eta idazteko ataza. [Ilargia.](#)

GURE SENTIPENAK EHUNTZEN (PROIEKTU BATERAKO PROPOSAMENA)

- Gelako kide guztien artean tapiz bat sortuko dugu.
- Egunero, irakasleak aurreikusitako denbora tarte batean, hurrek beren emozio eta sentipenen inguruan hitz egingo dute, irakasleak egoera hau probestuko du ahozko hizkuntza lantzeko feedbackaren bidez (hiztegia, egitura linguistikoak...) ikasleen mailara egokituta.
- Egunero haurrak hitz egin eta gero berak nahi duen koloreko artile zati bat aukeratu eta ehungailu batean (kartoiarekin egin daiteke. Begiratu, Youtube, Pinterest...) artilea josiko du.
- Irakasleak jarritako denbora tartean (2 aste, 3 edo 4...) tapiza bukatu eta gela apaintzeko erabiliko dugu.

ATZERRIKO HIZKUNTZA

EBALUAZIO ADIERAZLEAK

- Gai da irakaslearen laguntzarekin, zenbait hitz edo oso esaldi simple esateko, eta soinuak, intonazioa eta ahoskera imitatzeke.
- Ahozko azalpen eta jarraibide sinpleen zentzu orokorra ulertzeko gai da.
- Bere intereseko ahozko kontakizunak arretaz jarraitzen ditu.
- Gai da laguntza handiz elkar eragiteko, hitzezko edo hitzik gabeko erantzunen bitartez (buruz ikasitako formulak baliatuz, nagusiki)
- Ereduak erabiliz eta laguntza handiz, gelan landutako oso testu sinpleak birsortu eta ekoizten ditu eta txukun aurkezteko interesa azaltzen du.
- Landutako hizkuntza-ezagupenak erabiltzen saiatzen da.
- Atzerriko hizkuntza erabiltzeko interesa adierazten du.

EDUKIAK

MINTZAMENA

- Eguneroko bizitzako gertaerei lotutako bizipenak, norberaren aurkezpena, agurrak, gelako hizkuntza,... modu oso gidatuan sortzea.
- Soinuak, intonazioa eta ahoskera imitatzea.

ENTZUMENA

- Ahozko azalpen eta jarraibide sinpleen zentzu orokorra ulertzea.
- Bere intereseko ahozko kontakizunak arretaz jarraitzea: abestiak, errimak, ipuinak, istorio laburrak,...

AHOZKO ELKARREKINTZA

- Informazio pertsonalaren trukean, errutinetan, gelako
- dinamikan edota simulazioetan... laguntza handiz elkar eragitea, hitzezko edo hitzik gabeko erantzunen bitartez (buruz ikasitako formulak baliatuz, nagusiki): agurrak, eguraldia, asteke egunak,...

IDAZMENA

- Ereduak erabiliz eta laguntza handiz, testu laburrak eta
- oso sinpleak birsortzea eta ekoiztea: oharrak, horma-irudiak ...

Testu idatziak txukun aurkezteko ardura hartzea.

•
**Hizkuntza ezagupenei dagokienez, hauek landu ahal dira: days of the week, months, seasons, weather, colours, cardinal numbers 1-20, school, family, farm and wild animals, body parts, parts and rooms of the house, toys, clothes, food and drink.

ENGLISH PRIMARY

YEAR 1

Draw your story

In this lesson, children will become illustrators. Learners will listen to a story and imagine one scene. They will draw what they imagine and write a word or a sentence to explain what they have drawn.

Resources: [Short stories](#)

The very hungry caterpillar

This lesson involves different vocabulary groups to work on: days of the week, numbers, food - mainly fruits and junk food - and the life cycle of the butterfly. Before watching the video, students can do a pre-reading activity to revise stories key vocabulary. Then students watch the video and they can then fill Worksheet 1 or worksheet 2. After that, they can watch and dance the song. Next activity would be to order the sequence of the story. Finally, students can fill the story's booklet and tell the story to their parents or they can send a picture of the booklet to the teacher. There is an extra craft extension resource.

Resources: [Pre-reading, Video](#), [Worksheets1](#), [Worksheet2](#), [Song](#), [Pictures in order](#), [Booklet](#), [Craft1](#), [Craft2](#).

Brown Bear, Brown Bear, What do you see.

In this activity students will watch the story of *Brown Bear, Brown Bear, What do you see* by Eric Carle and then they will follow the next activities. They can also watch and sing the song. Finally, they follow the instructions of the *How to draw a cartoon bear* and send the picture to the teacher or they can upload it in their blog.

Resources: [Video](#), [Activities](#), [Story time sing alone](#), [Song](#), [How to draw a cartoon bear](#)

Let's play! Spin off game

In this activity students practice vocabulary - animals, colours, clothes and numbers - playing an interactive game.

Resources: [Spin game](#)

eTwinning: Digital Fairytales

Why not start an eTwinning project? eTwinning offers a platform for teachers to communicate, collaborate, develop projects, share and, in short, feel and be part of the most exciting learning community in Europe. If you register in this European Council platform, you can start networking with other European colleagues and have your students collaborating on innovative projects with students from all over Europe.

Resources: www.etwinning.net, www.etwinning.es, [kit](#)

NATURAREN ZIENTZIAK

EBALUAZIO ADIERAZLEAK

- Zentzumenen organoak zuzenean behatu, adierazi eta deskribatu egiten ditu.
- Badaki zein diren norberaren higienarako, zaintzarako eta atsedenerako oinarrizko ohiturak eta jarraitu egiten ditu.
- Badaki zein diren dieta orekatuarekin lotutako ohiturak eta jarraitu egiten ditu
- Izaki bizidunak eta materia bizigabea bereizteko eta sailkatzeko irizpide zientifiko errazak erabiltzen ditu.
- Izaki bizidunekiko interesa azaltzen du eta errespetatu eta zaindu egiten ditu.
- Badaki zer propietate dituzten maiz erabiltzen ditugun objektu eta materialek: kolorea, usaina, pisua, forma...
- Makinen eta tresnen aplikazioen bat ikusi eta bereizten du.

EDUKIAK

Naturaren-zientzien proiektua edo erronkak egitea, modu gidatuan, metodologia zientifikoa eta haren oinarrizko ezaugarriak fenomeno naturalak eta benetako egoerak aztertzeke, identifikatzeko eta ebazteko aplikatzeko irizpideak eta jarraibideak erabiltzen hastean.

Proiektua edo erronkak gai horietako bati buruzkoa izango litzateke.

GIZAKIA ETA OSASUNA

- Zentzumenen organoak.
- Dieta orekatua eta elikadura-ohitura osasungarriak
- Norberaren higienarako, zaintzeko eta atsedenerako oinarrizko ohiturak.

IZAKI BIZIDUNAK

- Izaki bizidunak: animalien eta landareen arteko desberdintasunak identifikatzea.
- Landareen egitura eta elementu behagarrien arabeko sailkapena.
- Animalien ezaugarriak eta bizimodua.
- Izaki bizidunak errespetatzeko eta zaintzeko ohiturak.

MATERIA ETA ENERGIA

- Zenbait objektu eta material alderatzeko, sailkatzeko eta ordenatzeko irizpideak, propietate fisiko hautemangarriei erreparatuz (esate baterako: pisua, bolumena, kolorea, testura, usaina, forma,).

TEKNOLOGIA, OBJETUAK ETA MAKINAK

- Pertsonen bititza errazten duten makinak eta aparatuak.

LH 1 NATURAREN ZIENTZIAK

Etapako helburuak eta arloa ebaluatzeko irizpideak garatzeko funtsezko jarduerak

IKERKETA DOKUMENTALA

- **Jarduera / Ataza:** Ikerketa txikia egingo dute ikasleek. Prozesua:
 - 1-Galdera edo ikerketaren gaia erabaki eta aurrezagutzak adierazi
 - 2-Gidoia bati jarraituz, informazioa bilatu eta gorde.
 - 3-Ikerketa egin: informazioa hautatu eta euskarri bisuarean antolatu (antolatzaile grafikoak).
 - 4-Ahozko sintesia egin ideia nagusiekin eta ondorioak atera.
 - 5-Komunikazioa (ahoz, nagusiki) euskarri analogikoa eta digitala erabiliz.Adibidea: [Zein da azukre gehiago duen edaria?](#)
- **Prozesuzko jarduerak eta produktuak:** animalien eta landareen sailkapen grafikoak, Natura zaintzeko dekalogoak, elikagaien ikerketaren txostena, hostoen bilduma, landareen eta animalien fitxak bilduma (fitxategia argazkiekin, mural birtualak), makinaren denboralerroa...
- **Gaien adibideak:** zentrumen organuak, elikadura osasuntsua, higie eta atsedeen ohiturak, izaki bizidunak eta bizigabeak, landareen egitura eta sailkapena, animalien ezaugarriak eta bizimoduak, izaki bizidunak errespetua, makinaren aplikazioa bizitzan ...

IKERKETA ESPERIMENTALA

- **Jarduera/Ataza:** Ikerketa esperimental txikia egingo dute ikasleek. Prozesua:
 - 1-Gairi buruz aurrezagutzak adierazi.
 - 2-Planifikazioa: hipotesiak egin eta esperimentuaren aldagaiak, urratsak eta datuak erregistratzeko moduak erabaki.
 - 3-Esperimentua egin eta datuak jaso.
 - 4-Analisia egin eta emaitzak aztertu.
 - 5-Hipotesia egiaztatu, konklusioak atera eta komunikatu (analogikoa eta digitala: poster, txostena...).Adibidea: [Zergatik egiten digu negar tipulak ebakitzen dugunean?](#), [Ur-iragazkia](#), [Esku nazkagarriak](#), [Nolakoa da barraskiloen bizimodua?](#), [Gurekin busti zaitez](#),
- **Prozesuzko jarduerak eta produktuak:** [behaketa](#) gidatuaren kontrol orria, materialen propietateen inguruko sailkapen txostena, datuen grafikoak eta taulak, zentzumenen esperimentuen dossierra, prozesuaren bideo grabaketa, landare hazkundearen inguruko esperimentazio-prozesuaren panela...
- **Gaien adibideak:** Zenbait objektu eta material alderatzeko, sailkatzeko eta ordenatzeko irizpideak, propietate fisiko hautemangarriak erreparatuz (esate baterako: pisua, bolumena, kolorea, testura, usaina, forma), landareen mugimendua, landareen hazkundera, [zentzumenen inguruko esperimentuak](#)...

GIZARTE ZIENTZIAK

EBALUAZIO ADIERAZLEAK

KOMUNAK:

- Txosten bat egiten du eta emaitzak jakinarazten ditu hainbat euskarri erabilita.
- Talde-lanetan bere erantzukizun individuala onartzen eta bere gain hartzen du.
- Iritzi, ekarpen eta ideia guztiak errespetatzen ditu.
- Herriko, eskualdeko eta Euskal Herriko paisaia osatzen duten elementu eraldatu nagusiak identifikatu eta deskribatzen ditu.

GURE MUNDUA ETA HAREN KONTSERBAZIOA:

- Lurraren biraketa-higidura eta hark egunaren eta gauaren segidan dituen ondorioak identifikatu eta deskribatzen ditu.
- Lurraren translazio-higidura identifikatu eta deskribatzen du, eta urtaroekin lotzen du.
- Lurraren geruza nagusiak identifikatu eta izendatzen ditu.
- Paisaia definitzen du, ikasleak bizi diren herriko eta eskualdeko paisaia identifikatzen ditu.

GIZARTEAN BIZITZEA:

- Gatazkak konpontzen laguntzen duten estrategiak aplikatzen ditu.
- Ingurumenaren kontserbazio eta berreskuratzearekiko sentsibilitatea agertzen du.

DENBORAREN ARRASTOA:

- Denbora neurtzeko unitateak ezagutzen eta behar bezala erabiltzen ditu.

EDUKIAK

KOMUNAK:

- Ideiak sortu, hautatu eta adieraztea.
- Lortutako emaitzaren berri ematea.
- Talde-lana eta lankidetzeta-lana bultzatzeko estrategiak sustatzea.
- Gatazkak konpontzeko, elkarrizketa erabiltzeko eta bizikidetzeta-arauak erabiltzeko trebetasunak.
- Ikasleak bizi diren herriko eta eskualdeko geografia fisikoaren elementu garrantzitsuak non dauden jakitea.

GURE MUNDUA ETA HAREN KONTSERBAZIOA:

- Biraketa-higidura, egunen eta gauen segida eta ilargiaren faseak.
- Translazio-higidura, urtea, urtaroak eta egutegia.
- Lurraren geruzak.
- Paisaia.

GIZARTEAN BIZITZEA:

- Ingurune hurbilean antolatzeko moduak: eskola eta udalerria.
- Produktu naturalak eta haien jatorria.
- Elkarrizketa, gatazkak konpontzeko baliabidea.

DENBORAREN ARRASTOA:

- Oinarrizko denbora-kontzeptuak: oraina, iragana eta etorkizuna.
- Denbora historikoa herrian eta Euskal Herrian, eta haren neurketa.

TREBEZIAK-TALDE LANA

- Iritzi, ekarpen eta ideia guztiak errespetatzen dira.
- Talde-lana. Errubrika talde-lana: <http://laukotetobi.blogspot.com/2012/11/errubrika.html>
- Gela bateko ikasle talde batek portaera oldarkorrak izaten ditu jolas-orduetan. Taldeak horretaz debate bat egitea erabakitzen du, jokabide horiek ezin direla onartu ikusarazteko.
- Gatazka konpontzeko estrategia jakin batzuen beharrari buruzko eztabaida gelan antolatzea.
- Txosten bat egin hainbat euskarri erabilita eta emaitzak jakinarazten ditu.

LURRA ETA HAREN KONTSERBAZIOA:

- Hurrengo bideoari arreta jartzea eta errealitatea eta irudimenezkoa bereiztea, egunaren eta gauaren segidari dagokionez. https://www.youtube.com/watch?v=Grqbi24O_tE
- Lurraren mugimenduei eta horren ondorioei buruzko "egiazko" edo "gezurrezko" ariketa sinple banaka planteatzea: eguna eta gaua; urtaroak, urteak, egutegia, etab.
- Adibidez, Lurraren mugimenduen aurrean, ikasleak azalpen bat edo batzuk bilatzen ditu, zuzenena dela uste duena aukeratzen du eta taldeko gainerakoei azaltzen die.
- Paisaia zer den definituko duen talde-lana proposatzea. Taldearen barruan rola banatu behar dira eta lana egiteko ezarritako epea bete behar da.
- Herriko paisaia nolakoa den aztertuko duen eta idatiz laburpen bat egitea talde-lana proposatzea.
- Talde txikietan, ingurumena babesteko eta berreskuratzeko dekalogo bat egitea. Errubrika talde-lana: <http://laukotetobi.blogspot.com/2012/11/errubrika.html>
- Gelako talde batek, irudiez osatutako mural sinple baten bidez, "Paisaia" bat osatzen duten ezaugarriak aurkeztu ditu.
- Beren herriko eta lurraldeko mapa batean, elementu fisiko batzuk marrazten dituzte: ibaiak, mendiak eta abar.

GIZARTEAN BIZITZEA:

- Irakaslearen laguntzarekin ikasleek, talde txikian, beren eskola eta udalerraren antolaketaren oinarriko eskema egiten dute.
- Taldeko irteera, produktu naturalak eta jatorria ezagutzeko (esnea, arrautzak, barazkiak, etab.). Bisita eta gero taldeka txosten txiki bat egin.

DENBORAREN ARRASTOA:

- Ikasleek irakaslearen laguntzarekin, oso oinarrikoa den lerro historiko baten, oraina, iragana eta etorkizuna kontzeptuak irudikatzen dituzte. Ikasleak bere herriko gertaera historiko garrantzitsuren bat tartekatu dezake eskema horietan.
- Denbora neurtzeko unitateekin, bakarka, mural bat prestatu.
- Ikasleak bere herriko edo auzoko denboran izandako aldaketei buruzko argazkiez txostena egiten du.
- Ikasleari bost oinarriko termino historiko ematea eta haiekin eskema bat egiteko eskatzea.

GORPUTZ HEZKUNTZA

EBALUAZIO ADIERAZLEAK

- Norberaren gorputz atalak ezagutzen ditu.
- Desagertu den entzumen sekuentzia bat errepikatzeko gauza da.
- Lasterketa koordinatua eginez desplazatzen da, aurkako beso eta hankak alternatuz.
- Espazioan orientatzen da ondorengo oinarritzko nozioak erabiliz; kanpo/barru, goi/behe, aurre/atze.
- Eskuak erabiliz, mugimenduzko begi-esku koordinazioak egiten ditu:
Pilotak kolpatu, jaurti, hartu, botea eragin, paseak egin...
- Erlaxazio orokorra erabiltzen du saio bukaeran.
- Ahotik arnasa hartu eta ahotik botatzeko gauza da.
- Postura egokiak erabiltzen ditu: zutik, eserita, ahozpeztanda, gora begira etzanda.
- Lurreko azalera edo objektu desberdinen gainean oreka mantentzen du.

EDUKIAK

- Ikusmen, entzumen eta ukimen bidez hautemandako estimuluaren aurrean erreakzioen lanketa.
- Era desberdinetako desplazamenduak, jauziak eta birak, era koordinatuan eta espazioan ondo orientatuz.
- Objektuak erabiliz jaurtiketak eta harrerak, gorputz atalak koordinatuz.
- Gorputz postura desberdinetan orekak eta desorekak.
- Jolasetan parte hartze aktiboa eta gozamena.
- Egitura erritmiko errazak gorputza eta tresnen bidez.
- Gorputzaren eta mugimenduaren bitartez, pertsonaiak eta egoeren antzezpenak naturaltasunez.
- Gorputza zaintzeari buruzko arauak; zehazki, higiene ohiturei zein arriskuen kontzientzia hartzeari dagokienez.

LH 1_ KONPETENTZIA MOTORRA / GORPUTZ HEZKUNTZA

PUXIKA AIREAN

- Puxika bat puztu eta pasilloan zehar zenbait proba egin beharko dute ikasleek puxika airean mantenduz: mahai azpitik pasa, aulkiaren gainetik, saltoak eginez, ezkerreko eskua,. [Hemen adibidea](#).
- Hasi aurretik, senideetako batek ordenagilua aurrean izango du eta honako linkean sartu beharko da: [Ikasleentzako ariketa egiteko eta autoebaluaziorako galdetegia](#). Aldi berean, ikaslea egiten doana grabatuz. Amaieran ikasleak autoebaluazio orria beteko du (aurreko galdetegi amaieran). Irakasleari bideoa helaraziko zaio.
- Irakasleak ebaluazio orria beteko du, ikasleen bideoak ikusiz. [\(Kalkulu orri ebaluazio errubrika\) \(.dok eredu\)](#)

ZUMBATXIKI:

- Irakaslearekin batera eginiko zumba klase batean (bideo-dei bitartez), irakasleak aurrera daramatzen pausoak jarraituko ditu ikasleak. [\(Zumbatxiki adibidea\)](#).
- Irakasleak ikasle bakoitzak egiten duenaren inguruko ebaluazioa burutzeko [honako taula](#) bete, bideo-deia grabatu ondoren.

TWISTER ETXEAN:

- Twisterreko jolasa sortuko dute lehenik. Horretarako, [bideo honetan](#) azaltzen dira jarraitu beharreko pausoak.
- Twisterrera jolastu etxekoekin.
- [Ebaluazioa. Lateralitatea](#).

IPUIN MOTORRA:

- Ipuin motorea bideo batean grabatu eta ikasleek bertan azaldutakoa egin: dezplazamenduak, oreka,.....[\(Adibidea\)](#)
- Ikasleek egindako ariketen autoebaluazioa burutuko dute. [\(Autoebaluaziorako tresna\)](#)
- [Irakasleak ebaluazioa](#) egingo du, ikasleek (senideek) bidalitako bideo txikiekin.

TXAPA JOLASA:

- Etxeko hainbat espaziotan zehar txapa jolaserako zirkuitoa sortu beharko da lehenik. [\(Adb 1, Adb 2\)](#)
- Txapak egingo dituzte ondoren, plastilinarekin edo argizaria jarritz.
- Zirkuitoa grabatu eta irakasleari bidali. [\(Irakaslearen ebaluazio tresna\)](#)

PILOTA PASA:

- Irakaslea hasita, ikasle ikasle pilota birtualki pasako diote elkarri. Horretarako, bideo bat sortuko du lehenik irakasleak. Bertan, irakasleak egingo den dinamika azaldu eta baloi birtuala nori botatzen dion esango du. Adb.: "Nik baloia Sarari pasako diot"; Sarak hurrengo ikasle bati pasako dio pilota esaldi berdina errepikatuz, eta horrela hurrenez hurren.
- Amaieran, jolasaren bideoa sortuko du irakasleak eta ikasle guztiek elkarrekin gorputz hezkuntzako ariketa bat burutuko dute. [Hemen adibidea](#).

ARTE HEZKUNTZA: MUSIKA-ARTE/PLASTIKO ETA BISUALA

EBALUAZIO ADIERAZLEAK

- Gogoz parte hartzen du eta gozatu egiten du ikasgelako musika-jarduerak egitean, marrazkiak eta plastikako lanak egitean
- Bere sentimenduak azaltzen ditu, eta hainbat ideia adierazten ditu museoetan entzunaldietan proposatutako obren eta inguruan dituen produktu musikal eta bisual gainean.
- Hitzez eta idatziz adierazten ditu arte-sorkari bisual eta musikalek sorrarazten dizkioten emozioak eta sentimenduak
- Oinarrizko teknika, baliabide eta konbentzioak lantzen ditu, eta bere ekoizpenetan erabiltzen.
- Oinarrizko musika-trebetasunak baliatzen ditu musika interpretatzeko eta sortzeko.
- Musika-mintzairako elementu oinarrizkoak baliatzen ditu adierazpenerako eta sorkuntzarako.
- Obren teknika xumeak, koloreak eta formak bereizten ditu
- Ahotsa eta gorputza ikertzen ditu bere sormen-lanak egiteko.
- Errespetatu egiten ditu lanak eta bere zein besteren ekarpenak
- Musika-emanaldietan, koreografietan eta bestelako jardueretan duen egitekoa balioesten du.
- Eguneroko bizitzan erabiltzen diren soinuak, irudiak, musikak eta bestelako elementuak identifikatzen ditu.
- Harrera ona egiten die beste kultura batzuetako ekoizpen bisual eta musikalei.

EDUKIAK

MUSIKA

- Soinuaren nolakotasunak: balioa, pultsua.
- Abestien interpretazioa. Erritmoa eramatea. Soinua eta isilunea.
- Arreta eta barne-entzuketa.
- Soinuaren altuera eta iraupena bereiztea
- Isiltasunak musikan eta elkarbizitzan duen garrantzia balioestea.
- Gorputza musika-tresna gisa. Gorputzeko mugimendu eta soinuen posibilitateak.
- Gorputzaren kontrola: mugimendua, geldialdia, arnasketa, espazioan mugitzea.
- Ahotsaren, gorputzaren, objektuen eta naturako soinuen soinu-aukerak arakatzea.
- Abesti errazak ahots batez abestea eta buruz ikastea.


ARTE PLASTIKO ETA BISUALA

- Zentzumenen bidez behatzea eta ikertzea ingurune natural, artifizial eta artistikoko elementuak.
- Trazu espontaneoaren eta intentziodkoaren adierazpen-aukerak esperimintatzea.
- Kolore-nahasteak eta -orbanak esperimintatzea, askotariko materialak eta euskarriak erabilia.
- Artelanetan behatu dituen xehetasunak erabiltzea bere ekoizpen propioetan.

LH 1 ARTE HEZKUNTZA

MUSIKA ETA PLASTIKA: DOMINOA

Dominoa: <https://musikagelabirtuala.wordpress.com/2020/04/20/domino-musikala/>



KROKODILO BATEN AHOA

Handiagoa, txikiagoa eta berdin ikurrak sortzea, ikasle edo irakasle bakoitzak aukeratzen duen material eta teknikaz: marratuz, koloreztatuz eta moztuz, txotxak edo makilatxoak erabiliz... Ez ahal zaizue iruditzen animalia baten ahoa irudikatzen dutenik? Esaterako, krokodilo baten ahoa.



Zure familiakoekin edo/eta lagunekin berriro elkartzen zarenean jolasteko proposamen bat.

ETXEAN KONFINAMENDUAN EGON GARENEAN ENTZUN DITUGUN SOINUAK

- Ohikoa ez den zein soinu entzun dituzu denboraldi honetan?
- Eta, zein momentutan edo zein lekutan entzun duzu isiltasuna edo zarata gutxiago?
- Etxean, leihotik, balkoian, ... abestiren bat gustatu zaizu bereziki? Eta zein musika aukeratu duzu bakarrik egon zarenean entzuteko?


Orain aukeratu nola jaso nahi dituzun erantzunak (edo modu berri bat asmatu): Fitxa honetan idatzi edo irudikatu, edo marrazkiak egin, edo plastilinaz adierazi, edo arte lan bategin, edo grabatu, edo papertxikitxoetan idatzi edo margoztu eta pote batean sartu eta gorde edo zure logelako atean itsatsi, edo zuk nahi duzun moduan egin.

Anai Xanti, anai Xanti
lo dago, lo dago
kanpaia jotzen du, kanpaia jotzen du
din, dan, don din, dan, don

ABESTU ETA JOLASTU. ANAI XANTI

Lehenengo abestia entzun, gero letra irakurri. ANAI XANTI. Orain jarraibide hauekin abesten hasi:

1. Zatiak errepikatuz: ANAI XANTI, (zuk)....
2. Orain alderantziz, zuk zatika abestu eta errepikapena entzun... (zuk)... ANAI XANTI
3. Osotasunean abestu.

4. Gorputz perkusioa sartu:  Lehenengo bakarrik oinak, gero bakarrik eskuak, gero txandakatuz (bideoan ikus daiteke)

KONPETENTZIA DIGITALA

EBALUAZIO ADIERAZLEAK

- Nabigatzailean eskatu helbidera iristen da.
- Irakasleak sortutako fitxa interaktibo batean hitzak idazten ditu.
- Oinarrizko hezkuntza-joko/-aplikazioak erabiltzen ditu.
- (Ordenagailua/tablet/arbela) dagokion gailu digitalaren erabilera zuzena egiten du, baita ere, ergonomia aldetik eta gailuaren aurrean ematen duen denbora.

EDUKIAK

- Jarraibideei kasu eginez agindutako webgunera iristea eta bertan bilaketak egitea.
- Ataza interaktiboak burutzea.
- Tablet edo ordenagailua martxan jartzen jakitea eta teklatu zein saguarekin moldatzea.
- Saioa itxi eta gailua itzaltzea.

IKASKUNTZAREN AUTOERREGULAZIOA

EBALUAZIO ADIERAZLEAK

- Bere lana planifikatzeko gai da.
- Egindakoarekin konformatzen da.
- Behar duena lortzeko ahalegina egiten du.
- Laguntza eske jotzen du.
- Dakien horren inguruko gogoetak adierazten ditu.
- Kideen artean egiteko proposamenak onartzen ditu.

EDUKIAK

- Zereginen planifikazioa (espazioen prestaketa, materialen prestaketa, denboraren kudeaketa ...)
- Lanaren garapena
- Iturri ezberdinen kontsulta.
- Ikasteko estrategiak
- Metakognizioa.
- Kolaborazioa eta kooperazioa.

MATEMATIKA

EBALUAZIO ADIERAZLEAK

I. Eduki komunak

A. Arlo eta ikasgai guztietan komunak diren oinarritzko zehar-konpetentziekin lotutako edukiak: talde-lanean eragikor eta sortzailea kudeatzen du informazioa eta emaitzak komunikatzen ditu.

B. Ikasgai honetako multzo guztien eduki komunak: problemak ebazten ditu hainbat estrategiekin eta laguntzaile manipulagarriekin.

ZENBAKIKUNTZA:

- Zenbakiak irakurri eta erabiltzen ditu
- Zenbakien arteko oinarritzko erlazioak ezagutzen ditu

ERAGIKETAK:

- Hamarrekoen deskonposaketa egin eta ulertzen du.
- Hamarrekoen arteko eragiketa oinarritzkoak egiten ditu.
- Oinarritzko batuketak eta kenketak burutzen ditu.

BURUKETAK:

- Eragiketak erabiltzen ditu testuinguruetan.

MAGNITUDEAK:

- Magnitudeak: pisua, distantzia... erabiltzen ditu testuinguruetan.

BURUZKO KALKULUA:

- Oinarritzko buruzko kalkuluak egiteko gai da.
- Batuketa baten batugaien deskonposaketa egiten moldatzen da.

GEOMETRIA:

- Poligono errazak ezagutu eta deskribatzen ditu.
- Gorputz geometriko errazak ezagutu eta deskribatzen ditu.

EDUKIAK

I. Eduki komunak

A. Arlo eta ikasgai guztietan komunak diren oinarritzko zehar-konpetentziekin lotutako edukiak: informazioen kudeaketa, plangintzak egin eta bete, lanen emaitzak komunikatzea, talde-lanean aritzea motibazioaz eta gatazkak kudeatzea autoerregulazioatik.

B. Ikasgai honetako multzo guztien eduki komunak: problemen ebazpena, modelizazioa eta manipulazioa.

ZENBAKIKUNTZA:

- Zenbakiak mila arte. Hiru zifrako zenbakiak.
- Izena, zifren leku balioa, aurrekoa eta ondorengoa, handiagoa, txikiagoa.

ERAGIKETAK:

- Hamarreko osoak konposatzea eta deskonposatzea.
- Hamarreko osoak batzea eta kentzea.
- Batuketak eramanarekin eta eramanik gabeko kenketak egitea.

BURUKETAK:

- kenketa eraman barik eta batuketak eramanarekin.

MAGNITUDEAK:

- Kiloa / m / osoa eta erdia.

BURUZKO KALKULUA:

- +/- (gehienez, hiru bi zifra erabilita) zihurtatu lehenengo hamar zenbakien konposaketa eta deskonposaketa menperatzen dutela.

GEOMETRIA:

- Poligonoak (karratua / laukizuzena / hirukia / zirkunferentzia)
- Gorputz geometrikoak. Zirkulua, kuboia, prisma eta piramidea.
- Espazioan kokapena, orientazioa eta errepresentazioa

Matematika - LH - 2. maila-rako jarduerak

[Matematika koronabirus garaietan](https://labur.eus/matecovid19): <https://labur.eus/matecovid19>

[Etxean ikasten Matematika](https://labur.eus/etikmate): <https://labur.eus/etikmate>

[Etxetik irakatsi](https://labur.eus/etxetikirakatsi): <https://labur.eus/etxetikirakatsi>

[Flipped classroom](https://labur.eus/flipped): <https://labur.eus/flipped>

Eduki komunak

A. Arlo guztietan komunak diren oinarritzko zehar-konpetentziekin lotutako edukiak:

[Arazo-egoerak eta Unitate didaktikoak](https://labur.eus/AE-UD) <https://labur.eus/AE-UD>

B. Matematikarako eduki komunak: [Problemak](https://labur.eus/probh) <https://labur.eus/probh>

NIRE BURUA NEURTZEN

Zenbat neurtzen dute nire buruak, bularrak, hankek, besoek... Eta denetara zein altuera dut. Zenbatgarrena naiz gelan altueraz. Zenbat pisatzen dut? Zenbatgarrena naiz gelan pisuz. Ba al dago erlaziorik altuera eta pisuaren artean?

GIZAKION ETA NATURAREN FORMAK

Gizakiok eta naturak egindako elementuetan forma desberdinak ditugu: batzuk planoak dira eta figurak deitzen diegu, eta beste batzuk bolumena dute eta gorputzak deitzen diegu. Zein forma posible dute figurek eta gorputzek? Non agertzen dira? Argazkiak atera eta aztertu.

ETXEKO HORNIDURAK: INTERNET, URA, ARGINDARRA...

Gure etxean "aparte" bizi gara baina hornidurak behar ditugu interneten ibiltzeko, ura edan ahal izateko, argia izateko... nola ailegatzeko dira eta non sortzen dira behar ditugun gai horiek. Nola neurtzen dira eta zenbat pagatu behar ditugu. Nola ordaintzen ditugu? Kaletik nola igotzen dira gure etxeraino eta ze luzerako bidea egin behar dute horretarako?

ARGAZKIAK AZTERTZEN

Zenbakiak edonon agertzen dira eta argazkietan agertzen diren elementuak kontatuko ditugu. Lau lehiopisuko bi pisutako etxe batean, bost hatzamar-behatz lau gorputz-adar bakoitzea, hiru euro gelako 14 lagun bakoitzeko... kontatu elementuak argazkietan.

ZENBAKIAK DESKONPOSATU ETA ERAGIKETAK

Zenbakiak digito desberdinez osatzen dira: 33 zenbakia bi 3-rekin osatuta badago ere lehenengo 3ak eta bigarren 3ak ez dute balio bera: 30 eta 3 balio baitute, hurrenez hurren. Landu zenbaki-sistema hamartar posizionala [Hamarrekotan](https://labur.eus/hamar) <https://labur.eus/hamar> aplikazioarekin. [Batu eta kendu](https://labur.eus/btk100) <https://labur.eus/btk100>

HIZKUNTZAK (EUSKARA/GAZTELANIA)

EBALUAZIO ADIERAZLEAK

ENTZUMENA eta IRAKURMENA

- Ahozko eta idatzizko testuak identifikatzen eta ulertzen ditu: testu generoa, oinarrizko informazioa, zentzu orokorra, oinarrizko hiztegia eta esapideak.
- Informazioa erregistratzeko baliabideak modu gidatuan erabiltzen ditu: fitxak, taulak, marrazkiak...
- Landutako testuak ozenki irakurtzen ditu era ulergarrian.
- Parte aktiboa hartzen du irakurketa jardueretan.

AHOZKO ELKARREKINTZA

- Laguntzarekin modu aktibo eta egokian parte hartzen du komunikazio-trukeetan: txandak errespetatuz, besteei arretaz entzunez, gaiaren haria gehienetan jarraituz eta oinarrizko galdetzaileak erabiliz
- Euskaraz hitz egitearen aldeko interesa eta jarrera du.

MINTZAMENA eta IDAZMENA

- Bere eguneroko beharrei erantzuteko modu argian hitz egiten du
- Ahozko eta idatzizko testu sinple eta anitzak laguntzarekin sortzen ditu: ideien ordena eta koherentzia, testuei dagokien oinarrizko hiztegia eta esaldi sinpleak.
- Ahoskera ulergarria du.
- Fonema-grafia korrespondentzia egoki egiten du.
- Hitzak, oro har, egoki banatzen ditu.
- Puntua eta koma ikurrak egoki erabiltzen ditu.
- Abestiak, olerkiak eta narrazioak errezipitatu eta antzezten ditu ahoskera, erritmo eta intonazio egokia erabiliz.

EDUKIAK

ENTZUMENA eta IRAKURMENA

- Adinari egokitutako ahozko eta idatzizko testu anitzak arretaz entzutea, laguntzarekin irakurtzea eta ulermen jarduerak proposatzea.
- Testu generoak identifikatzea.
- Kontzientzia fonologikoa era ludikoan eta testuinguruan era sistematikoan lantzea.

AHOZKO ELKARREKINTZA

- Ikastaldeko kideen arteko elkarrizketak haien intereseko gaien inguruan.

MINTZAMENA eta IDAZMENA

- Eredu batetik abiatuta, ahozko eta idatzizko testu sinpleak sortzea prozesuaren urratsak kontuan harturik, gai kurrikular bati buruzkoak edo norberaren bizipenekoak.
- Testu idatzi sinpleak osatu, luzatu eta irizpide batzuen arabera transformatzea. Esaldiak luzatzea eta amaitzea.
- Olerkien, bertsoen eta narrazioen dramatizatzeko, birsortze- eta errezipitate-jarduerak testuinguruari lotuak.
- Testu bakoitzak behar dituen oinarrizko hizkuntza baliabideak eta lexikoa bere testuinguruan lantzea.
- Oinarrizko hiztegia lortzeko hitzekin jolastea eta esaldiak egitea testu-inguruan txertatuta.

Ahozko eta idatzizko testu generoak: ipuina, oharra, abestia, olerkia, errezeta, argazki oina, arauak, pertsonen deskripzioak, norberaren zaletasunak adieraztea, postala, jarraibide sinpleak, gertaeren kontakizuna...

LH2 EUSKERA ETA GAZTELANIA

NOR NAIZ NI?

- Norbere buruaren marrazki bat egin eta nolakoa den deskribatuko du ikasleak (kanpoko itxura eta izaera), baina izena jarri gabe.
- Erakusketa antolatu eta guztion artean asmatu eta adostu beharko dugu nor den nor.
- Guztiok ezberdinak eta bereziak garelako gaiaren inguruan lelo bat adostuko dugu gelan jartzeko. Sakontzeko, [“adimen emozionala” materiala ikusi](#).

KUTXA ALAIA

- Etxean aurki dezaketen kutxa bat polit-polit apaindu: gure “kutxa alaia”.
- Egunero, ikasle bakoitzak paper zati bat hartuko du eta alde batean data idatziko du. Paperaren beste aldean, egunero poza eman dion kontu bat idatziko du, marraztu, kopianu, moztu... (adinarean arabera egokitu) eta kutxan sartu. Bi baldintza: bakarrik zoriotsu egin gaituzten gauzak izan daitezke eta egia izan behar dira.
- Partekatzeko aukera anitzak daude: norberari gehien gustatu zaion gertaera edo eskatu dakieke laburpena egiteko edo egin dezakete “eguneroko” bat jasotako kontu guztiekin eta gelan aurkeztu... Bi une aurreikusten dira: ekainean zehar eta irailean, uda garaian egindakoa kontatzeko...
- Erronkaren azalpena eta xehetasunak: [Kutxa alaia](#)

NIRE LEIHOTIK IKUSTEN DUDANA

- Leiho batetik gauza zoragarriak ikus daitezke. Deskribatu zer ikusten duzun zure logelako leihotik. Erreparatu xehetasun guztiei eta ez ahaztu ezer.
- Deskribapena idatzi ondoren, zure ikaskide bati irakurriko diozu eta berak zure logela marraztuko du.
- Ahal bada, atera argazkia eta erakutsi. Horretan oinarrituta, koebaluazioa egin.
- Zein izan da emaitza? Alde handia dago? Zergatik? Adostu bion artean zer egin zure deskribapena hobetzeko.
- Aurrekoa kontuan hartu eta idatzitakoa berridatzi.

KROKODILOA

Entzun, irakurri, marraztu eta abesteko jarduera. Ilargia Kulunkantari Saileko liburuxka batean oinarritua. [Krokodiloa](#).

ASMAKIZUNAK SORTZEN

- Egunero, bost ikaslek asmakizun bana aukeratu eta ozenki irakurtzeko prestatzen dute. Denen aurrean irakurtzen/ esaten dute banan-banan eta besteek asmatu egin behar dute.
- Testu mota ezagutu eta menperatu ondoren, asmakizun bana sortuko dute ikasleek. [Jardueraren deskripzioa](#)
- Etxetik honela egin daiteke: [Asmakizunetara jolasten](#)

ATZERRIKO HIZKUNTZA

EBALUAZIO ADIERAZLEAK

- Gai da irakaslearen laguntzarekin, zenbait hitz edo oso esaldi simple esateko, eta soinuak, intonazioa eta ahoskera imitatzeke.
- Ahozko azalpen eta jarraibide sinpleen zentzu orokorra ulertzeko gai da.
- Bere intereseko ahozko kontakizunak arretaz jarraitzen ditu.
- Gai da laguntza handiz elkar eragiteko, hitzezko edo hitzik gabeko erantzunen bitartez (buruz ikasitako formulak baliatuz, nagusiki)
- Ezagutzen dituen edo gogoko dituen gaien inguruko ondo egituraturutako aurkezpen xumeen ideia nagusiak bereganatzen ditu
- Ereduak erabiliz eta laguntza handiz, gelan landutako oso testu sinpleak birsortu eta ekoizten ditu eta txukun aurkezteko interesa azaltzen du.
- Landutako hizkuntza-ezagupenak erabiltzen saiatzen da.
- Atzerriko hizkuntza erabiltzeko interesa adierazten du.

EDUKIAK

MINTZAMENA

- Eguneroko bizitzako gertaerei lotutako bizipenak, norberaren aurkezpena, agurrak, gelako hizkuntza,... modu oso gidatuan sortzea.
- Soinuak, intonazioa eta ahoskera imitatzea.

ENTZUMENA

- Ahozko azalpen eta jarraibide sinpleen zentzu orokorra ulertzea.
- Bere intereseko ahozko kontakizunak arretaz jarraitzea: abestiak, errimak, ipuinak, istorio laburrak, .

AHOZKO ELKARREKINTZA

- Informazio pertsonalaren trukean, errutinetan, gelako dinamikan edota simulazioetan... laguntza handiz elkar eragitea, hitzezko edo hitzik gabeko erantzunen bitartez (buruz ikasitako formulak baliatuz, nagusiki): greetings, weather, days of the week, months,...

IRAKURMENA

- Ezagutzen dituen edo gogoko dituen gaien inguruko ondo egituraturutako aurkezpen xumeen ideia nagusiak bereganatzen dituzte, baldin eta irudiak baditu eta astiro eta argi hitzegiten bada.

IDAZMENA

- Ereduak erabiliz eta laguntza handiz, testu laburrak eta oso sinpleak birsortzea eta ekoiztea: oharrak, horma-irudiak, gelako proiektu xumeen ekoizpenak, ...
- Testu idatziak txukun aurkezteko ardura hartzen du.

**Hizkuntza ezagupenei dagokienez, hauek landu ahal dira: daily routines, weather, colours, cardinal numbers 1-50, school, family, body parts, house, toys, clothes, food and drink, hobbies, sports, feelings adjectives.

ENGLISH PRIMARY

YEAR 2

Create your own VOKI

Vokis are great for practising speaking skills with learners of all ages. Creating an animated character and giving it a voice is really fun to do and breaks down the inhibitions that learners often have when faced with recording themselves speaking in English.

Resources: www.voki.com

Picasso faces

In this unit students watch a video about body parts. Then they do some worksheets to work on body parts vocabulary. Finally they will draw a funny drawing rolling game to create a Picasso face. In the template there are more games to work on different topics. The students can upload their picture to the blog or send it to the teacher.

Resources: [Body parts video](#), [Body parts worksheet](#), [Who is who worksheet](#), [Roll a Picasso drawing game](#), [Template for the game](#)

MasterChef

In this unit students practice food and cooking vocabulary by filling a worksheet. Then they play a game sorting healthy and unhealthy food. Next they play another game where students have to follow instructions to make a pizza. Finally, students write their favourite dish and cook it. The final dish picture is sent to the blog.

Resources: [Worksheet](#), [Food game](#), [Make a pizza](#), [Masterchef My favourite dish](#)

The wolf Who Wanted to Change his Colour

In this unit students practice the days of the week and colours. First they watch the video of the story which has two parts. There ´s an extra video of the same story told by children. Finally students draw a wolf by following a tutorial and then upload it to their blog or send it to their teacher etc.

Resources: [Part1](#), [Part2](#), [Story told by kids](#), [How to draw a wolf](#)

eTwinning: From STEM to STEAM

Why not start an eTwinning project? eTwinning offers a platform for teachers to communicate, collaborate, develop projects, share and, in short, feel and be part of the most exciting learning community in Europe. If you register in this European Council platform, you can start networking with other European colleagues and have your students collaborating on innovative projects with students from all over Europe.

Resources: www.etwinning.net , www.etwinning.es, [kit](#)

NATURAREN ZIENTZIAK

EBALUAZIO ADIERAZLEAK

- Esperimentu errazak planifikatu eta egiten ditu.
- Lan zientifikoa ordenaz egiten du.
- Informazio eta Komunikazio Teknologiak modu gidatuan, informazio-iturri gisa, erabiltzen ditu.
- Arnasketa-prozesua adierazten du.
- Zentzumenen organoak zuzenean behatzen eta deskribatzen ditu.
- Badaki zein diren norberaren dietarako, higienerako, zaintzarako eta atsedenerako oinarrizko ohiturak eta jarraitu egiten ditu.
- Izaki bizidunak eta materia bizigabea bereizten ditu.
- Izaki bizidunekiko interesa azaltzen du eta errespetatu eta zaindu egiten ditu.
- Izaki bizidunekin lotutako esperientziaren edo prozesuren bat ahoz adierazten du eta zenbait euskarri erabiltzen ditu, digitalak barne.
- Gorputzen portaera argiaren aurrean bereizten ditu.

Makinen eta tresnen aplikazioen bat ikusi eta bereizten du, eta giza jarduerak zertan errazten duen esaten du.

EDUKIAK

Naturaren-zientzien proiektua edo erronkak egitea, modu gidatuan, metodologia zientifikoa eta haren oinarrizko ezaugarriak fenomeno naturalak eta benetako egoerak aztertzeko, identifikatzeko eta ebazteko aplikatzeko irizpideak eta jarraibideak erabiltzen hastean.

Proiektua edo erronkak gai horietako bati buruzkoa izango litzateke.

GIZAKIA ETA OSASUNA

- Arnasketan esku hartzen duten organo nagusiak identifikatzea.
- Zentzumenen organoak identifikatzea eta ingurunea esploratzean eta besteekiko harremanean betetzen duten eginkizuna ezagutzea.
- Elikadura osasuntsua eta orekatua
- Norberaren higiea, gorputz-jarrera egokiak eta atsedena baloratzea.

IZAKI BIZIDUNAK

- Izaki bizidunak, izaki bizigabeak: talde bakoitzaren desberdintasunak
- Izaki bizidunen inguruko esperientzia edota prozesu beten txosten xeheak egitea eta ahoz aurkeztea (euskarri analogiko eta digitalean)

MATERIA ETA ENERGIA

- Materialen propietateak
- Gorputzen portaera argiaren aurrean: gardenak, zeharrargiak eta opakoak.

TEKNOLOGIA, OBJETUAK ETA MAKINAK

- Makina arruntak, pertsonalak edo etxeak: aplikazioa

LH 2 NATURAREN ZIENTZIAK

Etapako helburuak eta arloa ebaluatzeko irizpideak garatzeko funtsezko jarduerak

IKERKETA DOKUMENTALA

- **Jarduera / Ataza:** Ikerketa txikia egingo dute ikasleek. Prozesua:
 - 1-Galdera edo ikerketaren gaia erabaki eta aurrezagutzak adierazi
 - 2-Iturri fidagarriak eta euskarriak (antolatzaile grafikoak, gidoiak eta txantiloak) erabaki
 - 3-Ikerketa egin (informazioa hautatu, sailkatu eta antolatu)
 - 4-Sintesia, azalpena eta ondorioak atera
 - 5-Komunikazioa (analogikoa eta digitala: poster, txostena...) Adibidea: [Zein da azukre gehiago duen edaria?](#)
- **Prozesuzko jarduerak eta produktuak:** Kontzeptuzko mapa, arnas aparatuen maketa, gizakiaren bizi-funtzioen eskemak, animalien sailkapen grafikoak, Natura zaintzeko dekalogoak, ikerketaren txostena, hostoen bilduma, objektu bat egiteko prozesuaren murala, ikasitakoaren aurkezpen digitala, landareen eta animalien fitxa bilduma (fitxategia argazkiekin, mural birtualak) ...
- **Gaien adibideak:** izaki bizidunak eta bizigabeak (talde bakoitzaren desberdintasunak), elikadura osasuntsua eta orekatua, higieena eta atsedeen ohiturak, Izaki bizidunen inguruko esperientzia edota prozesu beten txosten xeheak egitea eta ahoz aurkeztea (euskarri analogiko eta digitalean), makinaren aplikazioa bizitzan,

IKERKETA ESPERIMENTALA

- **Jarduera/Ataza:** Ikerketa esperimental txikia egingo dute ikasleek. Prozesua:
 - 1-Gairi buruz aurrezagutzak adierazi.
 - 2-Planifikazioa: hipotesiak egin eta esperimenduaren aldagaiak, urratsak eta datuak erregistratzeko moduak erabaki.
 - 3-Esperimentua egin eta datuak jasotzeko
 - 4-Analisia egin eta emaitzak aztertu
 - 5-Hipotesia egiaztatu, konklusioak atera eta komunikatu (analogikoa eta digitala: panela, txostena...). Adibidea: [zentzumenak](#), [Zergatik egiten dugu negar tipulak ebakitzen dugunean?](#), [Ur-iragazkia](#), [Nolako da barraskiloen bizimodua?](#), [Esku nazkagarriak](#),...
- **Prozesuzko jarduerak eta produktuak:** [behaketa](#) gidatuaren kontrol orria, ondorioen azalpena egiteko [poster zientifikoa](#), esperimenduzko-prozesuaren panela, datuen grafikoak eta taulak, esperimenduen dossiera, prozesuaren bideo grabaketa edo [aurkezpen digitala](#), ...
- **Gaien adibideak:** izaki bizidunak eta bizigabeak, arnasketa organoak, zentzumen organoak, materialen propietateak eta gorputzen portaera (gardena, zehargarriak eta opakak) argiaren aurrean, landareen mugimendua, landareen hazkundera, arnasketa, elikagaiak, ...

GIZARTE ZIENTZIAK

EBALUAZIO ADIERAZLEAK

KOMUNAK:

- Egoera jakin batean, informazio zehatza eta garrantzitsua bilatu, hautatu eta antolatzen du, irakasleen laguntzarekin.
- Txosten bat egiten du eta emaitzak jakinarazten ditu.
- Talde-lanetan bere erantzukizun indibiduala onartzen eta bere gain hartzen du.

GURE MUNDUA ETA HAREN KONTSERBAZIOA:

- Lurraren biraketa-higidura eta hark egunaren eta gauaren segidan dituen ondorioak identifikatu eta deskribatzen ditu.
- Lurraren translazio-higidura identifikatu eta deskribatzen du, eta urtaroeekin lotzen du.
- Urak naturan izaten dituen egoerak identifikatzen eta deskribatzen ditu.
- Paisaia definitzen du.

GIZARTEAN BIZITZEA:

- Udalerria definitzen du. Haren biztanleria eta jarduera ekonomikoak.
- Udalaren egitura, funtzioak eta betetzen dituen zereginak.

DENBORAREN ARRASTOA:

- "Orain", "iragan" eta "etorkizun" kontzeptuak ulertzen dituela erakusten du, eta ahoz zein idatziz erabiltzen ditu.
- Denbora neurtzeko unitateak ezagutzen eta behar bezala erabiltzen ditu: eguna, astea, hilabetea, urtea, hamarkada, mendea.

EDUKIAK

KOMUNAK:

- Informazioa identifikatzea, lortzea, gordetzea eta berreskuratzea.
- Lortutako emaitzaren berri ematea.
- Taldean ikasteko lanetan laguntzea eta elkarlanean aritzea.
- Talde-lana eta lankidetzalana.

GURE MUNDUA ETA HAREN KONTSERBAZIOA:

- Biraketa-higidura, egunen eta gauen segida eta ilargiaren faseak.
- Translazio-higidura, urtea, urtarokak eta egutegia.
- Espazio-orientazioa: puntu kardinalak.
- Uren banaketa planetan. Ur gezak eta ur gaziak.
- Euskal Herriko paisaiak.

GIZARTEAN BIZITZEA:

- Herriak eta hiriak. Auzoak eta auzo motak.
- Herriko antolamendua: Udala eta udal-zerbitzuak.
- Auzoko eta herriko biztanleria.
- Herriko produkzio-jarduerak.

DENBORAREN ARRASTOA:

- Oinarrizko denbora-kontzeptuak: oraina, iragana eta etorkizuna.
- Denboraren lerroa.

TREBEZIAK-TALDE LANA

- Iritzi, ekarpen eta ideia guztiak errespetatzen dira.
- Taldeetan txosten bat egin hainbat euskarri erabilia eta emaitzak jakinarazi.
- Talde-lana. [Errubrika talde-lana.](#)

LURRA ETA HAREN KONTSERBAZIOA:

- Uraren zikloa. Ikusi [bideo hau](#) egin eskuema txiki bat.
- Esteka honetan <https://www.hiru.eus/eu/geografia/el-agua> duzue uraren zikloari buruzko informazioa. Hori hobeto ulertzeko jolasa ere baduzue.
- Esteka [honetan](#) jasotako informaziotik abiatuta, ikasleentzako "egiazko" edo "gezurrezko" proba bat prestatzea.
- Begiratu arretaz hurrengo bideoa, eta egin ideia garrantzitsuenen zerrenda bat. Uraren kutsadura: <https://www.youtube.com/watch?v=7akJ7QWboNE>
- Egin kontzeptu-mapa bat esteka [honetan](#) agertzen den informazioarekin.
- Lurraren hidrosfera. Irakasleak aukera anitzeko proba bat prestatuko du [aurkezpen](#) honetan agertzen den informazioarekin.
- Paisaia zer den definituko duen talde-lana proposatzea. Taldearen barruan rolak banatu behar dira eta lana egiteko ezarritako epea bete behar da. [Errubrika talde-lana.](#)
- Beren herriko eta lurraldeko mapa batean, elementu fisiko batzuk marrazten dituzte: ibaiak, mendiak eta abar.
- Urari eragiten dizkieten kalteen zerrenda egiten dute ikasleek.

GIZARTEAN BIZITZEA:

- Irakaslearen laguntzarekin ikasleek, talde txikian, beren eskola eta udalerraren antolaketaren oinarritzko inkesta bat egiten dute.
- Taldeko irteera, produktu naturalak eta jatorria ezagutzeko (esnea, arrautzak, barazkiak, etab.). Bisita eta gero taldeka txosten txiki bat egin.
- Talde txikian, inkesta baten bidez, beren auzoko eta herriko biztanleen datuak biltzea.
- Talde txikitan, talde bakoitzak bere herriko garraiobide publiko bat aukeratzen du, eta ibilbidea plano batean markatzen du.
- Taldeka Udaletxera bisita egiten da zinegotziren batekin elkarrizketatzeko, eta Udalaren antolaketa eta zerbitzu publikoak zeintzuk diren adierazteko.
- Taldekako ikasleek oinezkoen eta automobilisten eskubideen zerrenda egiten dute.
- Bere herriko planoan, bere auzoen inguruak marrazten ditu.

DENBORAREN ARRASTOA:

- Ikasleek irakaslearen laguntzarekin, oso oinarritzkoa den lerro historiko baten, oraina, iragana eta etorkizuna kontzeptuak irudikatzen dituzte.
- Ikasleak bere familiako gertaera historiko garrantzitsuren bat tartekatu dezake argazkiekin eskema horietan.
- Denbora neurtzeko unitateekin (astea, hilabete, urtea, hamarkada, mendea) bakarka, irudiez mural bat prestatu.
- Ikasleak bere herriko edo auzoko denboran izandako aldaketei buruzko txostena egiten du.
- Ikasleari bostoinarritzko termino historikoa ematea eta haiekin eskema bat egiteko eskatzea.

GORPUTZ HEZKUNTZA

EBALUAZIO ADIERAZLEAK

- Norberaren eta besteen gorputz atalak ezagutzen ditu. Ikusmen (kolore, forma...) estimulu desberdinei mugimendu-erantzun zuzenak ematen dizkio. Oina lurrean ondo ipinita, orpo, oin punta, korrika eginez desplazatzen da. Espazioan orientatzen da ondorengo oinarrizko nozioak erabiliz; kanpo/barru, goi/behe, hurbil/urrun, aurre/atze, eskuma/eskerra. Itzulipurdia aurrerantz egiteko gai da.
- Eskuak erabiliz eta hankak erabiliz, mugimenduzko begi-esku eta begi-hanka koordinazioak egiten ditu: Pilotak kolpatu edo jo, jaurti, hartu, botea eragin, gelditu, paseak egin...
- Arnasa sakon hartu eta airea bota gabe, apur baten barruan mantentzeko gauza da. Erlaxazio orokorra erabiltzen du saio bukaeran.
- Suediar bankuan edo antzeko gainazaletan oreka mantentzen du.

EDUKIAK

- Ikusmen, entzumen eta ukimen bidez hautemandako estimuluaren aurrean erreakzioen lanketa, estimulu horien araberrako mugimendu-erantzun egokiak emanez. Era desberdinetako desplazamenduak, jauziak eta birak, era koordinatuan eta espazioan ondo orientatuz. Objektuak erabiliz jaurtiketak eta harrerak, gorputz atalak koordinatuz eta gorputza ondo kokatuz. Gorputz postura desberdinetan orekak, arnasketa, erlaxazioa eta tentsioa kontrolatuz. Jolasetan parte hartze aktiboa, bai mugimendu egokiak bai taldekideekin jarrera egokiak erabiliz. Gorputza eta tresnen bidez egitura erritmiko errazak.
- Gorputzaren eta mugimenduaren bitartez, pertsonaiak eta egoeren antzezpeneak naturaltasunez. Gorputza zaintzeari buruzko arauak; zehazki, higiene ohiturei zein arriskuen kontzientzia hartzeari dagokienez.

LH 2_GORPUTZ HEZKUNTZA

PUXIKA TENISA:

- Tenis partida bat jokatzeari litzateke baina erraketarik gabe edo sortuz, piloten ordean puxikak erabiliz. Horretarako, honako [orientabide hauek](#) jarraitu ditzakete ikasleek.
- [Bideo honetan](#) adibidea.
- Ikasleek egindako ariketen autoebaluazioa burutuko dute: [Autoebaluazioa txantiloia](#).

ZIRKUITUAK:

- Zirkuitu bat egingo dute ikasleek etxean ([adibidea](#)). [Bideoa](#) ikus daiteke nola eraman aurrera jarduera.
- Ikasle bakoitzak egiten duenaren inguruko ebaluazioa burutzeko honako [galdetegia](#) bete.

MASTERMIND (3 marran mugimenduarekin, ...):

- [Mastermind jolasean](#) arituko dira etxean bi ikaskideren artean.
- [Bideo honetan](#) ikasleei bidaliko zaien jolasaren garapena dago.
- Ikasleak, [ebaluazio tresna hau](#) beteko du dinamika amaitutakoan.

OREKA JARDUERA:

- Irakasleak bidalitako bideo baten bitartez oreka jarduera bat egingo dute ikasleek, hona hemen ikasleei helarazteko [adibidea](#).
- Ikasleek egindako ariketen [autoebaluazio tresna hau](#) burutuko dute.

MUGITU ETXEAN:

- Irakasleak etxekoekin batera mugimenduan aritzeko [bideo hau](#) ikusteko eskatuko die ikasleei.
- Hemen [azalpena](#).
- Irakasleak erregistro [taula](#) beteko du.

JAURTIKETAK (Saskibaloia, eskubaloia, futbola...)

- Etxean [jaurkiketak](#) egingo dituzte ikasleak bideoa ikusi ondoren.
- Ikasleentzako [autoebaluazio-galdetegia](#).

ARTE HEZKUNTZA: MUSIKA-ARTE/PLASTIKO ETA BISUALA

EBALUAZIO ADIERAZLEAK

- Gogoz parte hartzen du eta gozatu egiten du ikasgelako musika-jarduerak egitean, marrazkiak eta plastikako lanak egitean
- Bere sentimenduak azaltzen ditu, eta hainbat ideia adierazten ditu museoetan entzunaldietan proposatutako obren eta inguruan dituen produktu musikal eta bisual gainean.
- Hitzez eta idatziz adierazten ditu arte-sorkari bisual eta musikalek sorrarazten dizkioten emozioak eta sentimenduak
- Oinarrizko teknika, baliabide eta konbentzioak lantzen ditu, eta bere ekoizpenetan erabiltzen.
- Oinarrizko musika-trebetasunak baliatzen ditu musika interpretatzeko eta sortzeko.
- Musika-mintzairako elementu oinarrizkoak baliatzen ditu adierazpenerako eta sorkuntzarako.
- Obren teknika xumeak, koloreak eta formak bereizten ditu
- Errespetatu egiten ditu lanak eta bere zein besteren ekarpenak
- Eguneroko bizitzan erabiltzen diren soinuak, irudiak, musikak eta bestelako elementuak identifikatzen ditu.
- Harrera ona egiten die beste kultura batzuetako ekoizpen bisual eta musikalei.

EDUKIAK

MUSIKA

- Abesti errazak ahots batez abestea eta buruz ikastea.
- Ahotsa zaintzearen garrantzia, gainerako pertsonekin komunikatzeko tresna eta bitarteko naturala den aldetik. Perkusio txikiarekin interpretatzeko trebetasun oinarrizkoak eskuratzea.
- Mugimendu-teknika oinarrizkoak praktikatzea soinuuko estimuluei erantzuteko eta dantza errazak dantzatzea.
- Isiltasunak musikan eta elkarbizitzan duen garrantzia balioestea.
- Soinu-iturriak ikertzea eta naturako eta gizarteko soinuak bereiztea.
- Adi entzutea musika-konposizio laburrak, estilo eta kultura askotarikoak, Euskal Herrikoak zein beste herrialdeetakoak.

ARTE PLASTIKO ETA BISUALA

- Marrazkiak, margolanak, collageak, bolumenak eta antzeko lanak egitea, ideiak eta sentimenduak adierazi edo narrazioak oinarritzeko.
- Inguruko elementuak behatzea, objektuen proportzioak, harremanak, kokapenegoerak eta haien bestelako alderdiak ulertzeko.
- Egiturak eta tonalitateak sailkatzea eta forma natural eta artifizialak balioestea.
- Trazu espontaneoaren eta intenziozkoaren adierazpen-aukerak esperimintatzea.
- Kolore-nahasteak eta -orbanak esperimintatzea, askotariko materialak eta euskarriak erabiltzea.

LH 2 ARTE HEZKUNTZA

ERRITMOA LANTZEN

Vivaldiren udaberria: bideo ipuina+musika (erritmoak)

<http://mousikarma.blogspot.com/2020/03/udaberria-iritsi-da.html>



KOLOREAK SORTZEN

Bazenekien 3 kolore soilik erabiliz sortu daitezkeela beste guztiak? Kolore horiek horia, zian urdina eta magenta dira. Animatzen ahal zara hauek nahastuz best ekolore batzuk sortzen?

<http://artekatu.com/plastika/kolorearen-teoria/>



Kolore sorta sortu duzunean saiatu zaitez etxealdiak biziarazi dizkigun sentimenduen izenak kolore horietako batekin erlazionatzen.

2. ABESTU ETA JOLASTU ANAI XANTI

Anai Xanti, anai Xanti
lo dago, lo dago
kanpaia jotzen du, kanpaia jotzen du
din, dan, don din, dan, don

- Lehenengo abestia entzun, gero letra irakurri. ANAI XANTI
- Mugimendu-jolasa ikasi: [bideoa](#) ikusiz
- Orain, norekin egingo duzu jolas hau? Pertsona horren izena LAGUN eta gero sartu eta abestu berarekin musika hori baina letra berriarekin: adibidez LAGUN MAIDER

LAGUN ...(izena).., LAGUN...(izena).....

NON ZAUDE?, HEMEN ZAUDE

BERRIZ ELKARREKIN, BERRIZ ELKARREKIN

HAU POZA! , HAU POZA!



Beste herrialde batzuetan ere abesten da kanta hau, adibidez [Frantzian](#)

- Inguruan oinen eta eskuen soinua ordezkatu ahal duten musika tresnaren bat bilatu eta ANAI XANTI abestu musika tresna horien laguntzaz.
- Familia edo lagunei proposatu eta bakoitzak musika tresna bat hartuz abestu, bakoitzak dagokionean joz.

KONPETENTZIA DIGITALA

LH2

EBALUAZIO ADIERAZLEAK

- Nabigatzailean eskatu helbidera iristen da.
- Testu-dokumentuan idazten du eta gordetzen du lana.
- Ikasleak berak burutu lana berreskuratzen du.
- (Ordenagailua/tablet/arbela) dagokion gailu digitalaren erabilera zuzena egiten du, baita ere, ergonomia aldetik eta gailuaren aurrean ematen duen denbora.

EDUKIAK

- Jarraibideei kasu eginez agindutako webgunera iristea eta bilaketak egitea.
- Lana dokumentu batean gordetzea eta berreskuratzea.
- Tablet edo ordenagailua martxan jartzen jakitea eta teklatu zein saguarekin moldatzea.
- Saioa itxi eta gailua itzaltzea.

IKASKUNTZAREN AUTOERREGULAZIOA

EBALUAZIO ADIERAZLEAK

- Bere lana planifikatzeko gai da.
- Bere lanen hobetze lanak egin beharraz ohartzen da.
- Behar duena lortzeko ahalegina egiten du.
- Laguntza eske jotzen du.
- Dakien horren inguruko gogoetak adierazten ditu.
- Kideen artean egiteko lanetan aritzen da.
- Interakziorako proposatutako ekintzak egiten ditu.

EDUKIAK

- Zereginen planifikazioa (espazioen prestaketa, materialen prestaketa, denboraren kudeaketa ...)
- Lanaren garapena
- Iturri ezberdinen kontsulta.
- Ikasteko estrategiak
- Metakognizioa.
- Kolaborazioa eta kooperazioa.

MATEMATIKA

EBALUAZIO ADIERAZLEAK

I. Eduki komunak

A. Arlo eta ikasgai guztietan komunak diren oinarrizko zehar-konpetentziekin lotutako edukiak: talde-lanean eragikor eta sortzailea kudeatzen du informazioa eta emaitzak komunikatzen ditu.

B. Ikasgai honetako multzo guztien eduki komunak: problemak ebazten ditu hainbat estrategiekin eta laguntzaile manipulagarriekin.

ZENBAKIKUNTZA:

- Zenbakiak irakurri eta erabiltzen ditu 10 000 arte
- Zenbakien arteko oinarrizko erlazioak ezagutzen ditu

ERAGIKETAK:

- Hamarrekoen eta ehunekoen deskonposaketa egin eta ulertzen du.
- Milakoen arteko eragiketa oinarrizkoak egiten ditu.
- Oinarrizko batuketak eta kenketak burutzen ditu baita milakoekin ere.

BURUKETAK: Eragiketak erabiltzen ditu testuinguruetan.

MAGNITUDEAK:

- Magnitudeak: pisua, distantzia, dirua... erabiltzen ditu testuinguruetan.

BURUZKO KALKULUA:

- Oinarrizko buruzko kalkuluak egiteko gai da.
- Batuketa baten batugaien deskonposaketa egiten moldatzen da.

GEOMETRIA:

- Figura errazak ezagutu eta deskribatzen ditu.
- Gorputz geometriko errazak ezagutu eta deskribatzen ditu.

EDUKIAK

I. Eduki komunak

A. Arlo eta ikasgai guztietan komunak diren oinarrizko zehar-konpetentziekin lotutako edukiak: informazioen kudeaketa, plangintzak egin eta bete, lanen emaitzak komunikatzea, talde-lanean aritzea motibazioaz eta gatazkak kudeatzea autoerregulazioatik.

B. Ikasgai honetako multzo guztien eduki komunak: problemen ebazpena, modelizazioa eta manipulazioa.

ZENBAKIKUNTZA:

- Milakora arte, 3 zifra.
- Izena, zifren leku balioa, aurrekoa eta ondorengoa, handiagoa, txikiagoa.

ERAGIKETAK: hiru zifradun kenketa eramanarekin eta biderketak zenbaki batekin.

BURUKETAK: batuketa, kenketa eta biderketa eragiketak erabilita ebazten direnak, baina konbinatu barik.

MAGNITUDEAK diruaren balioa, besteak hurbilketa baino ez manipulazioaren bidez.

BURUZKO KALKULUA: +/- 14 eragiketa jarraian.

GEOMETRIA: 7

- irudi lauak, poligonoak zer diren, aldea, erpina eta angelua.
- Espazioan kokapena, orientazioa eta errepresentazioa

PROBABILITATEA: KONTZEPTOA ETA BATEZBESTEKOA.

Datuak bildu, tauletan antola, maiztasun absolutua eta grafikoak interpretatu..

Matematika - LH - 3. maila-rako jarduerak

[Matematika koronabirus garaietan](https://labur.eus/matecovid19): <https://labur.eus/matecovid19>

[Etxean ikasten Matematika](https://labur.eus/etikmate): <https://labur.eus/etikmate>

[Etxetik irakatsi](https://labur.eus/etxetikirakatsi): <https://labur.eus/etxetikirakatsi>

[Flipped classroom](https://labur.eus/flipped): <https://labur.eus/flipped>

Eduki komunak

A. Arlo guztietan komunak diren oinarritzko zehar-konpetentziekin lotutako edukiak:

[Arazo-egoerak eta Unitate didaktikoak](https://labur.eus/AE-UD) <https://labur.eus/AE-UD>

B. Matematikarako eduki komunak: [Problemak](https://labur.eus/probh) <https://labur.eus/probh>

ZENBAT GARA HERRIAN

Batzuk hirian bizi dira beste batzuk herrietan eta gutxi batzuk basetxeetan. Zure udalak zenbat bizilagun ditu? Eta zer nolako hedapena du? Zein unitateetan neurtuko duzu azalera? Biztanle bakoitzari zenbat metro tokatzen zaizkio zure udalean?

HIRIAREN MAPA

Errealitatea ulertzeko erreztu egiten dugu haren adierazpen grafiko bat eraikiz. Bila ezazu zure udalaren mapa bat eta kokatu bertan non bizi zareten ikaskideak. Distantziak neurtu mapan eta parekatu errealitatekoekin, zer erlazio dago euren artean?

ADMINISTRAZIOAK ETA ZERBITZUEN KOSTUAK

Bizitzeko karreterak, hospitalak, eskolak, zenbait kasutan laguntzak... behar ditugu eta horiek egin eta kudeatzen ditu administrazioak zergak jasoz eta erabiliz... Administrazioaren mailak. Zenbat gastatzen dut bakoitzak eta zertan? Informazioa bildu eta antolatu grafikoetan.

ZATITZEN

Gauza guztiak ez daude osorik eta zenbaitetan hogi erdia, kilo laurdena, lanaren hamarrena esaten dugu eta horiek adierazteko zenbaki dezimalak erabiltzen ditugu. Asmatu ipuin bat non zenbaki dezimalak barra-barra agertzen diren.

ZENBAKIAK DESKONPOSATU, ERAGIKETAK ETA ESTIMAZIOAK

Aniztasuna kudeatzeko zenbakiak erabiltzen ditugu eta euren artean maiz eragiketak egin behar ditugu: batu, kendu, bidertu, zatitu... Landu zenbaki-sistema hamartar posizionala [Hamarrekotan](https://labur.eus/hamar) <https://labur.eus/hamar> aplikazioarekin. [Konparatu zenbakiak](https://labur.eus/erag) <https://labur.eus/erag> Landu [Eragiketak](https://labur.eus/erag) <https://labur.eus/erag>

HIZKUNTZAK (EUSKARA/GAZTELANIA)

EBALUAZIO ADIERAZLEAK

ENTZUMENA eta IRAKURMENA

Ahozko eta idatzizko testuak ulertzen eta interpretatzen ditu: testuaren xedea, testu generoa, berariazko informazioa, ideia nagusiak, zentzu orokorra, oinarritzko hiztegia eta esapideak.

- Informazio pertinentea aukeratzen du proposatzen zaion jarduerarako eta era egokian erregistratzen du: taulak, fitxak, buru mapak, grafikoak...
- Proposatutako testuak berak bakarrik irakurtzen ditu ulermena errazten duen estrategiaren bat era gidatuan erabiliz.

AHOZKO ELKARREKINTZA

Solasaldiak behar bezala hasi, jarraitu eta

- amaitzen ditu.
 - Solasaldietan parte hartzen du eta komunikazio-trukearen oinarritzko arauak errespetatzen ditu.
- Euskaraz hitz egitearen aldeko jarrera du.

MINTZAMENA eta IDAZMENA

Bere eguneroko beharrei erantzuteko modu argian eta koherentean hitz egiten du.

- Ahozko testuak era argian aurkezten ditu eta
- Idatzizko testu sinple eta txukunak sortzen ditu, betiere, eredu argiak oinarri hartuta: testu generoaren egitura kontuan hartuz, koherentzia minimoa bat erakutsiz, oinarritzko hiztegia eta gaiaren ingurukoa eta, gelan landutako hizkuntza baliabideak erabiliz.

Ahoskera, intonazio eta gorputz-jarrera eta keinu egokiak erabiltzen ditu.

- Ortografia naturala eta gelan landutakoa erabiltzen du.
- Puntua, koma, galdera eta harridura ikurrak erabiltzen ditu.

Bere akats batzuk identifikatzen ditu kontrol zerrendak baliatuz.

EDUKIAK

• ENTZUMENA eta IRAKURMENA

Adinerako egokiak diren ahozko eta idatzizko testuak entzutea eta irakurtzea eta ulermen jarduerak egitea.

Ulermen estrategiak lantzea: irakurri baino lehen, bitartean eta ondoren.

• AHOZKO ELKARREKINTZA

Bere bizipen, gertaerei eta haien intereseko gaien (eskola, oporrak...) buruzko elkarrizketak jarraitzea.

- Literatur testuen inguruan norberaren bizipenak, gertakariak... kontatzea.

• MINTZAMENA eta IDAZMENA

- Eskolako errutinarako beharrezkoak diren hizkuntza funtzioak lantzea: behar duena eskatu, iritzia eman, dakiena adierazi...

- Askotariko ahozko eta idatzizko testuak ekoizteko jarduerak proposatzea.

- Testu genero bakoitzak dituen ezaugarriak lantzea.

- Testuak ekoizteko behar diren baliabide linguistikoak lantzea: oinarritzko hiztegia eta gaiaren ingurukoa, egitura linguistiko sinpleak, oinarritzko testu-antolatzaileak testu-inguruan lantzea.

- Kontrol zerrendak, auto eta ko-ebaluaziorako tresnak erabiltzea.

- Olerkiak, abestiak eta narrazio laburrak dramatizatzea edota errezitatzea...

Ahozko eta idatzizko testu generoak: eguneroko

bizitzako bizipenen eta gertaeren kontakizunak, pertsonen, azalpen sinpleak, arauak, objektuen eta lekuen deskribapenak, ipuinak, albiste sinpleak, txisteak, oharak, gonbidapenak, errezetak, olerkiak, abestiak ...

LH3 EUSKERA ETAGAZTELANIA

GALDEREN POLTSATXOA

- Etxealdian egon diren denboraren inguruko galderak egingo dituzte ikasleek ikaskideek erantzuteko. Galdera guzti horiekin poltsatxo bat egitea da proposamena.
- Ikasle bakoitzak tokatzen zaion galderari erantzungo dio. [Galderen poltsatxo](#)

ASMATZERA GOAZI!

- Ikasle bakoitzak lau jolas/jostailuren marrazkiak/argazkiak aukeratu eta aurkeztuko ditu.
- Gelakideek asmatu behar dute zein izan den jostailurik gogokoena eta zergatik.
- Proposamen hau asmakizunen jolas bat baino gehiago da, etxean pasatu dituzten momentu dibertigarriak partekatzeko aukera emango die eta. [Asmatzera!](#)

ETXEAN ALDAKETAK

- Etxealdian denok egon ginen etxean eta denok elkarrekin. Zer moduz? Nola moldatu zineten? Zer aldatu zenuten tokiz? Logelan, egongelan, sukaldean...aldaketarik egin zenuten?
- Galdera horiei erantzun eta aurkezpena egingo duzue kideen aurrean. Gidoi hau baliatuta:
 1. Zein espazio aldatu duzue/zenuten?
 2. Nola zegoen lehen? Nola dago orain?
 3. Zertarako erabili zenuten? Zer kendu, aldatu, jarri... zenuten bertan?
 4. Bi marrazki egin: espazioaren marrazki bat lehen zegoen moduan eta aldaketarekin.

ZURE FAMILIAREN ZUHAITZ GENEALOGIKOA MUNDURA ZABALDU

Ikasle bakoitzak bere familiaren zuhaitz genealogikoa egingo du. Ikasleek etxean dituzten argazkiak erabiliko dituzte eta dokumentu grafiko bat egingo dute familiaren historia eta istorioak kontatzeko. Etxean edo eskolan egin daiteke. [Familiaren zuhaitz-genealogikoa](#).

GURE GERTUKO HEROI BERRIAK

Ikasleek norberaren heroia aukeratu eta deskribatu ondoren, heroia istorioa kontatuko dute. Ikasleek aukeratutako heroien istorioekin liburu ilustratu bat sortuko da. Liburu ibiltaria izango da eta partekatutako istorio kuttunekin familian gozatzeko aukera izango dute. [Gure heroiak](#).

ATZERRIKO HIZKUNTZA

EBALUAZIO ADIERAZLEAK

- Gai da irakaslearen laguntzarekin, zenbait hitz edo oso esaldi sinple esateko, eta soinuak, intonazioa eta ahoskera imitatzeke.
- Ahozko azalpen eta jarraibide sinpleen zentzu orokorra ulertzeko gai da.
- Bere intereseko ahozko kontakizunak arretaz jarraitzen ditu eta oinarrizko hiztegi eta esapideak identifikatzen ditu.
- Gai da laguntza handiz elkar eragiteko, hitzezko edo hitzik gabeko erantzunen bitartez (buruz ikasitako formulak baliatuz, nagusiki)
- Ezagutzen dituen edo gogoko dituen gaien inguruko ondo egituratutako aurkezpen xumeen ideia nagusiak bereganatzen ditu
- Ereduak erabiliz eta laguntza handiz, gelan landutako testu sinpleak birsortu eta ekoizten ditu.
- Tesu horiek txukun aurkezteko interesa azaltzen du.
- Landutako hizkuntza-ezagupenak erabiltzen saiatzen da.
- Atzerriko hizkuntza erabiltzeko interesa adierazten du.

EDUKIAK

MINTZAMENA

- Bizipenen kontakizunak, errezeta, postalak, egitarauak...-modu oso gidatuan sortzea.
- Soinuak, intonazioa eta ahoskera imitatzea.

ENTZUMENA

- Ahozko azalpen eta jarraibide sinpleen zentzu orokorra ulertzea.
- Bere intereseko ahozko kontakizunak arretaz jarraitzea: abestiak, errimak, ipuinak, istorio laburrak,.

AHOZKO ELKARREKINTZA

- Informazio pertsonalaren trukean, errutinetan, gelako dinamikan edota simulazioetan... laguntza handiz elkar eragitea, hitzezko edo hitzik gabeko erantzunen bitartez (buruz ikasitako formulak baliatuz, nagusiki): greetings, weather, days of the week, months,...

IRAKURMENA

- Ezagutzen dituen edo gogoko dituen gaien inguruko ondo egituratutako aurkezpen xumeen ideia nagusiak bereganatzen ditu, baldin eta irudiak baditu eta astiro eta argi hitzegiten bada.

IDAZMENA

- Ereduak erabiliz eta laguntza handiz, testu laburrak eta oso sinpleak birsortzea eta ekoiztea: norberaren aurkezpena, postalak,...
- Testu idatziak txukun aurkezteko ardura hartzea.

**Hizkuntza-ezagupenei dagokienez, hauek landu ahal dira: daily routines, clothes, forest animals, telling time, places around town, countryside, cardinal numbers 1-1000, ordinal numbers 1-12, parties, adjectives about personality, animals body parts.

ENGLISH PRIMARY

YEAR 3

One small world

In this activity, students will listen to a song about our world and then, write a postcard about where they live and what they see from their windows. They can also record a video telling their classmates what they have written.

Resources: [Worksheet](#)

My favourite pet

A poster presentation of a favourite pet or a description on how to take care of a pet.

Resources: [A poster presentation or a description of my pet](#), [Answer key](#)

Draw your own terrible creature

In this lesson, students will watch a video of Julia Donaldson's *The Gruffalo story* and will work on the story characters' description. Finally, they will draw and write about their own terrible creature to show it on their blog.

Resources: [Video](#), [Worksheets](#), [Terrible creature template](#)

Making a clock

In this unit students do some activities to learn how to tell the time to finally make a clock and write a text about the Resources and design of their clocks. There is also a song related to time.

Resources: [Interactive clock](#), [Hip, hop around the clock](#), [Game](#), [Making a clock images and text examples](#), [How to make a clock](#)

eTwinning: Let us Green Again

Why not start an eTwinning project? eTwinning offers a platform for teachers to communicate, collaborate, develop projects, share and, in short, feel and be part of the most exciting learning community in Europe. If you register in this European Council platform, you can start networking with other European colleagues and have your students collaborating on innovative projects with students from all over Europe.

Resources: www.etwinning.net, www.etwinning.es, [kit](#)

NATURAREN ZIENTZIAK

EBALUAZIO ADIERAZLEAK

- Problema ebazteko hipotesi egiaztatgarriak egiten ditu.
- Eragindako egoera edo fenomeno aztertzeko jardueraren bat proposatzen du.
- Lan zientifikoa ordenaz eta argi antolatzen du.
- Laborategiko oinarriko materiala ezagutzen ditu.
- Esperimentuetako datuak bildu, antolatu eta interpretatzen ditu, zenbait baliabide erabiliz: taulak, grafikoak, kontzeptuzko mapak ...
- Azalpen arrazoituak ematen ditu, hipotesia egiaztatzen dela edo ez dela egiaztatzen adierazteko.
- Ikerketaren emaitzak jakinarazten ditu eta txostenak egiten ditu, zenbait bitarteko eta euskarri analogiko eta/edo digital erabiliz
- Giza gorputzaren atalak behatu, adierazi eta deskribatu egiten ditu.
- Euskarriren batean azaltzen ditu zentzumenen organoak eta funtzioak eta higiene ohitura egokiak.
- Ahoz adierazten ditu arnasketa- eta digestio-prozesuak.
- Badaki zein diren norberaren higienarako, zaintzarako eta atsedenerako oinarriko ohiturak eta jarraitu egiten ditu.
- Badaki zein diren dieta orekatuarekin eta gaixotasunen prebentzioarekin lotutako ohiturak.
- Izaki bizidunak eta materia bizigabea bereizten ditu eta sailkatzea irizpide zientifikoei jarraitzen ditu.
- Izaki bizidunekin lotutako esperientziaren edo prozesuren bat ahoz adierazten du eta zenbait euskarri erabiltzen ditu, digitalak barne.
- Badaki zer propietate dituzten maiz erabiltzen ditugun materialek eta substantziek eta bere portaera argiaren, soinuaren eta beroaren aurrean.
- Energia-iturri ohikoenak bereizten ditu (haizea, Eguzkia, erregaiak...) eta badaki nola erabiltzen den energia gure bizitzan.
- Makina soil bat osatzen duten elementuak maneiatzen ditu.
- Makina soil bat muntatu eta desmuntatzen du.

EDUKIAK

Naturaren-zientzien proiektua edo erronkak egitea, modu gidatuan, metodologia zientifikoa eta haren oinarriko ezaugarriak fenomeno naturalak eta benetako egoerak aztertzeko, identifikatzeko eta ebazteko aplikatzeko irizpideak eta jarraibideak erabiltzen hastean.

Proiektua edo erronkak gai horietako bati buruzkoa izango litzateke.

GIZAKIA ETA OSASUNA

- Nutrizioarekin lotutako bizi-prozesuak: digestioa eta arnasketa.
- Zentzumene-organak
- Osasuna eta erabakiak hartzea
- Higiene-ohitura eta atsedene-ohitura egokiak
- Elikadura osasuntsua eta orekatua

IZAKI BIZIDUNAK

- Izaki bizidunak eta materia bizigabea.
- Euskal Herriko ekosistemaren batean lana
- Izaki bizidunen inguruko esperientzia edota prozesu beten txosten xeheak egitea eta ahoz aurkeztea (euskarri analogiko eta digitalean).

MATERIA ETA ENERGIA

- Energia. Energia-iturria. Erabilera eta kontsumoa Euskal Herrian.
- Erabilera arrunteko materialen propietateak eta argiaren, soinuaren eta beroaren aurrean duten portaera .

TEKNOLOGIA, OBJETUAK ETA MAKINAK

- Objektu eta makina soilak. Aplikazioa, funtzionamendua eta erabilera egokiak.
- Elementu soilak dituzten makinak muntatu eta desmuntatzea.

LH 3 NATURAREN ZIENTZIAK

Etapako helburuak eta arloa ebaluatzeko irizpideak garatzeko funtsezko jarduerak

IKERKETA DOKUMENTALA

- **Jarduera / Ataza:** Ikerketa txikia egingo dute ikasleek. Prozesua:
 - 1-Galdera edo ikerketaren gaia erabaki eta aurrezagutzak adierazi.
 - 2-Iturri fidagarriak eta euskarriak (antolatzaile grafikoak, gidoiak eta txantiloak) erabaki.
 - 3-Ikerketa egin (informazioa hautatu, sailkatu eta antolatu).
 - 4-Sintesia, azalpena eta ondorioak atera.
 - 5-Komunikazioa (analogikoa eta digitala: poster, txostena...) Adibidea: [Érase una vez un estuche](#)
- **Prozesuzko jarduerak eta produktuak:** Kontzeptuzko mapa, arnas aparatuen maketa, gizakiaren bizi-funtzioen antolatzaile grafikoak, animalien sailkapen-grafikoak, Natura zaintzeko dekalogoak, hostoen bilduma, objektu bat egiteko prozesuaren murala, ...
- **Gaien adibideak:** digestioa eta arnasketa aparatuen maketa, objektu bat egiteko prozesuaren murala, zentrumen organuak, elikadura osasuntsua, higiegi ohiturak, Euskal Herriko ekosistema, makinen aplikazioa bizitzan ...

IKERKETA ESPERIMENTALA

- **Jarduera/Ataza:** Ikerketa esperimental txikia egingo dute ikasleek. Prozesua:
 - 1-Gairi buruz aurrezagutzak adierazi.
 - 2-Planifikazioa: hipotesiak egin eta esperimentuaren aldagaiak, urratsak eta datuak erregistratzeko moduak erabaki.
 - 3-Esperimentua egin eta datuak jaso.
 - 4-Analisia egin eta emaitzak aztertu.
 - 5-Hipotesia egiaztatu, konklusioak atera eta komunikatu (analogikoa eta digitala: poster, txostena...). Adibidea: [Guztiok aire kopuru bera dugu birrikietan?](#), [Legamina izaki biziduna da?](#), [Esku nazkagarriak](#),...
- **Prozesuzko jarduerak eta produktuak:** behaketa gidatuaren kontrol orria, ondorioen azalpena egiteko [poster zientifikoa](#), esperimentazio-prozesuaren panela, datuen grafikoak eta taulak, [esperimentuen dossierra](#), prozesuaren bideo grabaketa, [Ur-iragazkia](#),...
- **Gaien adibideak:** izaki bizidunak eta bizigabeak, materialen propietateak eta argiaren, [soinuaren](#) eta beroaren aurrean duten portaera, ekosistemaren inguruko lana ...

PROZESU TEKNOLOGIKOA

- **Jarduera / Ataza:** makina egingo dute ikasleek. Prozesua:
 - 1-Egoera-arazoa edo erronka erabaki eta aurrezagutzak adierazi.
 - 2-Eraikitze prozesua jarraituz makina egin.
 - 3-Komunikazioa (analogikoa eta digitala: poster, txostena...)
- **Prozesuzko jarduerak eta produktuak:** diseinuaren zirriborroa, planoak, prozesuaren dossierra, maketa, makina, ...
- **Gaien adibideak:** makina soil bat montatu eta desmontatu,...

GIZARTE ZIENTZIAK

EBALUAZIO ADIERAZLEAK

KOMUNAK:

- Irakaslearen laguntzarekin, informazioaren eta komunikazioaren teknologiak erabiltzen ditu arloari buruzko oinarrizko informazioa bilatu, aztertu eta antolatzeko.
- Ikasteko prozesuan dituen zailtasunak detektatzen ditu, eta gai da laguntza eskatzeko.

GURE MUNDUA ETA HAREN KONTSERBAZIOA:

- Lur-globo, mapa eta planisferioetan puntu kardinalak, poloak, ekuatorea, iparhemisferioa eta hego-hemisferioa identifikatzea.
- Iparrorratza tresna gisa identifikatzen ditu.
- Paisaia definitzen du, ikasleak bizi diren herriko eta eskualdeko paisaiak identifikatzen ditu.
- Lurraren geruza nagusiak identifikatu eta izendatzen ditu.
- Eguraldiaren eta klimaren arteko desberdintasuna zein den azaltzen du, eta haren herriko klimaren ezaugarriak identifikatzen ditu.

GIZARTEAN BIZITZEA:

- Auzoko eta herriko elementuak zaintzeko (denek erabiltzeko eta gozatzeko aukera izan dezaten) jarrerak agertzen ditu.
- Bere herriko eta auzoko biztanleen ezaugarriak ezagutzen ditu.
- Herriko sektore-ekonomikoak ezagutzen ditu.

DENBORAREN ARRASTOA:

- Euskal Herriko iraganeko gertaera historiko garrantzitsuak badakizki,
- Ezagutu denbora-lerro bat egiteko modua.

EDUKIAK

KOMUNAK:

- Informazioa ulertzea (konparatzea, sailkatzea, sekuentziatzea, aztertea eta laburbiltzea).
- Pentsamendu-trebetasunak garatzea.

GURE MUNDUA ETA HAREN KONTSERBAZIOA:

- Iparrorratza.
- Planoak, lur-globoak eta mapak.
- Eguraldia.
- Lurraren geruzak.
- Herriko klima.
- Paisaia motak.

GIZARTEAN BIZITZEA:

- Pertsonen herritartasuna baliatzean dituzten eskubide eta betebeharreko sentsibiltatea eta errespetua.
- Auzoko eta herriko biztanleria.
- Herriko produkzio-jarduerak.

DENBORAREN ARRASTOA:

- Euskal Herriko iraganeko gertaera historiko garrantzitsuak.
- Denboraren lerroa.

TREBEZIAK ETA TALDE-LANA

- Eduki baten inguruan informazioa bilatu eta hauen aurkezpen txiki bat egin power point edo Genially erabiliz.
- Eduki baten inguruan irakurgai digitala landu eta gero Google inprimaki bat erantzun.

GURE MUNDUA ETA HAREN KONTSERBAZIOA

- Iparrorratza zer den eta nola funtzionatzen duen ikasteko, smart-phone bat erabil dezakezu. <https://www.xatakandroid.com/aplicaciones-android/como-usar-movil-como-brujula>
- Eskolako espazioetan orientazio-ibilbide bat egitea, aurrez markatutako plano eta iparrorratz batekin.
- Eguraldia lantzeko tresna interaktiboa. [Eguraldia \(quizlet\)](#)
- Aztertu hiztegi hau: [Eguraldia \(hiztegia\)](#). [Eguraldia \(erantzuna aukeratu\)](#)
- [Eguraldia \(aste beteko datuak\)](#) Ebaluatzeko ere balio du. [Tenperatura neurtzeko tresnak](#)
- Lurra irudikatzen moduak ikusi: lur-globo eta mapa power pointa. ikusi: <https://pt.slideshare.net/elkarikasten3/lurra-irudikatzea-52863330>
- Lurraren geruzak ikasteko jardura interaktiboa. https://es.educaplay.com/recursos-educativos/1005661-lurraren_geruzak.html
- Lurraren geruzak ezagutzeko, egin hurrengo aurkezpeneko datuen laburpena. <https://www.slideshare.net/MargaGutierrez/12-lurraren-geruzak>
- Zuen herriko klima edo eguraldia behatzea, egiten duzun eguraldiaren eguneroko erregimena eraman ez (euria, eguzkia, lainoa, tenperatura, etab.)
- Paisaia motei buruzko aurkezpen honetako informazioa laburbiltzen du. <https://es.slideshare.net/APGARCIA85/paisaia-motak-58208123>

GIZARTEAN BIZITZEA

- Beraien herria edo hirian sektore banaketa ikusi eta beraien familietan non egiten dute lana aztertu eta sektoreetan sailkatu.
- Euskadiko biztanleriaren informazioa aztertu helbide honetan, eta begiratu zuen herriaren datuak. https://eu.eustat.eus/estadisticas/tema_159/opt_0/ti_Biztanleria/temas.html
- Aztertu aurkezpen hau, eta atera ideia nagusiak. <https://pt.slideshare.net/3ziklozuza/europako-eta-espainiako-biztanleria-eta-ekonomia-e-ndika-m-antonio-aitor-aida-mariana>
- Ikasleek herritarrei buruz eta soziedadean guztiok ditugun eskubide eta betebeharrei buruz eztabaidatzen dute. Errubrika debaterako: <http://okurriturez.blogspot.com/2012/>

DENBORAREN ARRASTOA

- Denbora lerroa nola egiten den ikasi eta egin: [Timeline](#), [TimeRime](#), [Tiki Toki](#), [Visme](#), [Sutori](#).
- Iraganeko gertaera historiko garrantzitsuen argazkiak aukeratu eta azalpen txikia egin.
- Egin ezazu ardatz kronologiko bat Euskal Herrian historian zehar gertatutako gertakari historikoei.

GORPUTZ HEZKUNTZA

EBALUAZIO ADIERAZLEAK

EDUKIAK

- Leku-aldaketa eta jauziak burutzean espazioan ongi orientatzen da.
- Bere gorputza oreka egoera estatiko eta dinamikoetara egokitzen du.
- Jolasten ari denean tresnak era koordinatuan erabiltzen ditu.
- Harrera eta geldiketak hobetzen ditu.
- Luzera zein zeharkako ardatzetan (aurrera eta atzera) birak segurtasunez burutzen ditu.
- Ikaskideekin harreman egokiak ditu jolasten ari denean.
- Talde-jolasetan espazioa behar bezala erabiltzen du.
- Jolasak, arauak eta ikaskideak errespetatzen ditu.
- Jolas eta egoera berriak aurkezterakoan ulertzen ditu.
- Jolasetan gogoz eta interes handiz parte hartzen du.

- Mugimenduak eta jauziak era koordinatu eta orekatuan. Tresna higikorrek jaurtiketak, paseak eta harrerak
- kontrola galdu gabe. Luzera eta zeharkako ardatzetan birak.
- Era koordinatuan eta lankidetzako jarduerak, helburua lortzeko eta taldeko jolasetan aurkarien kontra egiteko. Jolasetan eta kirol-jardueretan arauen eta gainerako
- ikaskideen onarpena. Erritmo-egitura errazak gorputzarekin edo
- instrumentuekin. Gorputz adierazpeneko baliabideen erabilpena, taldean
- inplikatur, ideiak eta sentimenduak komunikatzeko. Jokabide aktiboa, gorputza zainduz eta jarrera- nahiz elikadura-ohiturak mantenduz.
-

LH 3_ GORPUTZ HEZKUNTZA

MEMORY

- Elikagai osasuntsuen inguruko lasterketa/memory jolasa. [Adibidea Azalpena/Materiala](#)
- Ebaluaziorako bideo bat grabatuko dute jarduera egiten duten bitartean eta ondoren, zelan sentitu diren, gustatu zaien, nekatu egin diren...azaltzen ere.

ERRONKA: komuneko papera

- Ikasleei flexioak era ezberdin batean egiteko komuneko paperarekin [bideoa bidali](#).
- Helburua, ahalik eta roilo gehien hormaren kontra orekan kokatzea da. [Adibidea](#)
- Autoebaluaziorako [galdetegia](#) bete beharko dute ikasleek.

TXALO PIRAMIDEA

- Irakasleak txalo piramidearen adibidea helaraziko die ikasleei. Binaka egin behar da jolas hau. Bata bestearen aurrean txalo piramidea egin: txalo bat eta mugitu, bi txalo eta mugitu, hiru txalo eta mugitu... 5era heldu eta atzera. Gero 7ra heldu eta gero berriro 5era. [Adibidea hemen](#).
- Bideo bat grabatu eta irakasleari bidali. ([Irakaslearentzako ebaluazio tresna](#))

PUXIKA JOLASA

- Gorputzeko atal ezberdinekin eginiko sekuentzia jarraituz, puxika jolasa egin. Ezkerra eta eskina desberdintzeko eta oreka lantzeko. [Jolasaren azalpena](#).
- [Irakaslearentzako ebaluazio tresna](#).

IMITAZIOA ETA SORMENA

- **Ispiluaren jolasa:** beste pertsona bat behar izango dute imitazio jolas hau egiteko. [Azalpena](#).
- Autoebaluaziorako [galdetegia](#) bete beharko dute.

ERREPIKAPEN JOLASA

- Beste pertsona bat behar izango dute errepikapen jarduera hau egiteko. ([Azalpena](#))
- [Adibidea](#). [Materiala](#).
- Ebaluaziorako bideo bat grabatuko dute jarduera egiten duten bitartean eta bideo berean azalduko dute haien inpresioak, zelan sentitu diren, gustatu zaien...

ARTE HEZKUNTZA: MUSIKA-ARTE/PLASTIKO ETA BISUALA

EBALUAZIO ADIERAZLEAK

- Gogoz parte hartzen du eta gozatu egiten du ikasgelako musika-jarduerak egitean, marrazkiak eta plastikako lanak egitean
- Bere sentimenduak azaltzen ditu, eta hainbat ideia adierazten ditu museoetan entzunaldietan proposatutako obren eta inguruan dituen produktu musikal eta bisual gainean.
- Hitzez eta idatziz adierazten ditu arte-sorkari bisual eta musikalek sorrarazten dizkioten emozioak eta sentimenduak
- Oinarrizko teknika, baliabide eta konbentzioak lantzen ditu, eta bere ekoizpenetan erabiltzen.
- Oinarrizko musika-trebetasunak baliatzen ditu musika interpretatzeko eta sortzeko.
- Musika-mintzairako elementu oinarrizkoak baliatzen ditu adierazpenerako eta sorkuntzarako.
- Obren teknika xumeak, koloreak eta formak bereizten ditu
- Errespetatu egiten ditu lanak eta bere zein besteren ekarpenak
- Eguneroko bizitzan erabiltzen diren soinuak, irudiak, musikak eta bestelako elementuak identifikatzen ditu.
- Harrera ona egiten die beste kultura batzuetako ekoizpen bisual eta musikalei.

EDUKIAK

MUSIKA

- Abesti errazak ahots batez abestea eta buruz ikastea.
- Abestean ohitura egokiak barneratzea.
- Entonazioa lantzea.
Pentagrama eta sol klabea. Noten kokapena
- pentagraman
- Erritmo sinpleak irakurtzea eta interpretatzea
- Zarata egoerak eta kutsadura akustikoko egoerak identifikatzea
- Isiltasunaren garrantzia baloratzea
- Ikaskideen ekoizpenak baloratzea eta errespetatzea
- Perkusio instrumentuak egoki erabiltzea
- Euskal kultura-ondareko abestien eta dantzen erreperitorio bat ikastea.
- Soinu eta irudiak erlazionatzea.

ARTE PLASTIKO ETA BISUALA

- Marrazkiak, margolanak, collageak, bolumenak eta antzeko lanak egitea
- Egiturak eta tonalitateak sailkatzea eta forma natural eta artifizialak balioestea.
- Inguruko elementuak behatzea, objektuen proportzioak, harremanak, kokapenegoerak.
- Objektuek eta pertsonen espazioarekiko dituzten distantziak, ibilbideak eta egoerak arakatzea.

LH 3 ARTE HEZKUNTZA

TXIRULA JOTZEN IKASTEN

Txirularen posizioak: <http://www.aprendomusica.com/swf/notasFlauta.html>



Praktikatzeko abestiak: <https://anjaritoy.wixsite.com/egapetxirula>

ANIMALIA FANTASTIKOAREN SORKUNTZA

Dagoeneko animalia mordoa ezagutuko dituzu ezta? Zer iruditzen zaizu errealitatean ikusi ezin daitekeen animalia fantastiko bat sortzea? Horretarako, zuk nahi dituzun animaliak aukeratu eta hauen atalak konbinatu beharko dituzu. Ariketa nahi duzuen bezala egin dezakezu, marrartzuz, aldizkarietan edo interneten aurkitzen dituzun irudiak moztu eta erantsiz collagearen teknikaren bitartez...

Animalia sortzen duzunean, emaitza bere izena eta azaldu ezazu zein animalia ezberdinen atalez osatu duzun, non bizi den eta zertaz elikatzen den!

Hona hemen adibide batzuk nahiz izan ezker:

<https://en.calameo.com/read/001004115a45e80a9877c>

ETXEAN KONFINAMENDUAN EGON GARENEAN ENTZUN DITUGUN SOINUAK:

- Ohikoa ez den zein soinu entzun duzu denboraldi honetan?
- Eta, zein momentutan edo zein lekutan entzun duzu isiltasuna edo zarata gutxiago?
- Etxean, leihotik, blakoian, ... abestiren bat gustatu zaizu bereziki? Eta zein musika aukeratu duzu bakarrik egon zarenean entzuteko?

Orain aukeratu nola jaso nahi dituzun erantzunak (edo modu berri bat asmatu) : Fitxa honetan idatzi edo irudikatu, edo marrazkiak egin, edo collagea, edo plastilinaz adierazi, edo arte lan bat egin, edo grabatu, edo papertxikitxoetan idatzi edo margoztu eta pote batean sartu eta gorde edo zure logelako atean itsatsi, edo zuk nahi duzun moduan egin.

ABESTIAIKASIA ETA EGOKI ABESTU. ANAI XANTI

Abesten duzun bitartean, ahalegindu hatzamarrekin partituraren gainean jarraitzen.

Anai Xanti

Txirula
♩=110



aurkitu ditzakezu?



Partitura honetan agerten diren zati berdinak

Margoztu berdinak diren zatiak kolore batekin. Adibidez: Birritan agertzen da, jarraian; biak kolore batez margoztu. Zenbat kolore erabili dituzu? : oso ondo, 4 dira.

KONPETENTZIA DIGITALA

LH3

EBALUAZIO ADIERAZLEAK

- Emandako jarraibideen arabera bilaketak (informazioa, irudiak) egiten ditu.
- Lortutako informazioa gordetzen du ordenagailuan edo hodeian.
- Emandako ereduari jarraituz dokumentu-aurkezpen lana burutzen du.
- Ordenagailuaren erabilera zuzena egiteaz jabetzen da; baita ere, ergonomia aldetik eta eskeintzen dion denboraz.

EDUKIAK

- Bilaketak egitea zehaztutako webgune zerrenda batetik.
- Informazioa eskuragarri jartzea (ordenagailuan, hodeian)
- Dokumentuak eta aurkezpenak sortzea eta editatzea.
- Baliabide digitalen erabilera zuzena egitea.

IKASKUNTZAREN AUTOERREGULAZIOA

EBALUAZIO ADIERAZLEAK

- Bere lana planifikatzeko gai da.
- Bere lanak hobetzeko estrategiak erabiltzen ditu.
- Agindutako zereginetan arduraz jokatzen du.
- Laguntzarako iturri ezberdinak erabiltzen hasi da (galdetzea, liburuetara jotzea, interneta...)
- Ikasteko eta sakontzeko estrategia batzuk erabiltzen hasi da (berrirakurtzea eta aztertzea, sakontasun gehiagoz behatzea ...)

EDUKIAK

- Zereginen planifikazioa (espazioen prestaketa, materialen prestaketa, denboraren kudeaketa ...)
- Lanaren garapena
- Iturri ezberdinen kontsulta.
- Ikasteko estrategiak
- Metakognizioa.
- Kolaborazioa eta kooperazioa.

MATEMATIKA

EBALUAZIO ADIERAZLEAK

I. Eduki komunak

A. Arlo eta ikasgai guztietan komunak diren oinarrizko zehar-konpetentziekin lotutako edukiak: talde-lanean eragikor eta sortzailea kudeatzen du informazioa eta emaitzak komunikatzen ditu.

B. *Ikasgai honetako multzo guztien eduki komunak:* problemak ebazten ditu hainbat estrategiekin eta laguntzaile matematikoez baliaturik.

ZENBAKIKUNTZA:

- Zenbakiak irakurri eta erabiltzen ditu milioi bat arte
- Zenbakien arteko oinarrizko erlazioak ezagutzen ditu eta erabiltzen ditu eragiketarak burutzeko.

ERAGIKETAK:

- Hamarrekoen deskonposaketa egin eta ulertzen du.
- Hamarrekoen, ehuenkoen eta miklakoen arteko eragiketa oinarrizkoak egiten ditu.

BURUKETAK: Eragiketarak erabiltzen ditu testuinguruetan.

MAGNITUDEAK: Magnitudeak: pisua, distantzia, dirua, edukia... erabiltzen ditu testuinguruetan.

BURUZKO KALKULUA:

- Oinarrizko buruzko kalkuluak egiteko gai da.
- Batuketa baten batugaien deskonposaketa egiten moldatzen da.

GEOMETRIA:

- Poligono errazak ezagutu eta deskribatzen ditu.
- Gorputz geometriko errazak ezagutu eta deskribatzen ditu.

EDUKIAK

I. Eduki komunak

A. Arlo eta ikasgai guztietan komunak diren oinarrizko zehar-konpetentziekin lotutako edukiak: informazioen kudeaketa, plangintzak egin eta bete, lanen emaitzak komunikatzea, talde-lanean aritzea motibazioaz eta gatazkak kudeatzea autoerregulazioatik.

B. *Ikasgai honetako multzo guztien eduki komunak:* problemen ebazpena, modelizazioa eta laguntzaile matematikoen erabilera.

ZENBAKIKUNTZA:

- Milioia arte, sei zifra.
- Izena, zifren leku balioa, aurrekoa eta ondorengoa, handiagoa, txikiagoa

ERAGIKETAK:

- Biderketa 3 zifrako zenbakiak 1 eta 2 zifragatik.
- Zatiketarak zenbaki bategatik
- Zatikiak irakurri eta irudikatu.

BURUKETAK:

- Kenketa eta batuketa konbinatuta dituzten buruketarak.
- Biderketa erabilia buruketarak ebatzi
- Zatiketa erabilia buruketarak ebatzi.

MAGNITUDEAK: kg, g, km, m, kl, l

BURUZKO KALKULUA: $+/-/x/$: (gehienez, lau zifra erabilia).

GEOMETRIA:

- Gorputz geometrikoak zer diren eta oinarrizkoak bereiztea.
- Perimetroa, azalera / poliedroak / grafikoak interpretatzea.
- Espazioan kokapena, orientazioa eta errepresentazioa

Matematika - LH - 4. maila-rako jarduerak

Ebidentziak: ebaluazio-prozedurak eta -tresnak

[Matematika koronabirus garaietan](https://labur.eus/matecovid19): <https://labur.eus/matecovid19>

[Etxean ikasten Matematika](https://labur.eus/etikmate): <https://labur.eus/etikmate>

[Etxetik irakatsi](https://labur.eus/etxetikirakatsi): <https://labur.eus/etxetikirakatsi>

[Flipped classroom](https://labur.eus/flipped): <https://labur.eus/flipped>

Eduki komunak

A. Arlo guztietan komunak diren oinarrizko zehar-kompetentziekin lotutako edukiak: [Arazo-egoerak eta](#)

[Unitate didaktikoak](https://labur.eus/AE-UD) <https://labur.eus/AE-UD>

B. Matematikarako eduki komunak: [Problemak](https://labur.eus/probh) <https://labur.eus/probh>

ZENBAKIKUNTZA:

- Zenbakiak irakurri eta erabiltzeko jarduerak
- [ThatQuiz Osoak Berreketak](https://labur.eus/tqosbe) <https://labur.eus/tqosbe>
- [ThatQuiz Zatikiak konparatu](https://labur.eus/tqzako): <https://labur.eus/tqzako>

PROBLEMAK:

- [PhET Zatiketak: sarrera](https://labur.eus/phzasa): <https://labur.eus/phzasa>
- [PhET Zatikiak: baliokideak](https://labur.eus/phzaba): <https://labur.eus/phzaba>

MAGNITUDEAK:

- [ThatQuiz Kontzeptuak Denbora](https://labur.eus/thkode): <https://labur.eus/thkode>
- [ThatQuiz Kontzeptuak Dirua](https://labur.eus/tqkodi): <https://labur.eus/tqkodi>
- [ThatQuiz Kontzeptuak Neurria](https://labur.eus/tqkone): <https://labur.eus/tqkone>

GEOMETRIA:

- [ThatQuiz Geometria Angeluak](https://labur.eus/tqpoan): <https://labur.eus/tqpoan>
- [ThatQuiz Geometria Triangeluak](https://labur.eus/tqgetr): <https://labur.eus/tqgetr>
- [ThatQuiz Geometria Geometria](https://labur.eus/tqgege): <https://labur.eus/tqgege>

PROBABILITATEA: KONTZEPTUA ETA BATEZ BESTEKOA.

- [ThatQuiz Kontzeptuak Grafikoak](https://labur.eus/tqkogr): <https://labur.eus/tqkogr>
- [ThatQuiz Zatikiak Batezbestekoa](https://labur.eus/tqzaba): <https://labur.eus/tqzaba>

Adibideak

A. Ikasgaiguztietan komunak diren oinarrizko zehar-kompetentziekin lotutako edukiak: (AA-EE):

[Euroarekin jolasean](#), [Jugando con el euro](#); UDD: [GPS](#), [¡Todo se mueve!](#), [ARTEmática MENTE](#)

B. Matematikarako eduki komunak: [Problemak](https://labur.eus/prolh) <https://labur.eus/prolh>

ZENBAKIKUNTZA:

- <https://www.thatquiz.org/eu-2/?-jggp-l4-mpnv600-p0>
- <https://www.thatquiz.org/eu-B/?-jt-lc-mpnv600-p0>

PROBLEMAK:

- [PhET Zatiketak: sarrera](https://labur.eus/phzasa): <https://labur.eus/phzasa>
- [PhET Zatikiak: baliokideak](https://labur.eus/phzaba): <https://labur.eus/phzaba>

MAGNITUDEAK:

- <https://www.thatquiz.org/eu-g/?-j4-l3-mpnv600-p0>
- <https://www.thatquiz.org/eu-a/?-j28-l8-mpnv600-p0>
- <https://www.thatquiz.org/eu-9/?-j1-l2-mpnv600-p0>
- <https://www.thatquiz.org/eu-c/?-j81-l4-mpnv600-p0>

GEOMETRIA:

- <https://www.thatquiz.org/eu-C/?-j9-l2-mpnv600-p0>
- <https://www.thatquiz.org/eu-A/?-j13-l8-mpnv600-nk-p0>
- <https://www.thatquiz.org/eu-4/?-j20ka-l8-mpnv600-p0>

PROBABILITATEA: KONTZEPTUA ETA BATEZ BESTEKOA.

- <https://www.thatquiz.org/eu-5/?-j5042l-l2-mpnv600-p0>
- <https://www.thatquiz.org/eu-p-z1/?-j4h00-l4-mpnv600-p0>

HIZKUNTZAK (EUSKARA/GAZTELANIA)

EBALUAZIO ADIERAZLEAK

ENTZUMENA ETA IRAKURMENA

Ahozko eta idatzizko testuak ulertzen ditu: testu generoa identifikatu, zentzu orokorra antzeman, ideia nagusiak ondo bereizi, informazio pertinentea hautatu eta oinarritzko hiztegia eta

- esapideak ulertzen ditu.

Proposatutako testuak modu autonomoan irakurtzeko gai da ulermena errazteko estrategiak erabiliz (abiadura egokitu, eta, atzera itzuli, hitz ezezagunak identifikatu...)

- Informazioa jasotzeko eta erregistratzeko

baliabideak modu gidatuan erabiltzen ditu: taulak, grafikoak, buru mapak, eskemak, oharrak...

AHQZKO ELKARREKINTZA

Interakzioetan modu aktibo eta egokian parte hartzen du komunikazio-trukearen oinarritzko arauak errespetatzen ditu: txanda, gaia mantendu, besteak diona entzun eta iritzia

- adierazi.

Euskaraz hitz egitearen aldeko jarrera du

MINTZAMENA eta IDAZMENA

Eguneroko beharrei buruz modu ulergarrian eta koherentean hitz egiten du.

- Ahozko testuak era argian aurkezten ditu eta idatzizko testu txukunak sortzen ditu: testu generoaren egitura kontuan hartuz, ideien ordena eta koherentzia mantenduz, oinarritzko hiztegia eta gaiaren ingurukoa erabiliz, gelan landutako hizkuntza baliabideak (oinarritzko morfosintaxia eta testu antolatzaileak) erabiliz.

Ahozko eta idatzizko testuak sortzen ditu kontrol-zerrenden laguntzaz, kontrol-eta autoebaluzio-estategiak erabiliz.

- Puntua, koma, galdera eta harridura ikurrak erabiltzen ditu.

Ahozko adierazpenean intonazio eta keinuak

- erabiltzen ditu.

Gelan landutako arau ortografikoak erabiltzen ditu gehienetan.

EDUKIAK

ENTZUMENA ETA IRAKURMENA

- Adinari egokitutako ahozko eta idatzizko testua anitzak, eremu askotarikoak, entzutea, irakurtzea eta ulermen galderei erantzutea.
- Ulermen estrategiak lantzea: irakurri baino lehen, bitartean eta ondoren, hitzen esanahia aurkitzeko hipotesiak, hiztegia, hitzen antzekotasuna...

AHQZKO ELKARREKINTZA

Eguneroko gaiei eta ikasleen interesei buruzko solasaldiak egitea: asanblada, gaien inguruko

- proposamenak
- Irakurritako literatur lanen inguruko solasaldiak iritzia eta bizipenak adieraztea.

MINTZAMENA eta IDAZMENA

- Askotariko ahozko eta idatzizko testuak ekoizteko proposamenak egitea.
- Ereduen osaketa eta birmoldaketa.
- Elementu paratestualen lanketa: keinuak eta gorputz-jarrerak.
- Eguneko gertaeren eta iritzien berri ematea
- Testu generoen ezaugarriei erreparatu eta bakoitzak eskatzen duen hiztegia, hizkuntza egiturak eta formulak erabiltzea.
- Olerkiak, abestiak eta antzezlan laburrak proposatzea.

Ahozko eta idatzizko testu generoak: gutunak, jarraibideak (nola egiten den, nola jolasten den...), errezetak, deskribapenak, narrazioak, olerkiak, abestiak, biografiak, albisteak, elkarrizketak, ipuin, kontakizunak : gai kurrikularrei lotutako azalpenak, bizitzako egoeren kontaketa...

LH4 EUSKERA ETAGAZTELANIA

ZER DARAMAZU MALETAN?

Uda honetan ikasleek ez dute oporretan urrutira joateko aukera handirik izan(go) baina irudimenak ez du mugarik eta proiektu honetan hori baliatuko dugu. Beraz, maleta batean sartuko dituzten irudi, marrazki, arropa eta abarren bitartez beren ametssetako oporrak kontatzea proposatuko diegu, baina aurretik ikerketa lan bat egin beharko dute. [Zer daramazumaletan?](#)

SUPERBOTERE BAT EMATEN DIZUT

Imajinatu super heroi bat zarela eta denboran atzera egiteko ahalmena duzula... 2019ko Urtezahar-gauera itzultzea proposatzen dizut. 2020. urte berriaren sarrera ospatzen ari zarete. Zu zara datozen hilabeteetan zer gertatuko den dakien bakarra (koronabirusaren pandemia), baina ezin diozu inori esan. Egin dezakezuna da datozen hilabetei begira aholkuak edo gomendioak ematea, proposamenak egitea, emozioak eta sentimenduak adierazi... koronabirusaren osasun-krisia pasatzen laguntzeko, baina inor izutu gabe (Adibidez, ezin diezu esan aurpegi-maskarak erosi behar dituztela, baina bai norberaren higieena eta zaintza oso garrantzitsua dela).

- Zer esango diezu gurasoei eta anai-arrebei? eta aitona-amonei? lagunei? zure irakasleei?

Gomendioen zerrenda bat egin dezakezu edo gutun bat idatzi. E-maila, ahoz (bideoa, grabazioa...) edo idatziz aurkeztu ahal izango duzu.

MUSEO BIRTUAL BATEKO GIDARIAK IZANGO AL GARA?

Etxealdian, teknologia berriei esker toki berriak deskubritu eta esperientzia zirrargarriak bizi ahal ditugula deskubritu dugu: urruti bizi diren senideekin bideo-deiak egin, urrutiko lurraldeak deskubritu, kirola egiteko online topaketak egin, edo museo birtualak bisitatu. Orain, arte-tertulia bat antolatu nahi duzue. Horretarako, mundu osoan ezaguna den artelan bat edo batzuk aztertu nahi dituzue. Egingo al dugu artelan horietako baten/batzuen bisita birtual bat? [Gure museo birtuala](#)

LIBURU-AURKEZLE NI? ZERGATIK EZ?

Seguruenik, zuetako asko Pako Aristiren “*Ez zait gustatzen irakurtzea eta zer?*” liburuko protagonistarekin identifikatu zarete noizbait; beste batzuk, ordea, ez. Imajinatu azken aldian irakurri eta gustatu edo hunkitu zaituen liburu horren aurkezpena egiteko enkargua eman dizula idazleak. A zer nolako ohorea, ezta? Eta zure gelakideak izango dira zure aurkezpena jasoko dutenak. Horretarako ez dugu betiko txapa emango. Hona hemen bi formatu, gustukoena aukeratzeko. [Ni, liburu aurkezle](#)

ATZERRIKO HIZKUNTZA

EBALUAZIO ADIERAZLEAK

- Gai da modu gidatuan irakasle eta kideekin komunikatzeko ahozko testuak sortzeko, eta landutako ahoskera-, erritmo-eta azentuazio-ereduak erreproduzitzeko.
- Gai da laguntzarekin, entzuketan informazio esplizitua eta inplizitua antzemateko eta proposatutako helburuei erantzuteko beharrezko informazioa hautatzeko.
- Ahoz landutako egitura eta hitzak identifikatzen ditu.
- Laguntzarekin komunikazio-trukeetan modu aktibo eta egokian parte hartzen du, komunikazio araei erreparatuz, eta oinarrizko komunikazio-funtzioak erabiltzen saiatzen da.
- Gai da aurretik landutako testuen informazio esplizitua eta inplizitua antzemateko.
- Testuak ulertzeko eta idazteko estrategiak modu gidatuan erabiltzen hasi da.
- Ereduak erabiliz eta laguntzarekin, testu laburrak idazten ditu.
- Landutako hizkuntza-ezagupenak erabiltzen ditu.
- Atzerriko hizkuntza erabiltzeko interesa adierazten du.

EDUKIAK

MINTZAMENA

- Ahozko testu labur eta errazak modu gidatuan sortzea, irakasle eta kideekin komunikatzeko.
- Landutako ahoskera-, erritmo-eta azentuazio-ereduak erreproduzitzea.

ENTZUMENA

- Laguntzarekin, adinari egokitutako entzuketan informazio esplizitua eta inplizitua antzematea eta proposatutako helburuei erantzuteko beharrezko informazioa hautatzea.

AHOZKO ELKARREKINTZA

- Gelan ohikoak diren komunikazio-trukeetan laguntzarekin
- modu aktibo eta egokian parte hartzea, komunikazio araei erreparatuz: abestea, antzerkia egitea, jolastea,... Oinarrizko komunikazio-funtzioak erabiltzen saiatzen da: eskerrak ematea, laguntza eskatzea,...

IRAKURRIAREN ULERMENA

- Adinari egokitutako eta aurretik landutako testuen informazio esplizitua eta inplizitua antzematea: albistek,
- solasaldiak, argibideak, arauak, folletoak,... eta proposatutako helburuei erantzuteko garrantzizko informazioa hautatzea.
- Testuak ulertzeko estrategiak modu gidatuan erabiltzen hastea.

IDAZMENA

- Ereduak erabiliz, eta laguntzarekin, testu soilak sortzea: norberaren aurkezpena, iragarkiak, folletoak,...
- Testuak idazteko estrategiak modu gidatuan erabiltzen hastea.

•

**Hizkuntza-ezagupenei dagokienez, hauek landu ahal dira: school subjects, adventure sports, telling time, clothes, hobbies, years, daily routines, jobs, space, adjectives to describe people, places around town, shopping, giving directions, adjectives to describe feelings, ordinals numbers 1-31. Verb Tenses (Present)

ENGLISH PRIMARY

YEAR 4

Family and friends

Children will practise language for family and friends with online games, a song and a story. Then, they will make posters and write about their family or friends, and make a blog entry on a real site.

Resources: [Lesson plan](#)

Hobbies

Hobbies benefit children in many ways. It gives a child an opportunity to express themselves, and it allows them to discover themselves and build self-esteem. They are also great educational tools. Ask the students to submit a description of their favourite hobby.

Possible Sentence frames: *"I like ... in my spare time."* *"I really like ..."* *"Another thing I enjoy doing is ..."*

Resources: list of Sport and Outdoor Hobbies and [worksheet "Let me introduce myself"](#)

Present personal hygiene routines

Students will read about how to take care of their hygiene and they will write a short paragraph describing their personal hygiene routines.

Resources: [Project on good personal hygiene](#)

The transport of the future.

Children will practice transportation vocabulary and a descriptive text by inventing and describing a transport for the future. First: they will have to think how their transport is going to be: Is it public or private? Is it for people or for goods? Does it travel on land, on water or in the air? Does it cause noise pollution or air pollution? Number of wheels. Colour, size, name... Then the students draw a picture and write the description of it, and finally they record an audio of their future transport.

Resources: [Template](#)

eTwinning: Stories connect

Why not start an eTwinning project? eTwinning offers a platform for teachers to communicate, collaborate, develop projects, share and, in short, feel and be part of the most exciting learning community in Europe. If you register in this European Council platform, you can start networking with other European colleagues and have your students collaborating on innovative projects with students from all over Europe.

Resources: www.etwinning.net , www.etwinning.es, [kit](#)

NATURAREN ZIENTZIAK

EBALUAZIO ADIERAZLEAK

- Problemak ebazteko hipotesi egiaztagarriak egiten ditu.
- Eragindako egoera edo fenomeno aztertzen du
- Lan zientifikoa ordenaz eta argi antolatzen du.
- Laborategiko oinarritzko materiala ezagutzen ditu.
- Esperimentuetako datuak bildu, antolatu eta interpretatzen ditu, zenbait baliabide erabiliz: taulak, grafikoak, kontzeptuzko mapak ...
- Azalpen arrazoituak ematen ditu, hipotesia egiaztatzen dela edo ez dela egiaztatzen adierazteko. Ikerketaren emaitzak jakinarazten ditu eta txostenak egiten ditu, zenbait bitarteko eta euskarri analogiko eta/edo digital erabiliz
- Gizakiaren bizi-funtzioen ezaugarri nagusiak bereizi eta deskribatzen ditu.
- Grafiko, eredu edo eskemetan gizakiaren bizi-funtzioak egiten parte hartzen duten organo nagusiak bereizi eta kokatzen ditu.
- Animalia ornodunak eta ornogabeak behatzen ditu zuzenean eta zeharka, haien ezaugarriak identifikatu eta sailkatu egiten ditu
- Badaki zer garrantzia duen fotosintesiak Lurrean bizia izateko.
- Inguruneko adibideak erabiliz, zenbait energia mota bereizten ditu.
- Badaki zer propietate dituzten erabilera arrunteko material batzuek eta zer portaera duten elektrizitatearen eta magnetismoaren aurrean.
- Elektrizitateak inguruneko zenbait objektutan eta aparatutan dituen eragin batzuk aztertu, ikusi eta azaltzen ditu.
- Zenbait materialek, eroalek zein isolatzailek, zirkuitu elektriko batean izango duten portaeraren hipotesiak egin eta zirkuitua eraikitzen du.
- Prozesu teknologikoaren urratsak ematen ditu pieza modulatueta eta/edo eragile mekanikoetan (ardatza, gurpila, polea, plano inklinatua, engranajea eta balazta, esaterako) oinarrituta makina bat edo gailu bat eraikitzeko.

EDUKIAK

Naturaren-zientzien proiektua edo erronkak egitea, modu gidatuan, metodologia zientifikoa eta haren oinarritzko ezaugarriak fenomeno naturalak eta benetako egoerak aztertzeko, identifikatzeko eta ebazteko aplikatzeko irizpideak eta jarraibideak erabiltzen hastean.

Proiektua edo erronkak gai horietako bati buruzkoa izango litzateke

GIZAKIA ETA OSASUNA

- Nutrizioa: arnas aparatua, digestio-aparatua, zirkulazio-aparatua eta iraitz-aparatua.

IZAKI BIZIDUNAK

- Animalia ornodunak eta ornogabeak. Hegaztiak, ugaztunak, narrastiak, arrainak, anfibioak, intsektuak.
- Landareak: egitura eta fisiologia. Fotosintesia eta haren garrantzia Lurrean bizia egoteko.

MATERIA ETA ENERGIA

- Energia-iturriak eta lehengaiak: jatorria.
- Elektrizitatea: korrante elektrikoa. Zirkuitu elektrikoa.
- Magnetismoa

TEKNOLOGIA, OBJETUAK ETA MAKINAK

- Material eroaleak eta material isolatzaileak.
- Prozesu teknologikoaren etapak. Irizpideak problema bat ebazteko eginkizuna duten edo horretarako baldintzak betetzen dituzten egitura soilak eraikitzeko, pieza modulatueta eta/edo eragile mekanikoetan oinarrituta. (ardatza, gurpila, polea, plano inklinatua, engranajea eta balazta, esaterako) .

LH 4 NATURAREN ZIENTZIAK

Etapako helburuak eta arloa ebaluatzeko irizpideak garatzeko funtsezko jarduerak

IKERKETA DOKUMENTALA

- **Jarduera / Ataza:** Ikerketa txikia egingo dute ikasleek. Prozesua:
 - 1-Galdera edo ikerketaren gaia erabaki eta aurrezagutzak adierazi
 - 2-Iturri fidagarriak eta euskarriak (antolatzaile grafikoak, gidoiak eta txantiloak) erabaki
 - 3-Ikerketa egin (informazioa hautatu, sailkatu eta antolatu)
 - 4-Sintesia, azalpena eta ondorioak atera
 - 5- komunikazioa (analogikoa eta digitala: poster, txostena...)Adibidea: [Zergatik egiten dute distira ipurtargiek?](#) (“izaki bizidun argidunak” atala)
- **Prozesuzko jarduerak eta produktuak:** Kontzeptuzko mapa, arnas aparatuen maketa, gizakiaren bizi-funtzioen eskemak, animalien sailkapen grafikoak, Natura zaintzeko dekalogoak, ikerketaren txostena, hostoen bilduma, objektu bat egiteko prozesuaren murala, ikasitakoaren aurkezpen digitala ...
- **Gaien adibideak:** giza nutrizio funtzioa eta aparatua, animalien sailkapena, landareen nutrizio funtzioa, energia-iturriak eta lehengaiak (jatorria), ...

IKERKETA ESPERIMENTALA

- **Jarduera/Ataza:** Ikerketa esperimental txikia egingo dute ikasleek. Prozesua:
 - 1-Galdera edo ikerketaren gaia erabaki eta aurrezagutzak adierazi.
 - 2-Planifikazioa: hipotesiak egin eta esperimenduaren aldagaiak, urratsak eta datuak erregistratzeko moduak erabaki.
 - 3-Esperimentua egin eta datuak jaso.
 - 4-Analisia egin eta emaitzak aztertu.
 - 5-Hipotesia egiaztatu, konklusioak atera eta [komunikatu](#) (analogikoa eta digitala: poster, txostena...). Adibidea: [magnetismoa](#), [makina soilak](#), [legamien lasterketa](#), [3,2,1,... nire bihotza!](#),...
- **Prozesuzko jarduerak eta produktuak:** behaketa gidatuaren kontrol orria, ondorioen azalpena egiteko [poster zientifikoa](#), esperimenduzko prozesuaren panela, datuen grafikoak eta taulak, [esperimenduen dossierra](#), prozesuaren bideo grabaketa...
- **Gaien adibideak:** magnetismoa, gizakiaren zirkulazioa, irazketa, arnasketa eta digestioaren funtzionamendua, material eroaleak eta isolatzaileak, ...

PROZESU TEKNOLOGIKOA

- **Jarduera/Ataza:** objektu teknologikoa/makina/zirkuituak egingo dituzte ikasleek. Prozesua:
 - 1-Egoera-arazoa edo erronka erabaki eta aurrezagutzak adierazi
 - 2-Eraikitzeko prozesua jarraituz objektua/makina/zirkuitua egin ([dossierra](#))
 - 3-Komunikazioa (analogikoa eta digitala: poster, txostena...) Adibidea: [¡Todo se mueve!](#)
- **Prozesuzko jarduerak eta produktuak:** diseinuaren zirriborroa, planoak, prozesuaren dossierra, maketa, makina, zirkuituaren eskema, ...
- **Gaien adibideak:** zirkuitu elektrikoak, makina soilez sortutako egiturak, magnetismoa...

GIZARTE ZIENTZIAK

EBALUAZIO ADIERAZLEAK

KOMUNAK:

- Irakaslearen laguntzarekin, informazioaren eta komunikazioaren teknologiak erabiltzen ditu arloari buruzko oinarritzko informazioa bilatu, aztertu eta antolatzeko.
- Portaera konstruktiboa eta solidarioa agertzen du, taldeko erabakiak hartzean aktiboki parte hartzen du.

GURE MUNDUA ETA HAREN KONTZERBAZIOA:

- Kartografia zer den eta zer adierazten duen era sinplean azaltzea.
- Eguraldiaren eta klimaren arteko desberdintasuna zein den azaltzen eta ezagutzen du.
- Mapa batean, Euskal Herriko eta Espainiako ibaiak non dauden adierazten du.
- Klima-aldaketa. Arrazoiak eta ondorioak identifikatzen ditu.

GIZARTEAN BIZITZEA:

- Euskal Autonomia Erkidegoko Estatutoa eta Espainiako 1978 Konstituzioa ezagutzen ditu.
- Euskal Herriko eta Espainiako biztanleria ezaugarriak ezagutzen ditu.
- Inguruneko eta Espainiako sektore ekonomikoak aipatzen ditu.
- Diruaren erabilera arduratsua balioesten du, eta gastuak aurrekontu txiki batera moldatzen ditu.

DENBORAREN ARRASTOA:

- Iberiar Penintsula eta Euskal Herria Historiaurrea, Antzinaroa, Erdi Aroa, Aro Modernoa eta Aro Garaikidea identifikatzen ditu.

EDUKIAK

KOMUNAK:

- Informazioa balioestea eta adieraztea.
- Talde-lana eta lankidetzalana.

GURE MUNDUA ETA HAREN KONTZERBAZIOA:

- Kartografia. Eskalak.
- Eguraldi-mapak.
- Espainako eta Euskal Herriko eguraldi-Hidrosfera.
- Euskal Herriko eta Espainako ibaiak.
- Klima-aldaketa. Arrazoiak eta ondorioak.

GIZARTEAN BIZITZEA:

- Euskal Autonomia Erkidegoko eta Estatuak.
- 1978ko Konstituzioa.
- Euskal Herriko eta Espainiako biztanleria: banaketa.
- Euskal Herriko eta Espainiako jarduera ekonomikoak eta produkzio sektoreak.
- Finantza-hezkuntza.

DENBORAREN ARRASTOA:

- Iberiar Penintsula eta Euskal Herria Historiaurrean, Antzinaroan, Erdi Aroan, Aro Modernoan eta Aro Garaikidean.

TREBEZIAK ETA TALDE-LANA

- Eduki baten inguruan, informazioa bilatu eta irakasleak emandako irizpideen baitan balioetsi ([Zehar konpetentziak eskuratzeko prozedurak - 50. or](http://Zehar.konpetentziak.eskuratzeko.prozedurak-50.or)), hauen aurkezpen txiki bat egin power point edo Genially (<https://www.genial.ly/es>) erabiliz.
- Interneten bilatzaile batean lortutako informazioa irakaslearekin kontrastatu. www.google.com
- [Lanplana](#) (48. orrialdea) egin taldeko plangintza eta partaidetza ko-ebaluatzeko.
- Talde txikietan eta irakaslearen laguntzarekin kartografiari buruzko informazioa bila ezazue. Informazio horrekin, aurkezpen bat prestatzen duzue ikasgelako gainerakoentzat. Errubrika: <http://maitemelladoirakasle.blogspot.com/2016/10/aurkezpenen-errubrika.html>

GURE MUNDUA ETA HAREN KONTSERBAZIOA

- Eskaleekin trebatzeko, Eskala ariketak. <http://unitateak.mukusulubalhi.net/pdfs/eskala.pdf>
- Eguraldia lantzeko tresna interaktiboa. [Eguraldia \(quizlet\)](#)
- [Txikipedian](#) dagoen definioa kontuan hartuz eskolaren mapa fisikoa egin.
- [Espainiako ibaiak mapa interaktiboan kokatu. Espainiako geografia lantzeko ariketak. Espainiako ibaiak. Educaplay.](#)
- Euskal Herriko ibaiak buruzko bideoa ikusten dugu. Gero, Euskal Herriko mapamutu batean, marraztu egiten ditugu ibaiak. <https://es.slideshare.net/Sasoeta5maila/euskal-herriko-ibaiak-57226142>
- [Klima aldaketa Euskal Herrian](#) bideoa ikusi eta ikusten dut-pentsatzen dut-nire buruari galdetzen diot pentsamendu rutina osatu.
- Aldaketa klimatikoa. Ikusi bideo hau, <https://www.youtube.com/watch?v=PPZbdGmE3TE> eta egin fenomeno honen zergatiak zerrenda.

GIZARTEAN BIZITZEA

- Eskema bisual baten bidez, herritarren eskubideak eta horiek errespetatzen ez diren egoerak azaldu.
- Herritarren oinarrizko betebeharrak zerrendatu.
- Grafiko batean biztanleriaren datuak bildu eta konparatu.
- Espainiako eta Euskal Herriko mapetan, sektore ekonomiko garrantzitsuenak kokatu.
- Etxeko asteko erosketa egiteko planifikazio txiki bat egin, artikuluen prezioak bilatu eta emandako aurrekontura doitu.
- [Orri honetan](#) finantzen kontzeptu batzuk ikasteko jolasa duzu. Aukeratu bat.
- Euskal Autonomia Erkidegoko [Estatutua](#) eta Espainiako [1978ko Konstituzioa](#) (Irakaslearen laguntzarekin, hartu artikulua bana eta idazmen txiki batean zure hitzetan azaldu).

DENBORAREN ARRASTOA

- Hartu itzazue Euskal Herriko eta Espainiako Historiaurrea, Antzinaroa, Erdi Aroa, Aro Modernoa eta Aro Garaikidearen gertakizun historikoak garai bakoitzerako denbora lerro batean. [Denboraren lerro batean.](#)

GORPUTZ HEZKUNTZA

EBALUAZIO ADIERAZLEAK

- Leku-aldaketak eta jauzi ezberdinak burutzeko ahalmena hobetu du: norabide eta zentzu aldaketak...
Gorputz-mugimenduak espazio- eta denbora- ezaugarrien arabera egokitzen ditu: iraupena, erritmoa, norabidea...
- Begi-esku eta begi-oin koordinazio egokiak ditu tresnak jaurti eta gidatzean.
Harrera eta geldiketak ongi burutzen ditu.
- Birak burutzerakoan, gorputz-ardatzen arabera, mugikortasun-kontzientzia dauka.
Ikaskideekin harreman egokiak ditu jolasten ari denean, gatazkak konponduz.
Arazoak konpontzeko estrategia erraz eta egokiak erabiltzen ditu.
- Arauak errespetatzen ditu eta kideen arteko desberdintasunak onartzen ditu.
Jolas eta egoera berriak aurkezterakoan ongi ulertzen ditu.
- Jolasetan gogoz parte hartzen du eta gozamenerako eta harremanak egiteko erabiltzen du.

EDUKIAK

- Mugimenduak eta jauziak era koordinatuan eta orekatuan, gorputz-mugimenduak jardueren baldintzetara egokituz.
- Tresna higikorrek jaurtiketarako, paseak eta harrerak kontrola galdu gabe eta mugimenduak egokituz.
- Luzera eta zeharkako ardatzetan birak, gorputz-atalak dibertsifikatuz eta mugimenduak hobetuz.
- Era koordinatuan eta lankidetzako jarduerak, helburua lortzeko eta taldeko jolasetan aurkarien kontra egiteko.
- Jolasetan eta kirol-jardueretan arauak eta gainerako ikaskideekiko onarpenera eta parte hartze aktiboa.
- Erritmo-egitura errazak gorputzarekin edo instrumentuekin.
- Gorputz adierazpeneko baliabideen erabilpena, taldean inplikatzuz, ideiak eta sentimenduak komunikatzeko eta pertsonaiak eta istorioak antzetzeko.
Jarduera fisikoak osasunean dituen onurak kontuan izanda, jokabide aktiboa, gorputza zainduz eta jarrera-nahiz elikadura-ohiturak mantenduz.

LH 4_ GORPUTZ HEZKUNTZA

HAMARGARRENEAN AIDANEZ!!:

- Etxean duzun pilota batekin tokeak egiteko erronka hartuko duzu. Pilota gorantz jaurti eta behera datorrenean, berriro ere esku-ahurrarekin joko duzu erreko balu bezala . Pilota hamar aldiz jarraian jo behar duzu. Hori errez egiten badozu, esku biekin alternatiboki egiten ahalegindu. hori ere errez egiten baduzu, esku biak eta gorputzeko beste atal batekin 10tokeak egiten ahalegindu. Eta hori ere errez lortzen baduzu, zuk asmatu beste moduren bat zure marka hobetzeko.

[Ebaluazio tresnak](#) (*Bideo grabaketak, argazkiak*) [irakaslearen ebaluazioa](#), [autoebaluazioa](#)

MUGI-MUGI SAIOA:

- Zure gustokoa den abesti baterako, 4 pausuetako dantza koreografia erraz bat prestatu (ahal dala etxeko beste batekin). Zuretzat 4 pausu gitxi badira, gehitu pausuak ikara barik!! Ondo menperatzen duzunean bideo grabaketa batean edo argazkietan jaso
- Akrosporteko konposizio bat asmatu (edo bilatu edo egokitu) eta praktikan jarri. (Akrosport [adibideak](#))
- Mimokojarduera bat prestatu. Egin nahi duzun ekintza bat pentsatu eta mimo eran adierazi, ea mutil honek ideiarenean bat ematen dizun: [adibidea](#)

[Ebaluazio tresnak](#): *Bideo grabaketak, argazkiak, argazki collage bat, autoebaluazioa akrosport, irakaslearen ebaluazioa*)

ZIRKUITUA:

- Zirkuitu bat antolatu behar duzu. Oztopo desberdinak erabili behar dituzu adibidez, etxeko erratzaren makila edo zaborra biltzekoarena, zapata kaxak edo lapiko zein galdarak, aulkiak... Tamaina desberdineko pilotekin ibilbidea osatu beharko duzu. Pilotak ez badituzu, zuk zeuk eraiki ditzakezu, paperez, aluminiozko papera birziklatuz, kaltzetinak bola bat bihurtuz... Ibilbide hau, ahal baduzu, oin eta eskuz, ezker eta eskuin erabiltzen ahalegindu.

[Ebaluazio tresnak](#) (*Bideo grabaketak, argazkiak, argazki collage bat, autokontrol orria*)

JAURTIKETAK PRAKTIKATZEN

- Jaurtiketak egin behar dituzu. Behar duzun materiala da: ontzi bat (paperontzia, galdara, jostailuen kutxa bat, lapiko bat...) pilota bat (tenis pilota, paperezkoa, aluminio paperaz sortutakoa, kaltzetinak bola batean bilduta...). etxeko gune batean (pasiloan, gelan, saloian, terrazan...) ontzia jarriko dozu eta ontzitik hiru pausu atzera egingo dituzu. Tokia markatu (zeredo zer jarri beti lekuberndetik jaurti ahal izateko). Lortu duzun distantzia horretatik gitxienez, pilota batekin 3 jaurtiketa egin eta ontziratzen saiatu. Datuak jaso: zenbat sartu dituzu? Zailtasun maila desberdinak bilatu eta praktikatu.

[Ebaluazio tresnak](#) (*Bideo grabaketak, Lorpenen jarraipen orria, Kontrol zerrenda*)

ETXEAN ITZULIPURDIKA

- Etxean egiteko moduko ariketa konbinatu bat antolatu behar dozu. Jarduera horren atal bat lurrera jauzi eta itzulipurdia egitea izango da gutxienez. Gogoratu!! Buruarekin ez da lurra ukitu behar. Mugimendua biribiltzen saiatu. Zure ziurtasun fisikoa zaindu ere.

Koltxoneta batean (oheko koltxoia lurrean jarrita, alfombra gainean edo biguina den beste zeozer erabilita), aurrera bira egin beharko duzu (pikotxean, besoak luze lurrarekin paralelo, hanken laguntzaz gorputza aurrera bultzatuz, besoekin harrera egin eta bularrera eraman okotza, aldaka aireratuz, bizkarra koltxoneta gainean kokatu eta hankak luze. Azkenik koltxoneta gainean errodatu, hankak tolestu eta hauekin azken bultzada eman). Zure marka gaitu nahi izan ezker, atzeraka egiten saiatu.

[Ebaluazio tresnak](#) (*Bideo grabaketak, argazkiak, zirkuitoaren marrazkia*) [\(autoebaluazioa\)](#) *Kontrol zerrendak (Ataza edo produktu bat ondo egiteko jarraitu behar diren pausuak, prozesuan laguntzeko; nola noa eta nora ailegatu naiz).*

ARTE HEZKUNTZA: MUSIKA-ARTE/PLASTIKO ETA BISUALA

EBALUAZIO ADIERAZLEAK

- Musika sortu eta interpretatzean, musika-notazioaren oinarriko elementuak erabiltzen ditu erritmo- eta melodia-eskema xumeak irakurtzeko.
- Kalitatezko interpretazioak egiten saiatzen da musika egin, ahotsa eta musika-tresnak erabili eta gorputz-adierazpena lantzean.
- Musika-konposizio eta obra bisual eta plastikoetan erabili diren teknikak aztertzen ditu, eta moldatu egiten ditu bere sortze-lanean
- Musika-errepertorio propio bat izateko interesa erakusten du.
- Pieza laburrak inprobisatzen ditu irudien, soinuen, ideien, kontakizunen eta bestelako estimuluen bultzadaz.
- Obren sorrerako baldintzen eta testuinguruen gaineko informazioa bilatzen eta antolatzen du.
- Hitzez eta idatziz adierazten ditu arte-ekoizpen bisual eta musikal askotarikoek sorrarazten dizkieten emozioak eta sentimenduak.
- Teknologia-oinarria duten bitarteko askotarikoak erabiltzen ditu adierazpenerako eta komunikaziorako.
- Komunikabideek erabilitako irudiek eta musikak igorritako mezuen helburuak identifikatzen ditu.
- Arte-jardueretan lankidetzak eta ekarpen indibidualek duten garrantziaz ohartzen da eta haien beharrez baliatzen du.

EDUKIAK

MUSIKA

- Ahotsa: arnastea, intonazioa eta ahoskatzea: hobetzeko teknikak.
- Ahots batez kantatzen diren abestiak, kanonak eta pieza instrumental errazak interpretatzea eta buruz ikastea.
- Musika hizkuntza: oinarriko partitura konbentzionalak irakurtzea.
- Isiltasunak musikan eta elkarbizitzan duen garrantzia balioestea.
- Adi entzutea musika-konposizio laburrak, estilo eta kultura askotarikoak.
- Ahotsaren, gorputzaren, objektuen eta naturako soinuen soinu-aukerak arakatzea.
- Euskal kultura-ondareko eta beste kultura batzuetako abestien eta dantzen errepertorio bat ikastea.

ARTE PLASTIKO ETA BISUALA

- Objektuen eta natura-elementuen ahalmen plastiko eta adierazpenezkoak arakatzea
- Koloreen ezaugarri eta erlazioen gaineko jakintza oinarrikoak erabiltzea.
- Bolumenek eta espazioek argiaren eraginez izaten dituzten aldaketak ikertzea.
- Testurak erabiltzea objektuen eta irudien ezaugarriak zehazteko.
- Irudiak eta objektuak berregitea, ideiak eta sentimenduak adierazteko, eraldatze grafikoaren eta plastikoaren bidez.
- Informazioaren eta komunikazioaren teknologiak erabiltzea irudiak bilatzeko, irudien gaineko dokumentazioa biltzeko eta egindako lanak zabaltzeko.

LH 4 ARTE HEZKUNTZA

ERRITMOA LANTZEN

Cup song tutoriala:

<https://www.youtube.com/watch?v=4M-Cug1ukho>



eta orain ikusi abestiarekin:

<https://www.youtube.com/watch?v=9xz5PmhjmhA>



ARIKITEKTOA NAIZ!

Arkitektoa naiz!

Animatzen ahal zara zure etxearene do logelaren plano a marraztu eta ondoren zapata kaxa batean eraikitzen? Hona hemen urratsak:

<https://www.amarauna.euskadi.eus/baliabidea/arkitektoa-naiz/353aa1ff-54e7-4dc5-af0b-4d6fe6cf5b54>

Jarraibideak burutu ondoren, planoan irudikatu duzuna zapata kaxa batean eraikitzen animatzen zaitugu!

ETXEAN KONFINAMENDUAN EGON GARENEAN ENTZUN DITUGUN SOINUAK:

Ohikoa ez den zein soinu entzun duzu denboraldi honetan?

Eta, zein momentutan edo zein lekutan entzun duzu isiltasuna edo zarata gutxiago?

Etxean, leihotik, blakoian, ... abestiren bat gustatu zaizu bereziki? Eta zein musika aukeratu duzu bakarrik egon zarenean entzuteko?

Orain aukeratu nola jaso nahi dituzun erantzunak (edo modu berri bat asmatu): Fitxa honetan idatzi edo irudikatu, edo marrazkiak egin, edo collagea, edo plastilinaz adierazi, edo arte lan bat egin, edo grabatu, edo paper txikitxoetan idatzi edo margoztu eta pote batean sartu eta gorde edo zure logelako atean itsatsi, edo zuk nahi duzun moduan egin.

ABESTIA IKASIA ETA EGOKI ABESTU. ANAI XANTI Abestia ikasi eta egoki abestu.

Gorputz perkusioarekin osbstinato erritmiko bat asmatu abesti hau laguntzeko. Gero familiako norbaitekin edo lagun batekin egin ahal izateko egokitu. Asmatu obstinato erritmikoa, gorputz perkusioarekin edo perkusio txikiarekin, eta gero musika irudiekin idatzi. Partituran aurkitu dituzun zati ezberdinatetik, txirularekin jotzeko bate do gehiago aukeratu eta jo, behin eta berriro, jarraian, gelditu gabe, lau aldiz.



KONPETENTZIA DIGITALA

LH4

EBALUAZIO ADIERAZLEAK

- Bilaketa zehatzak egiten ditu hitz bat baino gehiago erabiliz.
- Lan-dokumentuak eta aukezpenak sortzen ditu irudiak txertatuz.
- Sortutako lanak izen egokiekin gordetzen ditu.
- Bere lanak posta elektronikoaren bitartez bidaltzen ditu.
- Bere pasahitzak modu seguruan erabiltzen ditu.
- Norberaren posta elektronikoarekin bukatzean itxi egiten du saioa.

EDUKIAK

- Bilaketak egitea zehaztutako webgune zerrenda batetik.
- Informazioa eskuragarri jartzea (ordenagailuan edo hodeian).
- Edukiak sortzeko programa ezberdinak ezagutzea: testu prozesadorea, aukezpenak, irudiak ...
- Posta elektronikoa erabiltzea
- Baliabide digitalen erabilera seguru egitea.

IKASKUNTZAREN AUTOERREGULAZIOA

EBALUAZIO ADIERAZLEAK

- Bere lana planifikatzeko gai da.
- Bere lanak hobetzeko estrategiak erabiltzen ditu.
- Agindutako zereginetan arduraz jokatzen du.
- Laguntzarako iturri ezberdinak erabiltzen hasi da (galdetzea, liburuetara jotzea, interneta...)
- Ikasteko eta sakontzeko estrategia batzuk erabiltzen hasi da (berrirakurtzea eta aztertzea, sakontasun gehiagoz behatzea ...)
- Dakienaren inguruko gogoetak eta bere ezagutzaren barne eskemak adierazten hasi da.
- Kideen artean egiteko lanetan aritzen da.

EDUKIAK

- Zereginen planifikazioa (espazioen prestaketa, materialen prestaketa, denboraren kudeaketa ...)
- Lanaren garapena
- Iturri ezberdinen kontsulta.
- Ikasteko estrategiak
- Metakognizioa.
- Kolaborazioa eta kooperazioa

MATEMATIKA

EBALUAZIO ADIERAZLEAK

I. Eduki komunak

A. Arlo eta ikasgai guztietan komunak diren oinarrizko zehar-kompetentziekin lotutako edukiak: talde-lanean eragikor eta sortzailea kudeatzen du informazioa eta emaitzak komunikatzen ditu.

B. Ikasgai honetako multzo guztien eduki komunak: problemak ebazten ditu hainbat estrategiekin eta laguntzaile matematikoez baliaturik.

ZENBAKIKUNTZA:

- Zenbakiak irakurri eta erabiltzen ditu zazpi zifra arte
- Zenbakiaren arteko oinarrizko erlazioak ezagutzen ditu eta erabiltzen ditu eragiketarak burutzeko.

ERAGIKETAK:

- Zenbaki hamartar eta zatikiarrak erabiltzen ditu testuinguruetan
- Hamarrekoen, ehuenkoen eta miklakoen arteko eragiketa oinarrizkoak egiten ditu.

BURUKETAK:

- Eragiketarak erabiltzen ditu testuinguruetan hainbat zenbaki motakin.

MAGNITUDEAK:

- Magnitudeak: pisua, distantzia, dirua, edukia, bolumena... erabiltzen ditu testuinguruetan eta batetik bestera pasatzen ditu.

GEOMETRIA:

- Poligono errazak ezagutu eta deskribatzen ditu.
- Gorputz geometriko errazak ezagutu eta deskribatzen ditu.
- Angeluak ezagutzen ditu eta erabiltzen ditu testuinguruetan adierazpenak aberasteko eta problemak ebazteko.

EDUKIAK

I. Eduki komunak

A. Arlo eta ikasgai guztietan komunak diren oinarrizko zehar-kompetentziekin lotutako edukiak: informazioen kudeaketa, plangintzak egin eta bete, lanen emaitzak komunikatzea, talde-lanean aritzea motibazioaz eta gatazkak kudeatzea autoerregulazioatik.

B. Ikasgai honetako multzo guztien eduki komunak: problemen ebazpena, modelizazioa eta laguntzaile matematikoen erabilera.

ZENBAKIKUNTZA:

- 7 zifrako zenbakitik gora. Zenbaki hamartarrak
- Zatikiak: gaiak, irakurketa, idazketa, eragiketarak
- Zenbakiaren hamartarrak: irakurketa, idazketa, deskonposaketa , < , > , =, hurbilketak

ERAGIKETAK:

- Zatiketa sakontzea zatitzailean $\frac{2}{3}$ zifrarekin.

BURUKETAK:

- Datuetan zenbaki hamartarrak dituztenak.
- Magnitudeak erabiltzeko egoerak: luzera, edukiera, pisua dirua...
- Buruzko kalkulua +, -, x, : (4 eragiketa jarraian)

MAGNITUDEAK:

- Edukiera, luzera eta pisua neurriak. Unitate batetik bestera pasatzea. Azalera: metro karratua.

GEOMETRIA:

- Gorputz geometrikoak: Poliedroak, Gorputz biribilak.
- Angeluak: neurtzea / batuketa / kenketa.
- Espazioan kokapena, orientazioa eta errepresentazioa

PROBABILITATEA: KONTZEPTOA ETA BATEZBESTEKOA.

- Datuak bildu, tauletan antola, maiztasunak eta grafikoetan adierazi.

Matematika - LH - 5. maila-rako jarduerak

Ebidentziak: ebaluazio-prozedurak eta -tresnak

[Matematika koronabirus garaietan](https://labur.eus/matecovid19): <https://labur.eus/matecovid19>

[Etxean ikasten Matematika](https://labur.eus/etikmate): <https://labur.eus/etikmate>

[Etxetik irakatsi](https://labur.eus/etxetikirakatsi): <https://labur.eus/etxetikirakatsi>

[Flipped classroom](https://labur.eus/flipped): <https://labur.eus/flipped>

Eduki komunak

A. Arlo guztietan komunak diren oinarrizko zehar-konpetentziekin lotutako edukiak: [Arazo-egoerak eta](#)

[Unitate didaktikoak](https://labur.eus/AE-UD) <https://labur.eus/AE-UD>

B. Matematikarako eduki komunak: [Problemak](https://labur.eus/probh) <https://labur.eus/probh>

ZENBAKIKUNTZA:

- Zenbakiak irakurri eta erabiltzeko jarduerak
- [ThatQuiz Osoak Berreketak](https://labur.eus/tqosbe) <https://labur.eus/tqosbe>
- [ThatQuiz Zatikiak konparatu](https://labur.eus/tqzako): <https://labur.eus/tqzako>

PROBLEMAK:

[PhET Zatiketarako sarrera](https://labur.eus/phzasa): <https://labur.eus/phzasa>; [PhET Zatikiak zenbaki nahasiak](https://labur.eus/phzasa):

<https://labur.eus/phzzn>; [PhET Parekatu zatikiak](https://labur.eus/phpaza): <https://labur.eus/phpaza>; [PhET Zatikiak](https://labur.eus/phzaba):

[baliokideak](https://labur.eus/phzaba): <https://labur.eus/phzaba>

MAGNITUDEAK:

[ThatQuiz Kontzeptuak Denbora](https://labur.eus/thkode): <https://labur.eus/thkode>; [ThatQuiz Kontzeptuak Dirua](https://labur.eus/tqkodi):

<https://labur.eus/tqkodi>; [ThatQuiz Kontzeptuak Neurria](https://labur.eus/tqkone): <https://labur.eus/tqkone>

GEOMETRIA:

- [ThatQuiz Geometria Angeluak](https://labur.eus/tqpoan): <https://labur.eus/tqpoan>; [ThatQuiz Geometria Triangeluak](https://labur.eus/tqgege): <https://labur.eus/tqgege>

PROBABILITATEA: KONTZEPTUA ETA BATEZ BESTEKOA.

- [ThatQuiz Kontzeptuak Grafikoak](https://labur.eus/tqkogr): <https://labur.eus/tqkogr>
- [ThatQuiz Zatikiak Batezbestekoa](https://labur.eus/tqzaba): <https://labur.eus/tqzaba>

Adibideak

I. Eduki komunak

A. *Ikasgai guztietan komunak diren oinarrizko zehar-konpetentziekin lotutako edukiak*: (AA-EE): [Eiffel](#)

[dorrea eta 13 az](#), [La torre Eiffel y el 13 N](#); UDD: [Geomaleta](#), [Freskagarriak](#), [Solstizioak](#), [La Geomaleta](#),

[GPS](#), [¡Todo se mueve!](#), [ARTEmaticaMENTE](#), [Cuentos matemáticos interactivos](#)

B. Matematikarako eduki komunak: [Problemak](https://labur.eus/prolh) <https://labur.eus/prolh>

ZENBAKIKUNTZA:

- <https://www.thatquiz.org/eu-6/?-j10-l5-mpnv600-p0>
- <https://www.thatquiz.org/eu-2/?-jp-l2-mpnv600-p0>
- <https://www.thatquiz.org/eu-B/?-jl-lc-mpnv600-p0>

PROBLEMAK:

- [PhET Zatiketarako sarrera](https://labur.eus/phzasa): <https://labur.eus/phzasa>; [PhET Zatikiak zenbaki nahasiak](https://labur.eus/phzasa): <https://labur.eus/phzzn>; [PhET Parekatu zatikiak](https://labur.eus/phpaza): <https://labur.eus/phpaza>; [PhET Zatikiak](https://labur.eus/phzaba): [baliokideak](https://labur.eus/phzaba): <https://labur.eus/phzaba>

MAGNITUDEAK:

- <https://www.thatquiz.org/eu-g/?-j10-l4-mpnv600-p0>
- <https://www.thatquiz.org/eu-a/?-j48-la-mpnv600-p0>
- <https://www.thatquiz.org/eu-9/?-j1-l2-mpnv600-p0>

GEOMETRIA:

- <https://www.thatquiz.org/eu-C/?-jf-l2-mpnv600-p0>
- <https://www.thatquiz.org/eu-A/?-j11-l3-mpnv600-p0>
- <https://www.thatquiz.org/eu-4/?-j284a-lc-mpnv600-p0>

PROBABILITATEA: KONTZEPTUA ETA BATEZ BESTEKOA.

- <https://www.thatquiz.org/eu-5/?-j5040l-l2-mpnv600-p0>
- <https://www.thatquiz.org/eu-p-z1/?-j4h00-l2-mpnv600-p0>

HIZKUNTZAK (EUSKARA/GAZTELANIA)

EBALUAZIO ADIERAZLEAK

ENTZUMENA eta IRAKURMENA

- Ahozko testuak eta idatzizko testuak ulertzen eta interpretatzen ditu: komunikazio egoeraren elementuak kontuan hartu, berariazko informazio pertinentea, ideia nagusiak eta bigarren mailakoak, zentzu orokorra, inferentzia errazak, hiztegia eta espasideak.
- Ahozko eta idatzizko testuen edukia antolatzeke tresnak baliatzen ditu: eskemak, gidoiak, buru-mapak, laburpenak...
- Testuak ozenki irakurtzen ditu ahoskera, intonazio eta adierazpen egokiaz.

AHOZKO ELKARREKINTZA

- Elkarrizketetan modu aktiboan parte hartzen du, oso adi entzuten die solaskideei, eta haiek esandakoari estu lotuta hitz egiten du. Besteen iritziak errespetatzen ditu.
- Euskara erabiltzeko interesa eta joera proaktiboa du.

MINTZAMENA eta IDAZMENA

- Eguneroko beharrei buruz modu zuzen eta koherentean hitz egiten du eta gelan landutako hizkuntza baliabideak erabiltzen ditu.
- Ahozko eta idatzizko testuak era autonomoan sortzen ditu: komunikazio egoeraren elementuak kontuan hartuz, ideien ordena eta koherentzia mantenduz, paragrafoak erabiliz, landutako hiztegia eta gaiaren ingurukoa baliatuz eta gelan landutako hizkuntza baliabideak erabiliz.
- Ahoskera, intonazioa, gorputz-jarrera eta keinu egokiak erabiltzen ditu ahozko aurkezpenetan.
- Testuak ekoizteko kontrol-orriak eta auto-ebaluazio eta ko-ebaluazio estrategiak baliatzen ditu.
- Ahozko eta idatzizko testuetan hizkuntza-sistemaren arauak baliatzen ditu testuak hobetzeko. Bere ikaskuntzaz gogoeta egiten du, eta ikasteko-gaitasunean konfiantza du.

EDUKIAK

ENTZUMENA eta IRAKURMENA

- Askotariko ahozko eta idatzizko testuak ulertzeko eta interpretatzeko jarduerak proposatzea.
- Testuak ulertzeko estrategiak lantzea: aurretik-bitartean eta ondoren; izenburua, marrazkia, hitz gakoak, bigarren irakurketa, azpimarratzea, antolatzaileak identifikatzea...
- Irakurzaletasuna indartzeko jarduerak: haiek aukeratutako liburuak, liburutegikoak, gelakoak...
- Irakurketari lekua eta denbora eskaintzea.
- Olerkiak, bertsoak eta narrazioak dramatizatzea-errezitatzea-ahoskera eta erritmoa-jarritasuna zainduz.
- Irakurketa adierazkorra lantzea.

AHOZKO ELKARREKINTZA

- Ikasleen intereseko gaietara eta literatura-testuei buruzko solasaldiak egitea norberaren bizipenak, gertakariak eta sentimenduak besteekin kontrastatzeko.
- Ikasleen intereseko gaien inguruan eztabaidak proposatzea, iritziak eta argudioak lantzea.

MINTZAMENA eta IDAZMENA

- Askotariko ahozko eta idatzizko testuak ekoiztea ahoz eta idatziz, paperean edo euskarri digitalean, aldeztu egindako plangintza bati jarraituz eta zenbait eredutan oinarrituz ekoiztea.
- Testu-generoen oinarritako ezaugarriak eta testu bakoitzak eskatzen dituen hizkuntza egiturak, hiztegia eta antolatzaileak lantzea.
- Gai akademikoen inguruko hiztegia lantzeko jarduerak proposatzea: buru-mapak, glosarioak...
- Ahozko eta idatzizko testuak eskatzen dituzten hizkuntzarako baliabideak lantzea: perpaus konplexuak eta dagokien lokailuak, ortografia arauak, puntuazio markak...

Ahozko eta idatzizko testu generoak: gutunak, oharak, foroetako mezuak, emailak, postalak, gonbiteak, zorion agurrak, kontakizunak, mikroipuinak, narrazioak, komikiak jarraibideak, azalpen testuak, debateak, iruzkinak, albisteak, iritziak, definizioak, deskripzioak, azalpenak, esperimenduak, eskemak eta laburpena, bizipenak eta esperientziak...

LH5 EUSKERA ETAGAZTELANIA

GURE INGURUKOAK ZAINTZEN

Azkenaldian egun asko pasa ditugu etxean sartuta... Orain, ateratzeko aukera daukagu, denbora tarte batez bada ere, eta gorputzari hainbeste behar duen arreta ere eskaini diezaiokegu: mugi gaitzke, igo, jaitsi, korrika egin... Hala ere, badira lagunak ariketa fisikoa eta osasuna zaintzearen garrantziaz jabetzen ez direnak. Nola konbentzitu ditugu? Informazioa bilatu, azalpenak eta argudioak garatzeko proposamena. [Gure ingurukoak zaintzen.](#)

OGI GOGORRARI HAGIN ZORROTZA

Proposamen honetan, ahozko edo idatzizko elkarrizketa bat egingo diete gurasoei beren bizitzan ogiarekin izan duten harremanaren inguruan. Ogiaren errezetaren bat irakurriko dute ulermena lantzeko estrategiak baliatuta eta, bukatzeko, ogia egin eta prozesua azalduko dute. [Ogia egiten.](#)

ARROPA GARBITZERA!

Irakurriaren ulermena lantzeko jarduera honetan, arropak nola garbitzen ziren antzina irakurri eta, egun, etiketek zer nolako informazioa ematen diguten... ulertzeko jarduera burutuko dute ikasleek. [Arropak garbitzera!](#)

ABEDearen ISTORIA

Gelakide guztien artean istorio partekatu bat idazteko proposamena. Taula batez baliatuta eta abedearen hizkien ordenari jarraituz, ikasle bakoitzak dagokion hizki hasitako istorio baten esaldi bat idatziko du. Horretarako, aurrekoek egindako esaldiei erreparatu behar die istorioaren hariari egoki jarraitzeko. Misterio bat izango da bukaera...

Bukatutakoan, gelakide guztiekin partekatu eta beste zenbait jarduera egin daitezke: zabalkuntza, bideoan grabatzea, antzezlan partekatu bat, bakoitzak dagokion atala bere etxetik grabatuta, beste maila bateko ikasle bana esleitu eta berari kontatu bideo-dei batean, audioa edota bideotxo bat grabatuta... [ABEDearen istorioa.](#)

NI ERE IRAKASLE!

Proiektu honetan, beste ikasle batzuei ikasten laguntzeko proposamena egiten da. Horretarako, laguntza-bideoak ekoitziko dituzte ikasleek eta azalpen lagungarriak eman. Azalpena idatziz ere jaso behar dute. [Ni ere irakasle!](#)

ADI! ISTORIO “ESKATXARRAUTA”!

Lagunekin elkartu gabe ere istorio dibertigarriak kontatu ditzakegu. Goazen bat egitera. Proiektu komunikatibo hau lau fasetan garatuko da eta ikasleak taldeka (bosteko taldeak) arituko dira. [Adi! Istorio “eskatxarrauta”!](#)

ATZERRIKO HIZKUNTZA

EBALUAZIO ADIERAZLEAK

- Gai da modu gidatuan irakasle eta kideekin komunikatzeko ahozko testuak sortzeko, eta landutako ahoskera-, erritmo-eta azentuazio- ereduak erreproduzitzeko.
- Grafiaren eta ahoskeraren arteko egokitasun ezaz konturatzen da.
- Gai da laguntzarekin, entzuketan informazio esplizitua eta inplizitua antzemateko eta proposatutako helburuei erantzuteko beharrezko informazioa hautatzeko.
- Ahoz landutako egitura eta hitzak identifikatzen ditu.
- Laguntzarekin komunikazio-trukeetan modu aktibo eta egokian parte hartzen du, komunikazio araei erreparatuz, eta oinarrizko komunikazio-funtzioak erabiltzen saiatzen da.
- Gai da aurretik landutako testuen informazio esplizitua eta inplizitua antzemateko eta proposatutako helburuei erantzuteko garrantzizko informazioa hautatzeko.
- Testuak ulertzeko eta idazteko estrategiak modu gidatuan erabiltzen hasi da.
- Ereduak erabiliz eta laguntzarekin, testu laburrak idazten ditu.
- Landutako hainbat hizkuntza-ezagupen erabiltzen ditu.
- Atzerriko hizkuntza erabiltzeko interesa adierazten du.

EDUKIAK

MINTZAMENA

- Ahozko testu labur eta errazak modu gidatuan sortzea, irakasle eta kideekin komunikatzeko.
- Landutako ahoskera-, erritmo-eta azentuazio ereduak erreproduzitzea.
- Grafiaren eta ahoskeraren arteko egokitasun ezaz konturatzea.

ENTZUMENA

- Laguntzarekin, adinari egokitutako entzuketan informazio esplizitua eta inplizitua antzematea eta proposatutako helburuei erantzuteko beharrezko informazioa hautatzea.

AHOZKO ELKARREKINTZA

- Gelan ohikoak diren komunikazio-trukeetan laguntzarekin modu aktibo eta egokian parte hartzea, komunikazio araei erreparatuz: abestea, antzerkia egitea, jolastea,...
- Oinarrizko komunikazio-funtzioak erabiltzen saiatzen da: eskerrak ematea, laguntza eskatzea,...

IRAKURRIAREN ULERMENA

- Adinari egokitutako eta aurretik landutako testuen informazio esplizitua eta inplizitua antzematea: narrazioak, menuak, ... hainbat gaiei buruz: janariak, animalia, familiak, ...
- Proposatutako helburuei erantzuteko garrantzizko informazioa hautatzea.
- Testuak ulertzeko estrategiak modu gidatuan erabiltzen hastea.

IDAZMENA

- Ereduak erabiliz, eta laguntzarekin, testu soilak sortzea: arauak, iragarkiak, errezetak, ...
- Testuak idazteko estrategiak modu gidatuan erabiltzen hastea.

**Hizkuntza-ezagupenei dagokienez, hauek landu ahal dira: Clothes, tourist attractions, marine animals, technology, animals body parts, entertainment, parts of the face, jobs, international customs, personality and appearance, countries and nationalities years, numbers 1 - 999.999, units of measure. Verb tenses (Present and Past)

YEAR 5

My favourite singer

Students share their likes about music and /or musical instruments after listening /reading about them. This activity can be used at all levels. For example, very young learners watch a very simple video_ and then create a pictiography. 9-12-year students can write about their favourite singer or band.

Resources: [Video](#), [Worksheet on “My favourite singer”](#), [A Pictiography](#)

Let me introduce myself.

Now that you are at home, you can meet new friends who are in different countries by writing letters to each other. Now you are going to write the first letter to introduce yourself to a new friend. Tell your friend about: where you are from, your age, your appearance, your family, your pets, things you like and languages you speak. Remember to ask your friend some questions!. The activity included under the “writing” section can be done orally too depending on the level of students

Resources: [Worksheet](#), [Letter Template](#)

A story review.

Students have been listening and watching lots of stories during the school closure. Ask them to choose one of them and write a simple review to tell your school friend from a different country about it. The youngest students rearrange some sentences the teacher prepares or draws his/ her favourite character and writes easy sentences to describe him/her)

Resources: Audio stories with script and [Handout on “Writing a book/story review”](#)

What do you practice in your life?

In this unit students watch a video about feelings and then they draw a picture and write what they practice in their lives.

Resources: [Video](#)

eTwinning: e-Cultural Kaleidoscope

Why not start an eTwinning project? eTwinning offers a platform for teachers to communicate, collaborate, develop projects, share and, in short, feel and be part of the most exciting learning community in Europe. If you register in this European Council platform, you can start networking with other European colleagues and have your students collaborating on innovative projects with students from all over Europe.

Resources: www.etwinning.net , www.etwinning.es, [kit](#)

NATURAREN ZIENTZIAK

EBALUAZIO ADIERAZLEAK

- Problema ebazteko hipotesi egiaztagarriak egiten ditu.
- Eragindako egoera edo fenomeno aztertzen du
- Lan zientifikoa ordenaz eta argi antolatzen du.
- Laborategiko oinarriko materiala ezagutzen ditu.
- Esperimentuetako datuak bildu, antolatu eta interpretatzen ditu, zenbait baliabide erabiliz: taulak, grafikoak, kontzeptuzko mapak ...
- Azalpen arrazoituak ematen ditu, hipotesia egiaztatzen dela edo ez dela egiaztatzen adierazteko. Ikerketaren emaitzak jakinarazten ditu eta txostenak egiten ditu, zenbait bitarteko eta euskarri analogiko eta/edo digital erabiliz.
- Izaki bizidunen (gizakia barne) funtzionamendua ahalbidetzen duten zelulen, ehunen, organoen, aparatuen eta sistemen forma, egitura eta funtzioak ezagutzen ditu.
- Higieneari, elikadura orekatuari, ariketa fisikoari eta atsedenera lotutako adibideak jartzen ditu, gorputzaren osasuna, ongizatea eta funtzionamendu ona mantentzeko modu gisa.
- Ekosistema bateko izaki bizidunen artean sortzen diren harremanak balioesten ditu, eta espezie batzuen desagertzearen arrazoiak eta ekosistemen desoreka azaltzen ditu.
- Zenbait prozedura erabiltzen ditu gorputz baten masa eta bolumena neurtzeko
- Arrunteko materialen propietateak eta portaera duten argiaren, elektrizitatearen, magnetismoaren, beroaren edo soinuaren aurrean deskribatzen ditu.
- Energiaren erabilerak dakartzan onurak eta arriskuak azaltzen ditu
- Zirkuitu elektriko soilak edo hezkuntza-helburuko robotikako elementuak dituzten egitura soilak diseinatu, planifikatu eta eraikitzen ditu.
- Prozesu teknologikoaren urratsak ematen ditu pieza modulatuetan eta/edo eragile mekanikoetan (ardatza, gurpila, polea, plano inklinatua, engranajea eta balazta, esaterako) oinarrituta makina bat edo gailu bat eraikitzeko.

EDUKIAK

Naturaren-zientzien proiektua edo erronkak egitea, modu gidatuan, metodologia zientifikoa eta haren oinarriko ezaugarriak fenomeno naturalak eta benetako egoerak aztertzeko, identifikatzeko eta ebazteko aplikatzeko irizpideak eta jarraibideak erabiltzen hastean.

Proiektua edo erronkak gai horietako bati buruzkoa izango litzateke

GIZAKIA ETA OSASUNA

- Gizakiaren bizi-funtzioak. Aparatuak eta sistemak.
- Gizakiaren ongizaterako eta gaixotasunen prebentziorako ohitura osasungarriak.

IZAKI BIZIDUNAK

- Izaki bizidunen arteko erlazioa. Elikakateak.
- Biosfera. Izaki bizidunen habitatak.
- Izaki bizidunen egitura: zelulak, ehunak, organoak, aparatuek eta sistemak

MATERIA ETA ENERGIA

- Gorputz baten masa eta bolumena
- Energia-iturri berriztagarriak eta ezberriak.
- Erabilera arrunteko materialen propietateak eta argiaren, soinuaren, beroaren, hezetasunaren eta elektrizitatearen aurrean duten portaera.

TEKNOLOGIA, OBJETUAK ETA MAKINAK

- Zirkuitu elektriko soilak edo hezkuntza-helburuko robotikako elementuak dituzten egitura soilak diseinatu, planifikatu eta eraikitzea.

Prozesu teknologikoaren etapak. Irizpideak problema bat ebazteko eginkizuna duten edo horretarako baldintzak betetzen dituzten egitura soilak eraikitzeko, pieza modulatuetan eta/edo eragile mekanikoetan oinarrituta (ardatza, gurpila, polea, plano inklinatua, engranajea eta balazta, esaterako).

LH 5 NATURAREN ZIENTZIAK

Etapako helburuak eta arloa ebaluatzeko irizpideak garatzeko funtsezko jarduerak

IKERKETA DOKUMENTALA

- **Jarduera / Ataza:** Ikerketa txikia egingo dute ikasleek. Prozesua:
 - 1-Galdera edo ikerketaren gaia erabaki eta aurrezagutzak adierazi;
 - 2-Iturri fidagarriak eta euskarriak (antolatzaile grafikoak, gidoiak eta txantiloak) erabaki;
 - 3-Ikerketa egin (informazioa hautatu, sailkatu eta antolatu)
 - 4-Sintesia, azalpena eta ondorioak atera
 - 5-komunikazioa (analogikoa eta digitala: poster, txostena...) Adibidea: [Zergatik egiten dute distira ipurtargiek?](#) ("izaki bizidun argidunak" atala)
- **Prozesuzko jarduerak eta produktuak:** Kontzeptuzko mapa, digestio aparatuen maketa, grafikoak, elikate baten eskemak, osasun ohituren dekalogoak, ikerketaren txostena, ekosistemetan desorekaren ondorioei buruzko debateak, mineralen bilduma, ikasitakoaren aurkezpen digitala, [habitat baten diorama](#), [Izaki bizidunen habitaten bideoa egin](#),...
- **Gaien adibideak:** Izaki bizidunen elikateak, gizakiaren bizi funtzioak, aparatuek eta sistemak, energia-iturri berriztagarriak, izaki bizidunen egitura: zelulak, ehunak, organoak, ...

IKERKETA ESPERIMENTALA

- **Jarduera/Ataza:** Ikerketa esperimental txikia egingo dute ikasleek. Prozesua:
 - 1-Galdera edo ikerketaren gaia erabaki eta aurrezagutzak adierazi.
 - 2-Planifikazioa: hipotesiak egin eta esperimentuaren [aldagaiak](#), urratsak eta datuak erregistratzeko moduak erabaki.
 - 3-Esperimentua egin eta [datuak jaso](#).
 - 4-Analisia egin eta emaitzak aztertu.
 - 5-Hipotesia egiaztatu, [konklusioak atera](#) eta [komunikatu](#) (analogikoa eta digitala: poster, txostena...). Adibidea: [Nola sortzen dira eklipseak?](#), [legamien lasterketa](#)...
- **Prozesuzko jarduerak eta produktuak:** [behaketa gidatua](#)ren kontrol orria, ondorioen azalpena egiteko [poster zientifikoa](#), esperimentazio-prozesuaren panela, [datuen grafikoak eta taulak](#), [esperimentuen dossierra](#), prozesuaren bideo grabaketa...
- **Gaien adibideak:** landareen edo animalien hazkundera, materialen ezaugarriak eta argiaren, soinuaren, beroaren, hezetasunaren eta elektrizitatearen aurrean duten portaera, gorputzen masa eta bolumena, landareen zelulak eta ehunen osagaiak, [3,2,1,... nire bihotza!](#) ...

PROZESU TEKNOLOGIKOA

- **Jarduera/Ataza:** objektu teknologikoa/makina/zirkuituak egingo dituzte ikasleek. Prozesua:
 - 1-Egoera-arazoa edo erronka erabaki eta aurrezagutzak adierazi.
 - 2-Eraikitze prozesua jarraituz objektua/makina/zirkuitua egin ([dossierra](#)).
 - 3-Komunikazioa (analogikoa eta digitala: poster, txostena...) Adibidea: [¡Todo se mueve!](#)
- **Prozesuzko jarduerak eta produktuak:** diseinuaren zirriborroa, planoak, prozesuaren dossierra, maketa, makina, zirkuitoaren eskema, ...
- **Gaien adibideak:** zirkuitu elektrikoak, errobotikako elementuekin sortutako egitura soilak,...

GIZARTE ZIENTZIAK

EBALUAZIO ADIERAZLEAK

TRESNAK:

- Helburu jakin batekin jasotako informazioak antolatzen eta aztertzen ditu (laburpenak, inkestak, izaera geografiko eta historikokoak...).
- Arloarekin zerikusia duten eta ahozko eta/edo idatzizko testu errazak ulertu direla erakusten duten edukiak argi eta txukun azaltzen ditu ahoz.
- Bakarka eta taldean lanak egiteko estrategiak erabiltzen ditu.

GURE MUNDUA ETA HAREN KONTSERBAZIOA:

- Unibertsoa zer den eta nola sortu zen deskribatzen du.
- Paraleloak, meridioak eta koordenatu geografikoak identifikatzen eta erabiltzen ditu.
- Klima definitzen du, klimaren elementuen izena esaten du.
- Eguraldiaren eta klimaren arteko desberdintasuna zein den azaltzen du.
- planetako hiru eremu klimatikoen izena esaten du, eta haien ezaugarri nagusiak deskribatzen ditu.
- Mapa batean Euskal Herriko eta Espainiako klima motak ezagutzen ditu.
- Euskal Herriko eta Espainiako erliebe eta isurialde hidrografikoak bereizten ditu.

GIZARTEAN BIZITZEA:

- Konstituzioan ezarritako printzipio demokratikorik garrantzitsuenak identifikatzen ditu.
- Euskal Autonomia Erkidegoa.
- Euskal Herriko, Espainiako eta Europako biztanleria ezagutzen ditu.
- Euskal Herriko, Espainiako eta Europako lehen, bigarren eta hirugarren sektoreen jarduerarik garrantzitsuenak azaltzen ditu.
- Gastu motak bereizten ditu, eta bere aurrekontua gastu mota bakoitzera egokitzen du.

DENBORAREN ARRASTOA:

- Iraganeko gertaerak denboran eta espazioan kokatzeko hainbat teknika erabiltzen ditu.
- Etapa historiko bakoitzeko gertaerarik esanguratsuenen friso historikoa egiten du.
- Euskal Herriko eta Espainiako historiako aroak (Historiaurreak, Antzinaroak, Erdi Aroak, Aro Modernoak eta Aro Garaikideak) ezagutzen ditu.

EDUKIAK

TRESNAK:

- Informazioa ulertzea (konparatzea, sailkatzea, sekuentziatzea, aztertzea eta laburbiltzea). Informazioa balioestea eta adieraztea (argudioak azaltzea, arrazoiak ematea, etab.).
- Ideiak sortu, hautatu eta adieraztea.
- Lortutako emaitzaren berri ematea.
- Taldean ikasteko lanetan laguntzea eta elkarlanean aritzea.

GURE MUNDUA ETA HAREN KONTSERBAZIOA:

- Unibertsoa eta eguzki-sistema: eguzkia eta planetak.
- Kartografia. Eskalak.
- Eguraldia. Neurketa eta iragarpena.
- Planetako klima-eremu handiak.
- Euskal Herriko eta Espainiako klima motak, eta haien eragin-eremuak.
- Euskal Herriko eta Espainiako paisaien aniztasun geografikoa: erliebea eta hidrografia.

GIZARTEAN BIZITZEA:

- 1978ko Konstituzioa. Euskal Autonomia Erkidegoko Autonomia Estatutua.
- Euskal Herriko eta Espainiako biztanleria.
- Europako biztanleria.
- Sektore ekonomikoak eta produkzio-jarduerak.
- Finantza-hezkuntza. Dirua.

DENBORAREN ARRASTOA:

- Historiako aroak: aroak mugatzen dituzten gertaera historiko esanguratsuen iraupena eta datazioa.
- Denboraren lerroak.
- Bilakaera historikoa euskal lurraldeetan.
- Gure ondare historiko eta kulturala.
- Iberiar Penintsula eta Euskal Herria historiaurretik Aro Garaikidera.

TREBEZIAK:

- Pertsonaia historikoren baten biografia Interneten bilatzea.
- Eduki baten inguruan informazioa Interneten bilatu eta hauen aurkezpen txiki bat egin power point edo Genially (<https://www.genial.ly/es>) erabiliz.
- Eduki baten inguruan irakurgai digitala landu eta gero Google inprimaki bat erantzun.

GURE MUNDUA:

UNIBERTSOA ETA EGUZKI SISTEMA

- [Portfolioa egin](#)
- Bideo bat ikusi (Adib: [Unibertsoaren sorrera](#), [Eguzki-sistema](#), [Eguzki-sistema](#)) eta gero [Google inprimakiekin](#) egindako galdetegia bete.
- [Google maps](#)-en hainbat leku bilatu (Adib: Aitxuri, Teide eta Mont Blanc). Taula batean idatzi kokapena: Herrialdea, kontinentea, koordinatuak... Haien arteko antzekotasunak eta desberdintasunak idatzi.
- [Eskalak: Planoak eta mapak](#) bideoa ikusi.
- [Euskal Herriko udalerrien](#) mapa erabilia, erantzun [Google inprimakiekin](#) egindako galdera-sorta bati (ibaiak bilatu, urtegiak, errepide nagusiak, distantziak).

KLIMA

- Hilabeteko/hamabostaldiko/asteko eguraldia jaso taula batean.
Bete ondoren tenperatura eta eurien grafikoa egin (Eredua: [Donostiako klimograma](#)).
- Espainiako bi klima mota desberdinen argazkiak eman ikasle bakoitzari: [Alderatu eta ondorioztatu](#).
Taldea txikietan bideokonferentziaz egindako lana kideei. (Aniztasuna kontuan hartu bai argazkiak aukeratzeko garaian, bai taldeak egiterakoan). Ikaskide baten ebaluazioa egin ([Ahozko aurkezpenaren koebaluazioa](#)). [Munduko eremu klimatikoak](#).

GIZARTEAN BIZITZEA:

KONSTITUZIOA, EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOA

- Ikasle bakoitzak aukeratu printzipio demokratiko bat: Partekatutako dokumentu batean idatzi ([Google docs](#), [Padlet](#), [Trello](#),...). Azaldu esanahia eta justifikatu hautua.
- "[Lan sektoreak](#)" bideoa ikusi. Ondoren idatzi: Zer gertatuko litzateke 1. sektoreko langilerik ez balego? Adibide bat jarri. (beste talde batek lan bera 2. sektorearekin eta beste batek 3. arekin). Bideokonferentzia batean ikasle bakoitzak bere adibidea azalduko du.
- Jasotako informazioarekin buru mapa bat egin: sektoreak, lanbideak eta haien garrantzia. (Jakiteko nola egin: [Buru mapa](#))
- Ikasleek sektoreen grafiko bat egiten dute. Biztanleriaren piramidea egiten dugu.
- Deskribatu txanpon eta euro-billete ezberdinen balioa.
- Interneten bilatu balioaren eta prezioaren arteko aldeari buruzko informazioa.
- Taula batean, bi zutabeetan, etxeko gastu eta diru-sarrerak.

IRAGANEKO GERTAERAK, HISTORIAO:

- Denbora lerroa egin on-line: [Visme](#), [Timeline](#), [Tiki-Toki](#)
- Historiako aro bat aukeratu, orduko Euskal Herriko eta Espainiako gertaerak azaldu PPT batean, ikaskideen aurrean azaldu. [PPT aurkezpenaren ebaluazioa](#)
- Mapa kontzeptual batean, garai historiko batetik bestera igarotzea markatzen duten urteak eta gertaerak jasotzea.

GORPUTZ HEZKUNTZA

EBALUAZIO ADIERAZLEAK

- Egoera berrietara egokitzen ditu bere trebetasunak.
- Espazioan orientatzen da , erreferentzia puntuak oinarri hartuta.
- Objektuak behar bezala erabiltzen ditu jolasetan.
- Oinarrizko mugimendu trebetasunak, kirola egiten hasteko erabiltzen ditu.
- Jolasetan, ikaskideei laguntzen die.
- Joko arauak ezagutu eta onartzen ditu.
- Garbi jokatzeko du beti jardueretan
- Esfortzua neurtzen du jarduera fisikoa egitean.
- Erlaxatzeko gai da arnasketa egokia erabiliz.
- Dantza errazak egiten ditu.
- Eguneroko egoera ezberdinak komunikatzeko eta antzezteko gai da.
- Jarduera fisikoa egiteko prest dago.
- Arriskuak saihesten ditu jarduera fisikoa egitean.
- Ingurunea zaindu eta errespetatzen du.
- Ezagutzen ditu euskal kulturako kirol, dantza eta jolas desberdinak.

EDUKIAK

- Lekualdaketak eta saltoak inguru ezberdinetan.
- Pilotak edo beste tresna higikor batzuen jaurtiketak, paseak eta harrerak kontrola galdu gabe.
- Era koordinatuan eta lankidetzan jarduerak, helburuak lortzeko edo taldeko jolas batean aurkari bati edo batzuei aurre egiteko.
- Jolasak eta talde jarduerak egitean, egiten diren funtsezko harremanak baloratzea.
- Gatazka egoerei dagokionez, iritzi koherentea eta kritikoa lantzea.
- Jarrera aktiboa, egoera fisikoa hobetzeko; nor bere aukeren eta mugen araberako egokitzapena.
- Taldeko konposizioak ikaskideekin elkarrekintzan, gorputz-adierazpeneko baliabideak erabiliz.
- Jarduera fisikoen garapena, behar bezala eta sarritan, osasuna hobetzearekin dituen zenbait lotura ezagutzuz.
- Tradizio ludikoak eta kirol tradizioak. Euskal kulturako balioak.

LH 5_ GORPUTZ HEZKUNTZA

JUST DANCE

- Aurreko saioan ikasleei beraien gustuko Just Dance bideoak bidaltzeko eskatzen zaie. Zozketa bitartez dantza batzuk aukeratzeko dira eta horiek dantzatzeko dute elkarrekin. (Mozorrotuta joateko aukera izango dute).

Baliabideak: [Bideoak](#) eta Hangouts.

Ebaluazio tresnak : [zuzeneko behaketa](#) eta [autoebaluazioa](#).



BAIETZ LORTU!

- Erronka ezberdin batzuk proposatzen dira:
 1. Komuneko papel rollo batekin 10 oin ikutu egin erori gabe, [bideoan](#) ikusten den bezala.
 2. Erratza hartu bi eskuekin eta eskuetatik solta gabe [bideoak](#) eskatzen duen modura egin.

Baliabideak: Aipatutako bideoak, komuneko papel rolloak eta erratza.

- Erronka ezberdinen bideo bat grabatu eta bidali irakasleari.

Ebaluazio tresnak : Behaketa [errubrika](#) eta [autoebaluazioa](#).

YOGA SAIOA

- Irakaslearekin batera gorputz arnasketa eta erlaxazioa lantzeko Yoga postura ezberdinak landuko dira.

Baliabideak: [Bideoa](#) eta Hangouts.

Ebaluazio tresnak : [zuzeneko behaketa](#) eta [autoebaluazioa](#).

BODY COMBAT.

- Musika eta borroka keinu ezberdinak erabiliz koreografia aerobikoak egiten dira taldean.

Baliabideak: [Bideoa](#) (beroketa eta ekintza).

- Argazkiak atera eta google fotos aplikazioaren bitartez collage bat edo bideo animazioa egin eta irakasleari bidali.

Ebaluazio tresnak : [autoebaluazioa](#)

AFRIKAKO DANTZAK IKASTEN

- Bi bideo hauei jarraituz ikasleek Afrikako dantzen zenbait pausu ikasiko dute.

Baliabideak: Erlojuaren gainean [bideoa](#), dantza baten [bideoa](#) eta Hangouts.

Ebaluazio tresnak : [zuzeneko behaketa](#) eta [autoebaluazioa](#).

ARTE HEZKUNTZA: MUSIKA-ARTE/PLASTIKO ETA BISUALA

EBALUAZIO ADIERAZLEAK

- Hitzez eta idatziz adierazten ditu arte-ekoizpen bisual eta musikal askotarikoek sorrarazten dizkioten emozioak eta sentimenduak.
- Teknologia-oinarria duten bitarteko askotarikoak erabiltzen ditu adierazpenerako eta komunikaziorako.
- Musika sortu eta interpretatzean, musika-notazioaren oinarriko elementuak erabiltzen ditu erritmo- eta melodia-eskema xumeak irakurtzeko.
- Kalitatezko interpretazioak egiten saiatzen da musika egin, ahotsa eta musika-tresnak erabili eta gorputz-adierazpena lantzean.
- Musika-konposizio eta obra bisual eta plastikoetan erabili diren teknikak aztertzen ditu, eta moldatu egiten ditu bere sortze-lanean
- Musika-errepertorio propio bat izateko interesa erakusten du.
- Pieza laburrak inprobisatzen ditu irudien, soinuen, ideien, kontakizunen eta bestelako estimuluaren bultzadaz.
- Obren sorrerako baldintzen eta testuinguruen gaineko informazioa bilatzen eta antolatzen du.
- Komunikabideek erabilitako irudiek eta musikak igorritako mezuen helburuak identifikatzen ditu.
- Arte-jardueretan lankidetzak eta ekarpen indibidualek duten garrantziaz ohartzen da eta haien beharrez baliatzen du.

EDUKIAK

MUSIKA

- Musika hizkuntzaren oinarriko elementuak barneratzea.
- Musika hizkuntza: oinarriko partitura konbentzionalak irakurtzea.
- Teknika bokalaren kalitate espresiboa garatzea, kantua interpretatuz, taldeari atxikiz eta intonazioa eta erritmoa errespetatuz.
- Orff instrumentariumerako instrumentazio xumeak interpretatzea.
- Abestiak, kanonak eta pieza instrumental errazak interpretatzea eta buruz ikastea.
- Ahotsa eta gorputza adierazpen eta komunikazio bide bezala erabiltzea.
- Zenbait objekturen soinu aukerak. Material birziklatuez instrumentuak egitea.
- Ahotsa, gorputza eta musika-tresnak zaintzeko ohiturak hartzea.
- Estilo, konpositore, garai eta kultura askotako musika-obrak balioestea eta haiek entzunez gozatzea
- Teknologia berriak modu seguru eta arduratsuan erabiltzeko behar diren oinarriko gaitasunak eskuratzea.

ARTE PLASTIKO ETA BISUALA

- Irudiak eta objektuak berregitea, ideiak eta sentimenduak adierazteko, eraldatze grafikoaren eta plastikoaren bidez.
- Teknika mistoak erabiltzea obrak sortu eta ideiak eta sentimenduak adierazteko.
- Teknologia-euskarriak erabiltzea arte-sorkuntzan.
- Informazioaren eta komunikazioaren teknologiak erabiltzea irudiak bilatzeko, irudien gaineko dokumentazioa biltzeko eta egindako lanak zabaltzeko.

LH 5 ARTE HEZKUNTZA

BINGO MUSIKATUA

Bingo musikatua euskal kantekin:

<https://drive.google.com/drive/u/0/folders/1KpfyirFuOxweKv6sEsLLixu30uVJfaBX>

1				2			
BINGO MUSIKATUA				BINGO MUSIKATUA			
10	11	28		10	8	8	
24		15	2	31	26	14	6
22	6	3	10	17	10		12
12		19	23	9		27	20

3				4			
BINGO MUSIKATUA				BINGO MUSIKATUA			
9		29	24	15	29	12	9
8	14	14	24	-	10	10	9
-	21	8	26	22		16	29
10	14	6		2		28	24

“CADAVER EXQUISITO” TEKNIKAZ MARRAZTEN

“Cadaver exquisito” teknikaz marraztea familiarekin:

Marrazki berezi hau egin ahal izateko, familiakide bat eta bi gauza soilik beharko dituzu: arkatza eta orri bat.

Jarduera hasteko papera, akordeoi bat bailitzan bezala tolestatu beharko duzu 4 edo 5 zati berdinetan.

Jarduera bikoteko batek hasiko du akordeoiaren lehen azalean nahi duen marrazki bat eginez, baina kontuz, bi baldintza bete beharko dira marrazkia egin bitartean: bat, besteak ezin izango du ikusi eta bi, egindako marrazkiaren zati edo marrarenbat hurrengo akordeoiaren azalera pasatu beharko da.

Lehenengo marrazkilariak marrazkia bukatutzat ematean, egindako azala tolestatu eta hurrengo azalean utzitako marren zatia emango zaio bikoteari marretatik jarraiki bere marrazkia sortu dezan.

Marratzkia, orriaren 4 edo 5 azalak betetzen dituzuenean amaituko da. Orduan, orria erabat ireki eta bion artean sortutako marrazkia ikusi eta margotu ahal izango duzue!

<https://culturainquieta.com/es/inspiring/item/11402-el-cadaver-exquisito-un-juego-creativo-que-revela-el-inconsciente-grupal.html>

ABESTIA IKASITA EGOKI ABESTU. ANAI XANTI

Ahalegindu partitura notekin abesten.

Anai Xanti

Tsirula
J=110

9

Partitura honetan agerten diren zati berdinak aurkitu ditzakezu? Marra bat eginez banatu partitura hau lau zatitan. Adibidez:

KONPETENTZIA DIGITALA

LH5

EBALUAZIO ADIERAZLEAK

- Bilaketa aurreratuak egiten ditu, hitz bat baino gehiago erabiliz.
- Aurkitzen duen informazioa markadoreak erabiliz antolatzen du.
- Posta elektronikoa mezuei edozein motako fitxategia eransteko erabiltzen du.
- Bideokonferentziaren erabilera ezagutzen du eta oinarriko netiketa arauak aintzat hartzen ditu.
- Ereduari jarraituz, galdetegi bat sortu eta jasotako informazioa aurkezten du.
- Lan-atazak (informazioa, dokumentuak, aurkezpenak, galdeketa) taldekideekin partekatu eta elkarlanean aritzen da ikasgune birtualean.
- Copyrigh eta copyleft kontzeptuak bereizten ditu.
- Bere nortasun digitalari buruzko hausnarketa egiten du.

EDUKIAK

- Bilaketa aurreratuak eta fidagarriak egitea.
- Informazioa antolatzea.
- Posta elektronikoa estekak partekatzea.
- Komunikazio kanal ezberdinak ezagutzea.
- Oinarriko netiketa arauak ezagutzea.
- Edukiak sortzeko erreminta ezberdinak erabiltzea: galdetegiak eta aurkezpenak.
- Ikasgune birtuala ezagutzea.
- Copyrigh eta copyleft kontzeptuak ezagutzea.
- Nortasun digitala babestea.

IKASKUNTZAREN AUTOERREGULAZIOA

EBALUAZIO ADIERAZLEAK

- Bere lana planifikatzeko gai da.
- Bere lanaren hobetze prozesua modu jarraituan eta amaieran burutzen ditu.
- Zereginetan modu arduratsuan jarduten da, ahalik eta emaitzarik onenaren bila.
- Informazio iturri ezberdinak erabiltzen ditu beharrezko arabera (galdetzea, liburuetara jotzea, interneta...)
- Ikasteko eta sakontzeko estrategiak eraginkortasuna dutela jabetu da (berrirakurtzea, aztertzea, sakontasun gehiagoz behatzea ...)
- Bere ezagutza aprobetxatzen ikasten ari da jakintza sakontasun gehiagoz menperatzeko.
- Lanerako jarrera baikorra azaltzen du, eta zailtasunen kudeaketan frustrazioa egoerak ulertzen ditu.
- Bere kolaborazio eta interakzioek eraginkortasuna dute.

EDUKIAK

- Zereginen planifikazioa (espazioen prestaketa, materialen prestaketa, denboraren kudeaketa ...)
- Lanaren garapena
- Iturri ezberdinen kontsulta.
- Ikasteko estrategiak
- Metakognizioa.
- Kolaborazioa eta kooperazioa

MATEMATIKA

EBALUAZIO ADIERAZLEAK

I. Eduki komunak

A. Arlo eta ikasgai guztietan komunak diren oinarrizko zehar-kompetentziekin lotutako edukiak: talde-lanean eragikor eta sortzailea kudeatzen du informazioa eta emaitzak komunikatzen ditu.

B. Ikasgai honetako multzo guztien eduki komunak: problemak ebazten ditu hainbat estrategiek eta laguntzaile matematikoez baliaturik.

ZENBAKIKUNTZA:

- Zenbakiak irakurri eta erabiltzen ditu bederatzi zifra arte
- Berreketak ulertzen ditu eta m.k.t. eta z.k.h. erabili testuinguruetan.
- Zenbaki oso, hamartar eta zatikiearren arteko erlazioak ezagutzen ditu eta estimazioak eta hurbilketak egiten behar denean.

PROBLEMAK:

- Hiru eragiketako problemak ebazten ditu, testuinguruetan, hainbat zenbaki motakin.
- Zenbaki hamartar eta zatikiarrak erabiltzen ditu testuinguruetan.
- Zenbaki hamartar eta zatikiarrekin buruzko kalkulu oinarrizkoak burutzen ditu.
- Zenbaki hamartar eta zatikiarrak erabiltzen problemak ebazteko estrategia desberdinak erabiltzendentu.

MAGNITUDEAK:

- Magnitudeak: pisua, distantzia, dirua, edukia, bolumena... erabiltzen ditu testuinguruetan eta batetik bestera pasatzen ditu.

GEOMETRIA:

- Poligono eta angelu errazak ezagutu eta deskribatzen ditu.
- Triangeluak ezagutu eta sailkatzen ditu.
- Gorputz geometriko errazak ezagutu eta deskribatzen ditu.

PROBABILITATEA: KONTZEPTOAK ETA BATEZBESTEKOA.

- Datuak bildu, tauletan antola eta grafikoetan adierazten ditu.
- Aldagai estatistikoak: maiztasunak, batezbestekoa, moda, mediana eta heina erabiltzendentu datuen azterketarako eta problemak testuinguruetan ebazteko

EDUKIAK

I. Eduki komunak

A. Arlo eta ikasgai guztietan komunak diren oinarrizko zehar-kompetentziekin lotutako edukiak: informazioen kudeaketa, plangintzak egin eta bete, lanen emaitzak komunikatzea, talde-lanean aritza motibazioaz eta gatazkak kudeatzea autoerregulazioatik.

B. Ikasgai honetako multzo guztien eduki komunak: problemen ebazpena, modelizazioa eta laguntzaile matematikoen erabilera.

ZENBAKIKUNTZA:

- Bederatzi zifrako zenbakiak. Berreketak eta erro karratuak.
- Karratua, Kuboa, 10en berreketak. m.k.t. eta z.k.h.. Zatiagarritasuna.
- Zatikiak eta zenbaki mixtoak. konparaketa eta eragiketak (+, -, *, :)
- Hamartarren arteko eragiketak. Estimazioak. Hurbilketak.
- Proporzionaltasuna. Eskala: planoak eta mapak.

PROBLEMAK:

- Hiru eragiketako, portzentaietako eta hamartarren problemak.
- Magnitudeetako egoerak: luzera, edukiera, pisua, dirua, denbora...
- Buruzko kalkulua +, -, x, : Hamartarrekin eta zatikiarrekin hasi.
- Problemen ebazpenerako estrategiak: adierazi grafikoki, sinpleetatik hasi, ebatzita imaginatu, indukzio eta dedukziori hurbilketa.

MAGNITUDEAK:

- Edukiera, luzera, zabalera, bolumena, pisua eta denbora neurriak.
- Azalera: metro karratua. Bolumena: metro kubikoa.

GEOMETRIA:

- Angeluak.. Erdibitzailea. Erdikaria. Eragiketak. Osa eta betegarriak.
- Triangeluen sailkapena: oinarria eta altuera. Angeluen batura.
- Zuzen eta zirkunferentziaren arteko kokapenak.
- Figura planoen eta konposatuen azalerak. Gorputzen bolumenak.
- Gorputz geometrikoak: Poliedroak. Kuboaren bolumena.

PROBABILITATEA: KONTZEPTOAK ETA BATEZBESTEKOA.

- Datuak bildu, tauletan antola, maiztasunak eta grafikoetan adierazi.
- Aldagai estatistikoak: batezbestekoa, moda, mediana eta heina.

Matematika - LH - 6. maila-rako jarduerak

Ebidentziak: ebaluazio-prozedurak eta -tresnak

[Matematika koronabirus garaietan](https://labur.eus/matecovid19): <https://labur.eus/matecovid19>

[Etxean ikasten Matematika](https://labur.eus/etikmate): <https://labur.eus/etikmate>

[Etxetik irakatsi](https://labur.eus/etxetikirakatsi): <https://labur.eus/etxetikirakatsi>

[Flipped classroom](https://labur.eus/flipped): <https://labur.eus/flipped>

Eduki komunak

A. Arlo guztietan komunak diren oinarritzko zehar-konpetentziekin lotutako edukiak: [Arazo-egoerak eta](#)

[Unitate didaktikoak](https://labur.eus/AE-UD) <https://labur.eus/AE-UD>

B. Matematikarako eduki komunak: [Problemak](https://labur.eus/probh) <https://labur.eus/probh>

ZENBAKIKUNTZA:

Zenbakiak irakurri eta erabiltzeko jarduerak; [Thatquiz Osoak Berreketak](#)

<https://labur.eus/tqosbe>; [ThatQuiz Zatikiak konparatu](#): <https://labur.eus/tqzako>

PROBLEMAK:

[PhET Zatiketak: sarrera](#): <https://labur.eus/phzasa>; [PhET Zatikiak zenbaki nahasiak](#):

<https://labur.eus/phzzn>; [PhET Parekatu zatikiak](#): <https://labur.eus/phpaza>; [PhET Zatikiak](#):

[baliokideak](https://labur.eus/phzaba): <https://labur.eus/phzaba>

MAGNITUDEAK:

[ThatQuiz Kontzeptuak Denbora](#): <https://labur.eus/thkode>; [ThatQuiz Kontzeptuak Dirua](#):

<https://labur.eus/tqkodi>; [ThatQuiz Kontzeptuak Neurria](#): <https://labur.eus/tqkone>

GEOMETRIA:

[ThatQuiz Geometria Angeluak](#): <https://labur.eus/tqpoan>; [ThatQuiz Geometria Triangeluak](#):

<https://labur.eus/tqgetr>; [ThatQuiz Geometria Geometria](#): <https://labur.eus/tqgege>

PROBABILITATEA: KONTZEPTUA ETA BATEZ BESTEKOA.

- [ThatQuiz Kontzeptuak Grafikoak](#): <https://labur.eus/tqkogr>

- [ThatQuiz Zatikiak Batezbestekoa](#): <https://labur.eus/tqzaba>

Adibideak

I. Eduki komunak

A. *Ikasgai guztietan komunak diren oinarritzko zehar-konpetentziekin lotutako edukiak*: (AA-EE): [Eiffel](#)

[dorrea eta 13 az](#), [La torre Eiffel y el 13 N](#); UUDD: [Geomaleta](#), [Freskagarriak](#), [Solstizioak](#), [La Geomaleta](#),

[GPS](#), [¡Todo se mueve!](#), [ARTEmaticaMENTE](#), [Cuentos matemáticos interactivos](#)

B. Matematikarako eduki komunak: [Problemak](https://labur.eus/prolh) <https://labur.eus/prolh>

ZENBAKIKUNTZA:

- <https://youtu.be/9lb7oKyRZVY>

- <https://www.thatquiz.org/eu-2/?-j1ggp-l6-mpnv600-p0>

- <https://www.thatquiz.org/eu-B/?-j1v-lc-mpnv600-p0>

PROBLEMAK:

[PhET Zatiketak: sarrera](#): <https://labur.eus/phzasa>; [PhET Zatikiak zenbaki nahasiak](#):

<https://labur.eus/phzzn>; [PhET Parekatu zatikiak](#): <https://labur.eus/phpaza>; [PhET Zatikiak](#):

[baliokideak](https://labur.eus/phzaba): <https://labur.eus/phzaba>

MAGNITUDEAK:

- <https://www.thatquiz.org/eu-g/?-j4-l4-mpnv600-p0>

- <https://www.thatquiz.org/eu-a/?-jo-la-mpnv600-p0>

- <https://www.thatquiz.org/eu-9/?-j1-l3-mpnv600-p0>

GEOMETRIA:

- <https://www.thatquiz.org/eu-C/?-jf-l3-mpnv600-p0>

- <https://www.thatquiz.org/eu-A/?-j37-la-mpnv600-nk-p0>

- <https://www.thatquiz.org/eu-4/?-jl3ala-lc-mpnv600-p0>

PROBABILITATEA: KONTZEPTUA ETA BATEZ BESTEKOA.

- <https://www.thatquiz.org/eu-5/?-j5042l-l3-mpnv600-p0>

- <https://www.thatquiz.org/eu-p-z1/?-j7p00-l6-mpnv600-p0>

HIZKUNTZAK (EUSKARA/GAZTELANIA)

LH6

EBALUAZIO ADIERAZLEAK

ENTZUMENA eta IRAKURMENA

- Ahozko eta idatzizko testuak ulertzen eta interpretatzen ditu: testuaren xedea eta generoa identifikatu, igorlearen asmoa zehaztu, inferentziak egin, ideia nagusiak eta bigarren mailakoak bereizi, zentzu orokorra eta informazio pertinentea hautatzen du.
- Iritziak eta informazio objektiboak bereizten ditu.
- Informazioa erregistratzeko baliabideak erabiltzen ditu: fitxak, taulak, kontzeptu mapak, eskemak, laburpenak..
- Ondo uztartzen ditu testuen ulermen prozesuan elementu grafiko eta ikonikoak.
- Testuak ozenki irakurtzen ditu ahoskera, erritmo, intonazio eta adierazpen egokiaz.

AHOZKO ELKARREKINTZA

- Solasaldietan aktiboki parte hartzen du eta komunikazio-trukearen oinarrizko arauak errespetatzen ditu: oso adi entzuten die solaskideei, eta haiek esandakoari estu lotuta hitz egiten du, besteen iritziak errespetatzen ditu, proposamenaren bat egiten du.
- Euskara erabiltzearen aldeko jarrera asertiboa eta enpatikoa du.

MINTZAMENA ETA IDAZMENA

- Ahozko eta idatzizko testuak era autonomoan sortzen ditu: komunikazio egoeraren elementuak kontuan hartuz, ideien ordena eta koherentzia mantenduz, paragrafoa erabiliz, landutako hiztegia eta gaiaren ingurukoa erabiliz, gelan landutako hizkuntza baliabide anitzak zuzen erabiliz.
- Testu idatziak paperean edo formatu digitalean ekoizten ditu, paragrafoak eta marjinak errespetatuz eta oinarrizko kohesio-elementuak (lokailuak, sinonimoak...) eta arau morfosintaktikoak.
- Ahozko eta idatzizko testuak ekoizteko prozedura erabiltzen du: planifikazioa, testuratzeta eta zuzenketa. Kontrol-orriak eta auto-ebaluazio eta ko-ebaluazio estrategiak baliatzen ditu. Ahoskera, intonazioa, gorputz-jarrera eta keinu egokiak erabiltzen ditu ahozko aurkezpenetan. Testuak ekoizteko ahozko eta idatzizko testuetan hizkuntza-sistemaren arauak baliatzen ditu testuak hobetzeko. Zenbait kalko identifikatu eta zuzentzen ditu.
- Bere ikaskuntzaz gogoeta egiten du, eta ikasteko-gaitasunean konfiantza du.

EDUKIAK

ENTZUMENA eta IRAKURKETA

- Erabilera eremu eta genero askotariko (literatura ere barne) ahozko eta idatzizko testuak bai analogikoak bai digitalak lantzeko proposamenak egitea. .
- Testuak ulertzeko estrategiak lantzea: aurretik-bitartean eta ondoren; izenburua, elementu paratestualak, hitz gakoak, sinonimoak eta antonimoak, bigarren irakurketa, azpimarratzea, antolatzaileak identifikatzea, inferentziak...
- Literatura-testuak irakurri eta edukia bizipenekin lotzea, bai eta zenbait ezaugarri eta baliabide orokor identifikatzea.
- Irakurzaletasuna indartzeko jarduerak proposatzea eta denbora eskaintzea: haiek aukeratutako liburuak, liburutegikoak, gelakoak...
- Olerkiak, bertsoak eta narrazioak dramatizatzea-errezitatzea, ahoskera eta erritmoa-jarriotasuna zainduz.
- Irakurketa adierazkorra lantzea.

AHOZKO ELKARREKINTZA

- Irakurritako literatura testuei eta taldekideen intereseko gaiari buruzko solasaldiak-debateak proposatzea eta ideiak, gertaerak, bizipenak, sentimenduak eta iritziak partekatzea.
- Solasaldi eraginkorretarako hainbat estrategia lantzea eta erabiltzea.

MINTZAMENA ETA IDAZMENA

- Askotariko ahozko eta idatzizko testuak ekoiztea, paperean edo euskarri digitalean, planifikazioa, testuratzeta eta berrikusketa kontuan harturik:
- Testuaren edukia antolatzeko tresnak eta teknikak lantzea: informazioa jaso, laburtu eta antolatu (eskemak eta gidoiak egitea ...)
- Literatura-testuen erreseinak egitea.
- Testuak idazteko prozesuan testu-generoei eta hizkuntza sistemari lotutako alderdiak lantzea:
 - a. Hainbat iturritako informazioa bilatu eta hautatzea.
 - b. Paragrafoak eta kohesio-elementuak: oinarrizko lokailuak, sinonimoak...
 - c. Oinarrizko arau morfosintaktiko eta ortografikoak baliatzea
 - d. Arau ortotipografikoak kontuan hartzea: marjinak...
 - e. Kalko okerrak identifikatu eta zuzentzea.

***Ahozko eta idatzizko testu generoak:** poemak, bertso, abestiak, elkarrizketak, debateak, eztabaidak, ipuina, narrazioak, erreportajeak, albisteak, foroetako mezuak, mikroipuak, komikiak, erreseinak, jarraibideak, aurkezpenak, iruzkinak, deskribapenak, azalpenak, esperimenduak, iritzia, biografiak, definizioak eta laburpenak...

LH6 EUSKERA ETAGAZTELANIA

NIRE IZENAREN HISTORIA

Ikerketa txikia egingo dute ikasleek: gurasoek zergatik aukeratu zuten bere izena, izenaren jatorria... Etxekoen izenen historia ere sortuko dute eta albuma egin.

[Jardueren deskripzioa](#)

OLERKIAK MODU ADIERAZKORREAN IRAKURRI

Olerkiak aukeratu, testuaren esanahiaz jabetu eta boz gorako irakurketan trebatuko dira ikasleak. Hautatutako olerkien grabazioak egin eta gelakoen albuma sortuko dute drivean.

Baliabideak: [Josean Ormazabalaren olerkiak](#), [Basque Poetry](#), [poesi.as](#), [Boz-gorako irakurketarako aholkuak](#)

GUSTUKO NARRAZIOAREN AMAIERA ALDATZEA

Proposamen honetan, narrazio laburrak irakurri edo entzungo dituzte ikasleek (Etxegiroan, Aittu...). Gogoko duten bat aukeratu, justifikatu egingo dute hautaketaren zergatia eta amaiera aldatuko diote. [Jardueraren deskripzioa](#)

ORTOGRAFIAREKIN JOLASTEN

Etxean gaudela asko idatzi behar izaten dugu eta, sarritan, ez dugu astirik izaten testuak zuzentzeko. Zer gertatuko litzateke gaizki idatzitako hitz batek bere esanahi propioa hartuko balu?

- Ikasleei proposatu maiz egiten dituzten ortografia akatsak identifikatzeko
- Zuzentzaile ortografikoa erabiltzen trebatu.
- Gaizki idatzitako hitzak aukeratu eta esanahi berria emango diete.
- Hitz berriak definitu eta irudi batekin ilustratu esanahia (Irudiak bilatzeko: Flickr, Pixabay). Hitza, irudia eta esanahiaren albuma sortuko dute

ETXEAN GAUZA ASKO ALDATU DIRA/ZIREN KORONABIRUSAGATIK

Koronabirusa dela eta, familiak elkarrekin daude eta espazioaren erabileran aldaketak gertatu dira. Kazetari bihurtuta etxeko espazioen erabilerekin eta antolaketa berriaz jardungo dute ikasleek. Modu askotan garatu daiteke: bideoa prestatu dezakete, Azalpen testu moduan aurkeztu dezakete. argazkiak, argazki oinak azalduta: Lehen eta orain edo iritzia ere eman dezakete. [Jardueren deskripzioa](#)

MITOLOGIA LANTZEN BADUGU?

Bi jarduera desberdin, baina antzeko egitura dutenak, proposatu daitezke: Elezahar baten kontaketa eta pertsonaia mitologiko baten izaerari buruzko azalpena. Euskaraz nahiz gaztelaniaz egin daiteke. Horretarako, lagungarri izan daitezkeen [jarraibideak eta prestaketa ongi antolatzen txantiloiak](#) daude eskuragarri.

ATZERRIKO HIZKUNTZA

EBALUAZIO ADIERAZLEAK

- Gai da modu gidatuan irakasle eta kideekin komunikatzeko ahozko testuak sortzeko, eta landutako ahoskera-, erritmo-eta azentuazio-ereduak erreproduzitzeko.
 - Grafiaren eta ahoskeraren arteko egokitasun ezaz konturatzen da.
 - Gai da laguntzarekin, entzuketan informazio esplizitua eta inplizitua antzemateko eta proposatutako helburuei erantzuteko beharrezko informazioa hautatzeko.
 - Ahoz landutako egitura eta hitzak identifikatzen ditu. Laguntzarekin komunikazio-trukeetan modu aktibo eta egokian parte hartzen du, komunikazio arauak erreparatuz, eta oinarrizko komunikazio-funtzioak erabiltzen saiatzen da.
- Gai da aurretik landutako testuen informazio
- esplizitua eta inplizitua antzemateko eta proposatutako helburuei erantzuteko garrantzizko informazioa hautatzeko.
- Testuak ulertzeko eta idazteko estrategiak modu
- gidatuan erabiltzen hasi da.
- Ereduak erabiliz eta laguntzarekin, testu laburrak
- idazten ditu.
- Landutako hizkuntza-ezagupenak erabiltzen ditu.
- Atzerriko hizkuntza erabiltzeko interesa adierazten du.

EDUKIAK

MINTZAMENA

- Ahozko testu labur eta errazak era gidatuan sortzea, irakasle eta kideekin komunikatzeko.
- Landutako ahoskera-, erritmo-eta azentuazioa erreproduzitzea.
- Grafiaren eta ahoskeraren arteko egokitasun ezaz konturatzea.

ENTZUMENA

- Laguntzarekin, adinari egokitutako testuen informazio esplizitua eta inplizitua antzematea eta proposatutako helburuei erantzuteko garrantzizko informazioa hautatzea.

AHOZKO ELKARREKINTZA

- Ahozko solasaldietan parte hartzea, gai akademiko eta pertsonalei buruz, komunikazio arauak errespetatuz.
- Oinarrizko komunikazio-funtzioak erabiltzen saiatzen da: laguntza eskatzea eta ematea, baimena eskatzea, gustuak adieraztea,...

IRAKURRIAREN ULERMENA

- Adinari egokitutako testuen informazio espezifiko edo orokor esplizitua edo inplizitua ulertzea eta proposatutako helburuei erantzuteko beharrezko informazioa hautatzea.
- Oinarrizko komunikazio-funtzioen testuak ulertzea: eskerrak ematea, iritzi eta laguntza eskatzea,...
- Testuak ulertzeko estrategiak modu gidatuan erabiltzen hastea.

IDAZMENA

- Ereduak erabiliz, eta laguntzarekin, testu soilak sortzea: narrazioak, deskripzioak, folletoak,...
- Testuak idazteko estrategiak modu gidatuan erabiltzen hastea.

**Hizkuntza-ezagupenei dagokienez, hauek landu ahal dira: chores, environment, tourism and travel, adjectives jobs, extreme weather, giving directions, sports, technology, countries, nationalities and language, the natural world, city places, health, celebrations and festivals, cardinal numbers 1- millions. Verb Tenses (Present with Frequency adverbs, Past and Future (going to)).

YEAR 6

Coronavirus Decalogue

In this activity, students will realize they can do a lot to keep themselves and others safe. They will be asked to communicate good health behaviours in this coronavirus-provoked new situation, such as covering coughs and sneezes with the elbow and washing hands and share healthy behaviours with their teachers. They will write a decalogue with 10 instructions about “Do’s and don’t’s” to avoid infection.

Resources: www.gennial.ly

Humour.

Humour is essential and our students can learn a lot by reading some and writing others they know of. Provide students with some jokes and ask them to think of a joke they would like to send to their new European friends. This text type is a good opportunity to ask students to include a dialogue because dialogues are included in lots of jokes.

Resources: [Handout on jokes](#)

Mystery Breakout

In this unit students will have to solve different missions by answering different types of questions.

Resources: [Website](#)

Good Energy flow

In this unit students watch the video and fill the activities of the worksheet. Finally students can create their energy flow and record themselves a video with the moves and send it to the teacher or school friends, blog, etc.

Resources: [Video](#), [Worksheet student](#), [Worksheet teacher](#). [jump](#)

eTwinning: Young Entrepreneurs

Why not start an eTwinning project? eTwinning offers a platform for teachers to communicate, collaborate, develop projects, share and, in short, feel and be part of the most exciting learning community in Europe. If you register in this European Council platform, you can start networking with other European colleagues and have your students collaborating on innovative projects with students from all over Europe.

Resources: www.etwinning.net , www.etwinning.es, [kit](#)

NATURAREN ZIENTZIAK

EBALUAZIO ADIERAZLEAK

- Problema ebazteko hipotesi egiaztagarriak egiten ditu.
- Eragindako egoera edo fenomeno aztertzen du.
- Lan zientifikoa ordenaz eta argi antolatzen du.
- Laborategiko oinarrizko materiala ezagutzen ditu. Esperimentuetako datuak bildu, antolatu eta interpretatzen ditu, zenbait baliabide erabiliz: taulak, grafikoak, kontzeptuzko mapak ...
- Azalpen arrazoituak ematen ditu, hipotesia egiaztatzen dela edo ez dela egiaztatzen adierazteko.
- Ikerketaren emaitzak jakinarazten ditu eta txostenak egiten ditu, zenbait bitarteko eta euskarri analogiko eta/edo digital erabiliz.
- Gizakiaren bizi-funtzioetan parte hartzen duten organo, aparatu eta sistema nagusiak kokatzen ditu eta zer lotura duten elkarren artean deskribatzen ditu.
- Badaki zein diren gizakiaren ongizaterako eta gaixotasunen prebentziorako ohitura osasungarriak
- Badaki zer eginkizun duten txertoek gaixotasunen prebentziorako, eta txertoak erabiltzea egokia den ala ez adierazten du, argudioak emanez.
- Izaki bizidunen arteko erlazioak azaltzen ditu eta haien egiturak, oinarrizko ezaugarriak, funtzioak eta habitatak aztertzen ditu.
- Ikerketa batean, nahaste baten osagaiak banatzeko prozedurak erabiltzen ditu: distilazioa, iragazketa, lurrunketa, etab.
- Benetako egoera batean, errektuntzan, oxidazioan eta hartziduran gertatzen diren erreakzio kimikoak deskribatzen eta aztertzen ditu.
- Zenbait egoera-aldaketa eta haien itzulgarritasuna identifikatzen, esperimendatzen eta argudiatzen ditu.
- Energiaren erabilerak dakartzan onurak eta arriskuak azaltzen ditu.
- Zirkuitu elektriko soilak edo hezkuntza-helburuko robotikako elementuak dituzten egitura soilak diseinatu, planifikatu eta eraikitzen ditu.
- Proiektu errazetan ingurune grafiko bidez egindako programak diseinatzen ditu.
- Prozesu teknologikoaren urratsak ematen ditu pieza modulatuetan eta/edo eragile mekanikoetan (ardatza, gurrupila, polea, plano inklinatua, engranajea eta balazta, esaterako) oinarrizko makina bat edo gailu bat eraikitzeko.

EDUKIAK

Naturaren-zientzien proiektua edo erronkak egitea, modu gidatuan, metodologia zientifikoa eta haren oinarrizko ezaugarriak fenomeno naturalak eta benetako egoerak aztertzeko, identifikatzeko eta ebazteko aplikatzeko irizpideak eta jarraibideak erabiltzen hastean.

Proiektua edo erronkak gai horietako bati buruzkoa izango litzateke

GIZAKIA ETA OSASUNA

- Gizakiaren bizi-funtzioak. Aparatuak eta sistemak.
- Nutrizioa, Ugalketa Erlazioa.
- Giza organismoan aparatuei eta sistemei eragiten dieten gaixotasun ohikoak.
- Nork bere gorputza arduraz zaintzea. Erabakiak hartzea.
- Pertsonen zainketak eta osasunak dimentsio soziala ere baduela eta pertsonak bizi diren ingurune baldintza sozialek eta ekonomikoek hartan eragiten dutela ulertzea.

IZAKI BIZIDUNAK

- Euskal Herriko populazioak, komunitateak eta ekosistemak: larrea, urmaela, basoa, itsasertza, hiria.
- Biosfera. Izaki bizidunen habitatak.
- Izaki bizidunen egitura: zelulak, ehunak, organoak, aparatuak eta sistemak bereiztea.

MATERIA ETA ENERGIA

- Energia motak: energia-mekanikoa, argi-energia, soinu-energia, energia elektrikoa, energia termikoa eta energia kimikoa.
- Sistema materialak. Substantzia puruak eta nahasteak.
- Nahaste baten osagaiak banatzeko esperimendutegitza teknikak: distilazioa, iragazketa eta lurrunketa.
- Aldaketa fisikoak eta kimikoak. Esperimendu simple batzuen bidezko erreakzio kimikoen adibideak.

TEKNOLOGIA, OBJETUAK ETA MAKINAK

- Zirkuitu elektriko soilak edo hezkuntza-helburuko robotikako elementuak dituzten egitura soilak diseinatu, planifikatu eta eraikitzea.
- Egiturak ekintza errazak egiteko erabiltzen diren diseinu-programak.
- Prozesu teknologikoaren etapak. Irizpideak problema bat ebazteko eginkizuna duten edo horretarako baldintzak betetzen dituzten egitura soilak eraikitzeko, pieza modulatuetan eta/edo eragile mekanikoetan oinarrituta. (ardatza, gurrupila, polea, plano inklinatua, engranajea eta balazta, esaterako).

LH 6 NATURAREN ZIENTZIAK

Etapako helburuak eta arloa ebaluatzeko irizpideak garatzeko funtsezko jarduerak

IKERKETA DOKUMENTALA

- **Ikerketaren urrats-jarduerak:** Ikerketa txikia egingo dute ikasleek.
 - 1-Galdera edo ikerketaren gaia erabaki eta aurrezagutzak adierazi.
 - 2-Iturri fidagarriak eta euskarriak (antolatzaile grafikoak, gidoiak eta txantiloak) erabaki.
 - 3-Ikerketa egin (informazioa hautatu, sailkatu eta antolatu).
 - 4-Sintesia, azalpena eta ondorioak atera.
 - 5-Komunikazioa (analogikoa eta digitala: poster, txostena...).Adibidea: [Zergatik egiten dute distira ipurtargiek?](#) (“izaki bizidun argidunak” atala).
- **Prozesuzko jarduerak eta produktuak:** ikasitakoaren buru mapa, informazioa sailkatzeko grafikoak, eskemak, taulak, [Izaki bizidunen habitaten bideoa egin](#), giza gorputzaren txostena ...
- **Gaien adibideak:** gizakiaren bizi funtzioak, aparatuak eta sistemak, energia motak, txertoak eta osasuna, izaki bizidunen sailkapena, [ekosistemak](#), ikerketa jasotzen duen weborria (blog, site...), eta abar.

IKERKETA ESPERIMENTALA

- **Jarduera/Ataza:** Ikerketa esperimental txikia egingo dute ikasleek. Prozesua:
 - 1-Galdera edo ikerketaren gaia erabaki eta aurrezagutzak adierazi.
 - 2-Planifikazioa: hipotesiak egin eta esperimentuaren [aldagaiak](#), urratsak eta datuak erregistratzeko moduak erabaki.
 - 3-Esperimentua egin eta [datuak jaso](#).
 - 4-Analisia egin eta emaitzak aztertu.
 - 5-Hipotesia egiaztatu, [konklusioak atera](#) eta [komunikatu](#) (analogikoa eta digitala: poster, txostena...). Adibidea: [Landare loredun bizitza ezkutua](#) (esperimentazio atala), [legamien lasterketa](#)
- **Prozesuzko jarduerak eta produktuak:** [behaketa gidatua](#)ren kontrol orria, ondorioen azalpena egiteko [poster zientifikoa](#), esperimentazio-prozesuaren panela, [datuen grafikoak eta taulak](#), [esperimentuen dossierra](#), prozesuaren bideo grabaketa...
- **Gaien adibideak:** Energia motak: energia-mekanikoa, argi-energia, soinu-energia... , landareen edo animalien hazkundea, materialen ezaugarriak, landareen zelulak eta ehunen osagaiak, substantzien osagaiak, [nahasketak](#), erreakzio kimiko xumeak, [3,2,1,... nire bihotza!](#)...

PROZESU TEKNOLOGIKOA

- **Jarduera/Ataza:** objektu teknologikoa/makina/zirkuituak egingo dituzte ikasleek. Prozesua:
 - 1-Egoera-arazoa edo erronkari buruzko aurrezagutzak adierazi.
 - 2-Eraikitze prozesua jarraituz objektua/makina/zirkuitua egin ([dossierra](#))
 - 3-Komunikazioa (analogikoa eta digitala: poster, txostena...) Adibidea: [¡Todo se mueve!](#)
- **Prozesuzko jarduerak eta produktuak:** diseinuaren zirriborroa, planoak, prozesuaren dossierra, maketa, makina, zirkuitoaren eskema, ...
- **Gaien adibideak:** zirkuitu elektrikoak, robotikako elementuekin sortutako egitura soilak...

GIZARTE ZIENTZIAK

EBALUAZIO ADIERAZLEAK

TRESNAK:

Testu geografiko, sozial eta historikoak bilatu, hautatu eta antolatzea hainbat iturritatik (zuzenekoak, liburuak, komunikabideak, Internet eta abar).

- Taldeko jardueretan parte hartzen duenean portaera arduratsua, konstruktiboa eta solidarioa agertzen du.
- Jakintza matematikoak egokiro erabiltzen ditu, eta espazioaren irudikapen grafikoak egiten eta interpretatzen ditu.

Arloarekin zerikusia duten eta ahozko eta/edo idatzizko testuak ulertu direla erakusten duten edukiak argi eta txukun azaltzen ditu ahoz.

GURE MUNDUA ETA HAREN KONTSERBAZIOA:

Mapa motak identifikatzen eta sailkatzen ditu (planisferioak barne), mapa bateko eskala zer den zehazten du, eta mapan ager daitezkeen ikur konbentzionalak erabiltzen eta interpretatzen ditu. Eguraldiaren eta klimaren arteko desberdintasuna zein den azaltzen du.

- Euskal Herriko eta Espainiako mapa meteorologiko sinpleak interpretatzen ditu.
- Harrien eta mineralen arteko desberdintasunak identifikatzen eta azaltzen ditu.

Euskal Herriko, Espainiako eta Europako erliebe- unitate nagusiak eta isurialde hidrografikoak bereizten ditu mapa batean eta non dauden adierazten du..

- Baliabide naturalen erabilera jasangarria eta kontsumo ez-jasangarria bereizten ditu.

Zaborra birziklatzeko dauden edukiontzi motak identifikatzen ditu, eta materialen birziklatzea eta berrerabilera balioesten ditu.

GIZARTEAN BIZITZEA:

- Espainiako lurralde-antolamendua azaltzen du. EAEko eta Estatu espainiarreko erakunde nagusiak identifikatzen ditu.

Euskal Herriko eta Espainiako biztanle gunerik handienak eta biztanleria dentsitate handieneko eremuak kokatzen ditu mapa batean.

- Euskal Herriko, Espainiako eta Europako sektore ekonomikoak.

Gastu motak bereizten ditu, eta bere aurrekontua gastu mota bakoitzera egokitzen du.

DENBORAREN ARRASTOA:

- Iberiar Penintsula eta Euskal Herria historiaurretik Aro Garaikidera gertaerak ezagutzen ditu.
- Balio historiko, artistiko edo kulturala duen museo edo eraikin bat bisitatzen denean agertu beharreko portaera errespetatzen eta bere gain hartzen du.

EDUKIAK

TRESNAK:

Informazioa ulertzea (konparatzea, sailkatzea, sekuentziatzea, aztertzea eta laburbiltzea), buruz ikastea eta azaltzea (deskribatzea, definizioak eta laburpenak egitea, azalpenak ematea, etab.).

- Lortutako emaitzaren berri ematea.
- Taldean ikasteko lanetan laguntzea eta elkarlanean aritzea.

Jakintza zientifikoa ikasten hastea eta Gizarte Zientzietan aplikatzea.

GURE MUNDUA ETA HAREN KONTSERBAZIOA:

- Eguraldia. Neurketa eta iragarpena.
- Eguraldi-mapak.
- Espainiako eta Euskal Herriko eguraldi-mapak.
- Sinbolo konbentzionalak
- Harriak eta mineralak: Propietateak, erabilerak eta erabilgarritasunak.
- Euskal Herriko eta Espainiako paisaien aniztasun geografikoa: erliebea eta hidrografia.
- Europako paisaien aniztasun geografikoa: erliebea, klimak eta hidrografia.
- Garapen jasangarria.
- Kutsaduraren arazoak.
- Kontsumo arduratsua.

GIZARTEAN BIZITZEA:

- Gobernu motak. Monarkia parlamentarioa.
- Lurralde-erakundeak eta gobernu-organoak.
- Europar Batasuna: lurralde-antolamendua eta antolamendu politikoa
- Euskal Herriko eta Espainiako biztanleria: banaketa, bilakaera eta migrazio mugimenduak: emigrazioa eta immigrazioa.
- Europako biztanleria: banaketa eta bilakaera.
- Sektore ekonomikoak eta produkzio-jarduerak. Finantza-hezkuntza. Dirua. Aurrezpena. Aberastasunaren banaketa munduan, eta haren ondorioak.

DENBORAREN ARRASTOA:

- Bilakaera historikoa euskal lurraldeetan.
- Gure ondare historiko eta kulturala. Iberiar Penintsula eta Euskal Herria historiaurretik Aro Garaikidera.

TREBEZIAK:

- Interneten informazioa [nola bilatu](#). Aukeratu gai bat eta jarraitu argibideak.
- Interneten lortutako informazioa testu-liburuarekin kontrastatu.
- Talde txikian, testu batekin mapa kontzeptual bat egitea. [Errubrika](#).

GURE MUNDUA ETA HAREN KONTSERBAZIOA:

EGURALDIA. MAPAK

- [Eguraldiaren iragarpena](#) irudia ikusi. Imajinatu zuk eman behar duzula eguraldiaren berri Eitb-n. Irudia interpretatu, prestatu zure iragarpena, bideoz grabatu.

HARRIAK ETA MINERALAK

- Ikasle bakoitzari harri bat eta mineral baten argazkiak aurkeztu. [Pentsatzen dut](#), [interesatzen zait](#), [ikertzen dut](#). Ondoren ikertzen hasi eta ikertutakoa *doc* batean jaso.

EUSKAL HERRIKO, ESPAINIAKO ETA EUROPAKO ERLIBEA ETA KLIMAK

- [Irudi honetako](#) isurialdeen inguruko informazioa irakurri.
- [Euskadiko](#), [Espainiako](#) eta [Europako](#) erliebearen mapa interaktiboekin jolastu.

GARAPEN JASANGARRIA, KUTSADURA ETA KONTSUMOA ARDURATSUA

- Argazki aukeratu: [Indonesiako hondartza](#), [Kontsumo jasangarria](#) Ikusten denaren inguruko hausnarketa egin. Osatu: [Ikusten du](#), [pentsatzen dut](#) [galdetzen dut](#).
- Garapen jasangarria. Ikusi [bideo hau](#), eta atera ideiarik nagusienak.
- Taula batean, kutsadurak gure inguruan dituen kausak eta ondorioak jasotzen ditugu.

EAE. ETA ESTATU ESPAINARRA

- PPTa prestatu, aukerak: Espainiako lurralde-antolamendua, EAEko erakundeak edo Estatu espainiarreko erakundeak. [Esteka](#).

EUROPA BATASUNA

- Europar Batasuna: ezaugarriak. Kontzeptu-mapa. Definitu, "Monarkia parlamentaria".

EUSKAL HERRIKO ETA ESPAINAKO BIZTANLERIA

- [Fitxa](#) hau osatu. Ondoren ikaskideei eta irakasleari bideokonferentziaz azaldu atera dituzun ondorioak.
- [Herri txikiak berreskuratzen](#) Ikasbil-eko jarduerak edo bakarrik [EITBko bideoa](#) ikusi ondoren (aniztasunari erantzun), eztabaida sortu talde txikietan bideokonferentziaz.
- Euskal Herriko eta Espainiako azken urteko biztanleriaren piramidea egiten dugu.

FINANTZA HEZKUNTZA

- "[Nik ere auzoan erosten dut](#)" kontzientziazio-kanpaina egin du Bilboko udalak.
- Hasierako eta bukaerako ideiak jasotzeko [3,2,1 zubia](#). Denon artean, komentatu [bideo hau](#). Ezberdintasun ekonomikoa munduari buruzkoa. Arazoak konpontzeko 2 proposamen egin.
- Kontsumo arduratsua. Ikusi [bideo hau](#) eta komentatu talde txikietan.

BILAKAERA HISTORIKOA EUSKAL HERRIAN

- [Ekainberri interaktiboan](#) miatu. Euskal Herriko Kultura eta natura Ondarearen elementu bat definitzea. Oro har, euskal lurraldeen bilakaera historikoa laburbiltzea.

GORPUTZ HEZKUNTZA

EBALUAZIO ADIERAZLEAK

- Espazioan orientatzen da , erreferentzia puntuak oinarri hartuta.
- Objektuen ibilbide eta abiadurei aurre hartzen ditu
- Mugimendu trebetasunak egoera berriei egokitzen ditu eta era egokian geldiarazten ditu talde jolasetan..
- Joko arauak ezagutu eta onartzen ditu.
- Garbi jokatzeko jardueretan ikaskide guztiekin elkarrekintzan arituz.
- Bere irizpideak agertzeaz gain, errespetatzen ditu gainontzekoen irizpideak.
- Ariketa fisikoa bere trebetasun eta mugen arabera egokitzen ditu.
- Erlaxatzeko gai da arnasketa egokia erabiliz.
- Musika koreografia txikiak eta dantzak egiten ditu taldean.
- Jarduera fisikoak osasunean dituen ondorio positiboak jabetzen da.
- Ohitura osasungarrien kontzientzia du.
- Baloratzen ditu euskal kulturako kirol, dantza eta jolas desberdinak.

EDUKIAK

- Lekualdaketak eta saltoak inguru ezberdinetan (ziurgabetasunean ere).
- Pilotak eta tresna higikorren jaurtiketak, paseak eta harrerak kontrola galdu gabe, distantzien eta ibilbideen arabera egokituz.
- Era koordinatuan eta lankidetzan jarduerak, helburuak lortzeko edo aurkaritzan (bai erasotzaile gisa, bai defentsa gisa)
- Jolasak eta talde jarduerak egitean, ahalegina eta harremanen balorapena.
- Jarduera fisikoetan sortzen diren gatazka egoerei dagokionez, iritzi koherentea eta kritikoaren lanketa.
- Jarrera aktiboa, egoera fisikoa hobetzeko; aukeren eta mugen arabera egokituz.
- Taldeko konposizioak ikaskideekin elkarrekintzan, gorputz adierazpeneko baliabideak erabiliz.
- Jarduera fisikoaren garapena, hobetzeko hainbat lotura ezagutuz eta jarraiki jardunez.
- Euskal tradizio ludikoak, kirol tradizioak eta beste kultura batzuetakoak ezagutu, praktikatu, errespetatu eta baloratzea.

LH 6_ GORPUTZHEZKUNTZA

OSASUNGARRI JATEN DUGU!!!!!!

- Errezeta osasuntsu bat egin behar dute. Horretarako bideo bi dauzkate, baina haiek beste jateko bat presta dezakete eta irakasleri fitxa bat bidali hurrengo informazioarekin: osagaiak, nola prestatu eta emaitzaren argazki bat.
- Irakasleak errezetak bildu eta ikasle guztiekin partekatuko ditu.



Artobeltz hanburgesa

Snac saludables

Baliabideak: bideoak eta errezetak egiteko behar diren osagaiak eta tresnak.

Ebaluazio tresnak: [errubrika](#)

ANTZARA-JOKOAN ARITUKO GARA!!!

- Antzara-jokoan lau lagunen artean (etxeakoak inplikatu ahal bada) edo banaka arituko gara (norberak bestee txandetan dadoa jaurtiz), baina laukitxoetan ariketa fisiko bat egingo da.

Baliabideak: Hangouts, [antzara jokoa](#) eta [dado birtual](#) bat.

Beste era batera egiteko. <https://www.youtube.com/watch?v=T7WiGajY884>

Ebaluazio tresnak: [autoebaluazioa](#)

MALABARAK

- Malabarismoko pilotak egin. Nola?: [adibidea](#)

Baliabideak: puxikak, arroz, artaziak eta film-papera.

- Urratsez urrats, [hiru pilotekin esku-jokoak](#) egin. 3 era desberdinetan jolastu. Segurtasun neuriak hartu!!
- Bakoitzeko bideotxo bat, argazki batzuk edo marrazkia egin, zertan datzan azalduz.

Ebaluazio tresnak: [Errubrika.autoebaluazioa](#).

ERLAXAZIOA: lo geratu barik!!

- Hasi baino aurretik kontuan hartu beharrekoak:

1) Arnasa sudurretik hartu eta bota


2) Jarrera:

Gora begira etzanda.

Aulki batean edo lurrean bizkarrezurra zuzen eta lurraren perpendikular eduki behar dugu, erlaxatuta, burua orekatuta eta aurrera begira eta begiak itxita, arreta gal ez dezagun.

Bideoko audioa [entzun](#) erlaxatzen zaren artean.

Baliabideak: [bideoa](#). Ebaluazio tresnak: [Balorazioa](#): nola sentitu diren azaltzea. bideoa, argazkia, idatzia, bakoitzak aukeratzen duena, bidaltzea(e-mailez, drivera igo...)



ARTE HEZKUNTZA: MUSIKA-ARTE/PLASTIKO ETA BISUALA

EBALUAZIO ADIERAZLEAK

- Musika sortu eta interpretatzean, musika-notazioaren oinarriko elementuak erabiltzen ditu erritmo- eta melodia-eskema xumeak irakurtzeko.
- Kalitatezko interpretazioak egiten saiatzen da musika egin, ahotsa eta musika-tresnak erabili eta gorputz-adierazpena lantzean.
- Musika-konposizio eta obra bisual eta plastikoetan erabili diren teknikak aztertzen ditu, eta moldatu egiten ditu bere sortze-lanean
- Musika-errepertorio propio bat izateko interesa erakusten du.
- Pieza laburrak inprobisatzen ditu irudien, soinuen, ideien, kontakizunen eta bestelako estimuluen bultzadaz.
- Hitzez eta idatziz adierazten ditu arte-ekoizpen bisual eta musikal askotarikoek sorrarazten dizkioten emozioak eta sentimenduak.
- Teknologia-oinarria duten bitarteko askotarikoak erabiltzen ditu adierazpenerako eta komunikaziorako.
- Obren sorrerako baldintzen eta testuinguruen gaineko informazioa bilatzen eta antolatzen du.
- Komunikabideek erabilitako irudiek eta musikak igorritako mezuen helburuak identifikatzen ditu.
- Arte-jardueretan lankidetzak eta ekarpen indibidualek duten garrantziaz ohartzen da eta haien beharrezana balioesten du.

EDUKIAK

MUSIKA

- Musika hizkuntzaren oinarriko elementuak barneratzea. Melodia, akordeak, polirritmia eta polifonia.
- Musika hizkuntza: oinarriko partitura konbentzionalak irakurtzea.
- Teknika bokalaren kalitate espresiboa garatzea, kantua interpretatuz, taldeari atxikiz eta intonazioa eta erritmoa errespetatuz.
- Orff instrumentariumerako instrumentazio xumeak interpretatzea.
- Abestiak, kanonak eta pieza instrumental errazak interpretatzea eta buruz ikastea.
- Ikasgelako web orrialdea erabili eta bertan informazioa bilatzeaz gain, dokumentuak, bideoak eta abar txertatzeko gaitasuna.
- Musika-mintzairako tresnak erabiltzea obra xumeak aztertzeko.
- Iturri askotan bilatzea irudiak, artisten obrak, musika-tresnei, konpositoreei, interpreteei, eta musika-ekitaldiei buruzko informazioa.
- Emaiza musikal eta plastiko on bat lortzeko talde lanaren garrantziaz ohartarazten da

ARTE PLASTIKO ETA BISUALA

- Irudiak eta objektuak berregitea, ideiak eta sentimenduak adierazteko, eraldatze grafikoaren eta plastikoaren bidez.
- Teknika mistoak erabiltzea obrak sortu eta ideiak eta sentimenduak adierazteko.
- Teknologia-euskarriak erabiltzea arte-sorkuntzan

LH 6 ARTE HEZKUNTZA

PELLO ERROTAREN BERTSOAK KANTATZEN

Pello Errotaren bertsoak kantatzen:

<http://www.pelloerota.eus/Nagusia/PELLO%20ERROTA/Pello.htm>



KOADRO KLASIKOEN ERALDAKETA

Jarduera hau egiteko, interneten bilaketa bat egin beharko duzu mundu osoan ezagunak egin diren koadro klasikoak ikusiaz. Hona hemen esaterako Bilboko arte ederren museoan dauden koadroak ikusteko aukera:

<https://www.amarauna.euskadi.eus/baliabidea/bilboko-arte-ederren-museoa-bisita-birtuala/d6ca3eaa-0f7d-4771-9eff-374433d69497>

ABESTIA IKASI ETA EGOKI ABESTU. ANAI XANTI

PERKUSIOA

- Gorputz perkusioarekin 4 konpasetako osbstinato erritmiko bat asmatu abesti hau laguntzeko.
- Gero musika irudiekin idatzi.

TXIRULA

Partituran aurkitu dituzun zati ezberdinatetik, txirularekin jotzeko bat edo gehiago aukeratu eta jo, behin eta berriro, jarraian, gelditu gabe, lau aldiz. Adibidez:



Ondo ikasita duzunean, grabatu eta grabatutakoaren gainean abestu ANAI XANTI; eta gero txirularekin jo ikasitako abaina Canonean (4 konpasetako zati bat entzun ondoren zuk hasiertik jo).


MUGIMENDUA Ondorengo proposamenen artean gustoko duzuna aukeratu eta egin

- a. Konfinamendu garaian ezagututako edo gehien gustatu zaizun musika batentzat koreografia bat egiteko pausu bat edo bi asmatu.
- b. ANAI XANTI abestiarentzat esku jolas edo koreografia bat asmatu.
- c. Konfinamendu garaian pentsatzerakoan burura datorzkizun hitzak idatzi. Gero ahoz adierazteko modua asmatu: rap bat eginez, ezagutzen duzun kanta batetan txertatuz, hitzak banaka bota eta bata eta bestearen artean perkuzioarekin erritmo bat egin, beatbox txertatuz, ...

Baliabide digitalak erabiliz adostu gelakide batekin edo batzuekin lan hori elkarrekin egiteko. Hemen adibide batzuk:

- [TUN PA](#)
- [GORPUTZ PERKUSIOA](#)
- [RAP - OINARRI ERRITMIKOA](#)
- [BEATBOX](#)

ASMAKIZUNA



EMOZIOEN MUSIKAK

KONPETENTZIA DIGITALA

LH6

EBALUAZIO ADIERAZLEAK

- Bilaketetan hitzen ordena aldatzen du eta bilatzaile ezberdinak erabiltzen ditu, emaitza egokiak lortzeko.
- Ikastetxeko mediateka, mediateka publikoa eta liburutegi birtualak, lagunduta, erabiltzen ditu.
- Badaki nondik/nola eskuratu baliabide irekiak-creative commons.
- Informazioa antolatzeke eta berreskuratzeko era/tresnak ezagutzen ditu.
- Bideokonferentziaren erabilera-arauak betetzen ditu talde-lanean.
- Oinarrizko netiketa arauak betetzen ditu gelako on-line komunikazio kanaletan.
- Bere aurkezpen-lanetan multimedia-baliabideak ere txertatzen/berrerabiltzen ditu.
- Ikasgune birtualean modu autonomoan aritzen da: ikasmaterialak eskuratu, atazak lankidetzan burutu eta lanak entregatu.
- Bere nortasun digitala babesten du sarean.

EDUKIAK

- Bilaketa aurreratuek eta egiaztatuak egitea. Informazioa antolatzea.
- Komunikazio kanal ezberdinak erabiltzea.
- Ikasgune birtualean dokumentuak, aurkezpenak eta multimedia lanak lankidetzan burutzea.
- Egile eskubideak ezagutzea eta creative commons baliabide biltegiak erabiltzea.
- Oinarrizko netiketa arauak errespetatzea.
- Nortasun digitala zaintzea.

IKASKUNTZAREN AUTOERREGULAZIOA

EBALUAZIO ADIERAZLEAK

- Bere lana planifikatzeko gai da.
- Bere lanak hobetzeko estrategia eraginkorrak garatu ditu.
- Zereginetan modu arduratsuan jarduten da, ahalik eta emaitzarik onenaren bila.
- Informazio iturri ezberdinak erabili eta konbinatzen ditu beharrezko arabera (galdetzea, liburuetara jotzea, interneta, komunikatzeko modu ezberdinak erabiltzea...)
- Ikasteko eta sakontzeko estrategiak eraginkortasunez erabiltzen ditu (berrirakurtzea, aztertzea, sakontasun gehiagoz behatzea ...)
- Bere ezagutza aprobeztatzen ikasten ari da jakintza sakontasun gehiagoz menperatzeko.
- Lanerako jarrera baikorra azaltzen du, eta zailtasunen kudeaketan frustrazioa egoerak gainditzen ditu.
- Kooperaziorako estrategia desberdinak erabiltzen ditu eraginkortasunez.

EDUKIAK

- Zereginen planifikazioa (espazioen prestaketa, materialen prestaketa, denboraren kudeaketa ...)
- Lanaren garapena
- Iturri ezberdinen kontsulta.
- Ikasteko estrategiak
- Metakognizioa.
- Kolaborazioa eta kooperazioa

ERANSKIN I

IRAKASKUNTZA-JARDUERA ANTOLATZEKO ZENBAIT GAKO

Osasun-larrialdiak eragindako eskola presentzialen etendurak ikas-irakaste prozesuak eta lan-zereginak birplanteatzera eramán gaitu. Horrenbestez, atal honetan, ikasteko eta irakasteko jarduerak antolatzeke orientabide orokorrak emango dira ingurune birtualean lan egiteke.

FUNTSEZKO ALDERDIAK

Ikasleekin irakaskuntza-jarduera planifikatzeko beharrezkoa da ikasmailarik ikasmáila curriculumaren¹ oinarrizko alderdiak berrikusi eta egokitzea, ikasleei hezkuntza-xedeak eta

oinarrizko konpetentziak eskuratzen laguntzeko. Beraz, irakatsi behar diren funtsezko alderdiei erreparatzea da garrantzitsuena, eta ezagutza hori eskuratzeko eta ebaluatzeke hainbat modu eskaintzea, oinarrizko jakintza horiek erreferentzia izango baitira gero ere inguruabar berezi honetan ikasleen ebaluazioa egiteke.

URRUTIKO IKAS-IRAKASKUNTZA

Ingurune birtualean murgilduta gauden une honetan, hainbat adituk urrutiko ikas-irakaskuntzaz esandakoa kontuan hartzea komeni da. Haien aburuz, ebaluazio prozedurek erabat baldintzatzen dute ikasleen ikaste-prozesua. Hau da, segun eta nola ebaluatzen dugun gure ikasleek horrela ikasiko dute. Beraz, urrutiko irakaskuntzan ere planifikazioa funtsezkoa da, eta honako gako hauek kontuan hartzea komeni da:

1. **HELBURUAK:** ondo zehaztuta, ikasleei ikaskuntzaren koherentzia ikusten laguntzeko.
2. **DISEINUA:** jarraibide argi, labur eta sarriak, ikasleen garapen-mailari egokitutako erronkekin, testu-liburuetako ariketa soilak edo errepikakorra saihestuta.
3. **JARRAIPENA:** feedback jarraitua, ikasleen ekarpenak suspertu eta aberasteko.
4. **ITXAROPENA** ikasteko behar den sentimendua, ikasleek eskatzen zaiena lortuko dutelako segurtasuna sentidezaten.

Trujillo, F (2020): *Deberes escolares en tiempos de confinamiento: son eficaces?*
https://labur.eus/deberes_confinamiento

Horiez gain, alderdi hauei ere erreparatu behar diegu:

- **Elkarrekintza bizia eta etengabea mantentzea** ikasle eta ikas-taldearekin (beharrezkoa bada, familiekin ere) ikaste-prozesuan gidatzeko eta behar denean, laguntza emozionala ere ematen saiatzeko.

Ikasleen artean harremana bultzatzea ere egokia da. Horregatik, bakarkako jardueraz gain, komeni da lankidetzak jarduerak ere proposatzea eta horretarako bideak sortzea: foroak, txatak, blogak, eta abar. Haien arteko elkarrekintza ikastaldeko harreman-alderdiei eusten die, eta berdinen arteko ikaskuntza errazten du.

¹ Oinarrizko hezkuntzaren Curriculuma: <https://labur.eus/oinarrizkocurriculuma>

- **Baliabideak ematea:** aurreikusi behar da ikaslea ordenagailu aurrean bakarrik egon daitekeela. Beraz, orientabide errazak eta zehatzak eman eta laguntza-mekanismoak eskaini, bai didaktikoak bai teknologikoak, planteatutako lanak garatzeko. Egin beharrekoaren gainean zalantzak argitzeko hainbat bide erabili, hala nola gidak, audioak, bideoak, eskemak, buru-mapak, infografiak... Dena gida batean jartzeak ikaslearen lan autonomoa bultzatuko du.
- **Ikaslearen ezaugarriak kontuan hartzea:** ikasleen ezaugarri eta beharretara egokitu behar dugu, eta gure ikasleen gaitasun-, ezagutza- eta baliabide-mailarekin lotutako lanak pertsonalizatu, guztientzat lorgarriak diren jarduera inklusiboak proposatuz. Erronka handia da jakitea ikasleek zer baliabide dituzten egoera honetan, eta haien familien errealitate sozioekonomikoa zein den, baina hortik abiatuta, aldazio-estrategiak ematea komeni da.
- **Motibazioa bultzatzea:** normalean, proiektuak eta atazak proposatzen ditugunean, ez da erraza izaten benetako erronkak eta egoera sinesgarriak eta motibagarriak aurkitzea. Hala ere, bizi dugun ezohiko egoera hau ikasleen ikaskuntzarako jakin-mina eta motibazioa sustatzeko interes-ardatzetako bat izan daiteke.
- **Jarduera mota esanguratsuak proposatzea:** ikasleek gauzak "eginez" ikastea komeni da: irakurtzea, bilatzea, problemak ebatzea, proiektuak egitea, aztertzea, eztabaidatzea, hausnarketa egitea, eta abar. Irakaskuntza ez-presentzialeko egoera honetan, ikaslea inplikatu behar da informazioa bilatzeko, ezagutza aplikatzeko eta komunikatzeko, eta gogoeta egiteko prozesuetan. Laburbilduz, jakintza arloetan, zeregin esanguratsu eta motibatzaileak proposatzea komeni da, zeregin mekaniko eta errepikakorrek saihestuta.



EBALUAZIOA INGURUNE BIRTUALEAN

Ebaluatzea beti da prozesu sistematikoa eta jarraitua, eta ebidentziak biltzea, aztertzea eta baloratzea eskatzen du, bai ikasle bai irakaslearen irakaskuntza prozesuak hobetzeko. Esandako guztiak kontuan hartuta, ebaluazio-prozedurak ere egokitu beharko dira ez-ohiko egoera honetara.

Ikasturteko azken ebaluazioa egiteko, ebaluazioa jarraitua dela kontuan hartuta, irakasleek sistematikoki bildu behar dituzte, irakatsi eta ikasteko prozesuan osoan zehar, ikasleen aurrerapenaren ebidentziak. Ebaluazio formatiboak ikaste-irakaste prozesu osoa baloratu nahi du, eta ebaluazio batutzaileak, berriz, azken emaitza. Batak ez du bestea kentzen.

Hori egiteko, ezinbestekoa da ebaluazio prozedura argi bat planteatzea, eta bertan proposatuko dira metodoak, teknikak, formak eta moduak, hau da, azkenean erabakia hartzen lagunduko diguten informazioa edo ebidentziak biltzeko modua.

Hauek dira erreparatu beharreko zenbait alderdi, besteak beste:



- **Helburuak:** zehatzak eta lorgarriak izan behar dute. Oso argi komunikatzen badira, ikaskuntza erraztuko dute. Era berean, egoera honek aukera ematen digu harreman-testuinguru malguagoak eta proposamen sortzaileagoak sortzeko.
- **Pertsonalizatzea:** egiten ditugun ebaluazio-proposamenetan kontuan hartzea ikasleen-gaitasun ezberdinak, eta hezkuntza-premia bereziak dituzten beharretara ere egokitzea.
- **Lanaren jarraipena:** hezkuntza telematikoan ebaluazioaren arazo nagusia izaten da kalitatezko feedback-a eskaintzea prozesuan zehar. Ebaluazio-prozesua argia bada, hein

batean arazo hori konpon dezakegu, ikasleak haien artean ebaluatzen badira, edo familietatik informazio baliotsu hori lortzen badugu.

Konfinamendua aukera bikaina da ikasleei bere burua erregulatzen, antolatzen eta haien kabuz lan egiten erakusteko. Garrantzitsua da ikasleak heziketa-prozesuan zehar ikasten duenez jabetzea: aurretik, bitartean eta ondoren.

- **Proba motak:** ikasleei proposatzen dizkiegun zereginen bidez, ebidentzia asko jaso ditzakegu haien aurrerapena egiaztatzeko. Horregatik, probek lotuta egon beharko lukete erronka edo arazo batean oinarritutako ataza edo proiektuak egitearekin. Ikasgaiaren kontzeptuzko edukietan zentratutako probak edo azterketak proposatzea ez da ikasleen gaitasunen garapen-mailaren ebidentzia fidagarria lortzeko modurik onena (ez behintzat bakarra).

Horrenbestez, ikasleei emandako eduki kontzeptualak erreproduzitzea eskatzeaz gain, komeni da sormena, arrazoiketa, laburpen estrategiak, inferentziak, kritika eta halako goi mailako trebetasunak behar dituzten jarduerak proposatzea.

EBALUAZIORAKO HAINBAT TRESNA ETA MODU

Neus Sanmartin² ebaluatzeko prozesuetan tresnak, proposamenak, modalitateak, lorpen-mailak... dibertsifikatzea iradokitzen digu. Ebaluazioan beti da garrantzitsua baliabide-mota anitzak eskaintzea.

Ondoko irudian jasotzen dira helburu ezberdinak lortzeko erabil litezken ebaluazio tresna batzuk, beti ere irizpide nagusizat hartuta ebaluazio-tresna askotarikoak erabili behar ditugula ikasleen prozesua bideratzeko eta apendizaiia ebaluatzeko:

EBALUAZIORAKO TRESNAK

- 1 PROZESUA JARRAITZEKO**
Port-folioa
Ikaskuntza egunkariak
Kontratu didaktikoak
Errubrikak
Kontrol-zerrendak
...
- 2 HARREMANETARAKO**
Posta elektronikoa
Bideo-konferentziak
Gela birtuala
Foroak, blogak
...
- 3 JAKINTZA ADIERAZTEKO**
Buru-mapak
Eskemak
Bideo-aurrezpenak
Audio-grabaketak
...
- 4 ELKARREKIN IKASTEKO**
Horma-irudiak
Buru-mapak
Eztabaidak
...
- 5 AUTO-ERREGULATZEKO**
Portfolioa
Ikaskuntza egunkariak
Kontrol-zerrendak
Errubrikak
Galdetegiak
...
- 6 AZKEN PROBA EGITEKO**
Galdetegiak
Proiektuen ekoizpenak
Ikerketen txostenak
Galdera -sortak
...

At the bottom of the infographic are social media icons for Facebook, Twitter, LinkedIn, Instagram, and YouTube.

² Sanmartí, N. (2009): *10 ideas clave: evaluar para aprender*. Editorial Grao

ERANSKIN II

JAKINTZA ARLO BAKOITZEKO BEREZITASUNAK

Etapako helburuen erreferentzia kontuan hartu beharko da maila bakoitzean kompetentzien aurrerapenerako funtsezko edo ezinbesteko ikaskuntza mota definitzeko. Ikaskuntza horiek egiaztatzeko, ikastetxeari egokiak iruditzen zaizkion ebaluazio-irizpideak eta -adierazleak, eta ebaluazio-prozedurak eta -tresnak hartu beharko ditu kontuan.

Hizkuntza-komunikaziorako kompetenziari eta hizkuntza arloari dagokionez, Lehen Hezkuntzan, hizkuntza bakoitzeko ahozko testuak eta testu idatziak erabiliko dira. Etapa honetan, irakurketaren eta idazketaren ikaskuntzan eta garapenean ahalegin berezia egin behar da, baita irakurketa-prozesua pixkanaka sendotzeko ere; hortaz, irakurtzeko ohitura eta egindako irakurketen jarraipena bereziki landuko dira. Testuinguratutako egoeretan sortutako galderek eta horiei emandako erantzunek komunikazio gaitasuna lantzeko eta baloratzeko balioko dute.

Hortaz, ahozko testuek eta testu idatziek komunikazio gaitasuna egiaztatzeko balioko dute: ikasleek hizkuntza erabili egingo dute koherentziaz, kohesioz eta hizkuntzaren arauak baliatuz. Hartara, askotariko testuak sortuko dituzte ahoz nahiz idatziz (narrazioak, azalpenak, laburpen idatziak, testuen ulermenari lotutako galderen erantzunak...)

Bigarren Hezkuntzan, hizkuntza bakoitzean ahozko testuak, testu idatziak eta ikus-entzunezkoak erabiliko dira. Etapa honetan ere, testuinguratutako egoerei eta planteatutako diren gaien inguruko galderei erantzuteak aukera emango du, besteak beste, ikasleen ekoizpenen bidez komunikazio estrategiak baliatzeko, informazioa bilatzeko eta kudeatzeko, ikaskuntza-prozesuei buruz gogoeta egiteko, jarrera kritikoa sustatzeko eta baita irakaskuntza-erlazio ez-presentzian errespetuzko eta lankidetzarako jarrera erakusteko ere. Horiek guztiak ebaluazioan kontuan hartzeko alderdiak dira.

Hortaz, ahozko testuek eta testu idatziek komunikazio gaitasuna egiaztatzeko balioko dute: ikasleek hizkuntza erabili egingo dute komunikazio egoerara egokituta, koherentziaz, kohesioz eta hizkuntzaren arauak baliatuz. Hartara, askotariko testuak ulertu (literatura ere barne) eta sortu behar dituzte ahoz nahiz idatziz (narrazioak, azalpenak--ahozko aurkezpenak, laburpen idatziak, galderei erantzutea..., argudioak, definizio-deskribapenak...).

Literatura-testuen ulermen partekatua, testu horiekin disfrutatzea eta euren ondare- eta kultura-balioaren inguruan gogoeta egitea ere gomendatzen da.

*Euskara eta gaztelania arloak garatzeko eta ebaluatzeko zenbait xehetasun: [LH](#) eta [DBH](#).

Matematikarako konpetentzia, lehen hezkuntzan, arlo honen berezko tresnen eta pentsamenduaren erabileratik landuko eta baloratuko da. Problemen ebazpena oso lan-esparru egokia da. Bertan, problema ebazteko jarraituko den prozeduraren formulazioa zein egindako operazioen eta kalkuluaren emaitza landu ahal izango dira. Grafiko eta irudi soilen irudikapena eta interpretazioa ere funtsezko erreferentzia izango dira.

Bigarren hezkuntzan, matematikarako konpetentzia arlo honetako tresna propioak eta pentsamendua erabiliz landuko eta baloratuko da, eguneroko bizitzatik eta beste zientzia batzuetatik ateratako problemak planteatzeko eta ebazteko kalkuluak eta balioespenak eginez. Problema ebaztea oso lan-esparru egokia da. Bertan, prozedura formulatzea eta ebazpen-prozesuaren justifikazioa landu ahal izango dira egoera berriei aplikatuz. Baliabide grafikoak eta irudiak sortzea eta interpretatzea funtsezko erreferentzia izango da, eguneroko bizitzako egoerei buruzko informazioa ulertzeko, baloratzeko eta produzitzeko, eta emaitzak eta ondorioak modu koherentean aurkezteko. Halaber garrantzitsua da inguratzen gaituen mundu fisikoa analizatzea eta ulertzea forma geometrikoen ezagutzaren bitartez (elementuak, erlazioak eta propietateak).

Zientziarako konpetentzia jakintzagai zientifikoaren oinarrizko ikaskuntzekin lotuta dago. Horrek esan nahi du lehenetsunez garatu nahi diren prozedurak eta trebetasunak hautatu behar direla, zientifikoki konpetente diren pertsonak prestatzeko. Hain zuzen ere, Zientziarako konpetentziaren definizioak eta haren osagaien banakapenak oinarrizko ezagutzak hautatzeko, irakasteko eta ebaluatzeko irizpideak ematen dizkigu.

Zentzu horretan, mundu naturalari buruzko oinarrizko azalpenak egiteko ezinbestekoak diren kontzeptu eta teoria zientifikoak hautatu behar ditugu (zientziarako konpetentziaren zientifikoaren lehen eta bigarren osagaiak, zientzien oinarrizko kontzeptuen ulermena eta errealitate naturala deskribatu eta azaltzea).

Era berean, Zientziarako konpetentziaren zientifikoaren osagaietatik hirugarrenak adierazten digu sustatu egin behar dela arazo-egoeren tratamenduan dokumentazio- eta esperimentu-ikerketak egitearekin lotutako prozedura zientifikoaren ikaskuntza. Ikasgelan ikerketa-jarduera esperimentalak egitea, lagunduta, metodologia zientifikoaren prozedurak ikastea da. Ikertzeko, zenbait prozedura zientifiko erabili behar dira. Ikerketa-jardueren prozeduren ikaskuntza holistikoa edo integratua dakarte. Ikasleek, lehenengo etapetatik hasita, ikerketa gidatuak egin behar dituzte, eta horietan jarduera zientifikoaren oinarrizko prozedurak ikasiko dituzte.

Zientziarako konpetentziaren laugarren dimentsioak mundu naturalari eta giza jarduerak mundu horretan sortzen dituen aldaketei buruzko erabakiak modu arduratsu, autonomo eta kritikoa hartzeari heltzen dio. Horrek esan nahi du jarrera positibo batzuk garatu izana eta argudiatzen ikasi izana, gai bati buruz oinarritutako ideia bat eratzen laguntzen diguten eta erabakiak

hartzera garamatzaten oinarriak eta irizpideak emateko modu gisa.

Nolanahi ere, eduki horiek arazo-egoeren inguruan garatu behar dira (egoera sozialak eta/edo pertsonalak), eta egoera horiek ikasleei zuzeneko motibazioa eman behar diete egoera horiek tratatzeko eta konpontzeko.

Lehen hezkuntzan, ikasleek mundua behaketaren eta esplorazioaren bidez ulertzeko duten jakin-minaz baliatzen da Naturaren Zientzien arloa. Sistema eta fenomeno naturalak ezagutu eta interpretatu beharko dira, baita aplikazio zientifiko eta teknologiko azpimarragarrienak ere. Ikasleek lan egin ahal izango duten ahozko testuen zein testu idatzien bidez, egoerak proposatuz giza jarduerak eragiten dituen aldaketak kontuan hartuz erabakiak modu arduratsuan hartzea baloratuko da. Ikerketa txiki batzuk egingo dira eta zientzia-jardueraren eragina aztertu eta garatuko dira. Azkenik, eta egungo egoera kontuan hartuz, ikasleek beraiek emandako edo proposatutako baliabide digitalak baloratu eta erabiliko dira.

Bigarren hezkuntzan, Biologia eta Geologian, Fisika eta Kimikan, Kultura Zientifikoan eta Lan Jarduerari Aplikatutako Zientzietan garatzen den zientziarako kompetentzia. Ikasgai horien pentsamendu zientifikoa eta metodo zientifiko bereizgarria erabiliz landuko da, eguneroko bizitzatik eta beste zientzia batzuetatik ateratako arazoak planteatzeko eta konpontzeko. Ikasleek lan egin ahal izango duten ikus-entzunezko testuen, ahozko testuen zein testu idatzien bidez, egoerak proposatuta giza jarduerak eragiten dituen aldaketak kontuan hartuz erabaki arduratsuak hartzea baloratuko da. COVID 19aren pandemiak eragindako testuinguruan, sortzen ari den egoeraren ezagutza zientifikoari lotutako lanak egin ahal izango dira. Hipotesiak egitean, datuak biltzean, emaitzak eta ondorioak ateratzean problema eta ikerketa koherenteak jorratuko dira, haiek baloratu eta komunikatu ahal izateko. Mezu zientifikoak sortu beharko dira modu zehatzean komunikatzeko helburuarekin hizkuntza eta notazio- eta ordezkartza-sistemak zuzen erabiliz. Hainbat iturri erabiliz, jarrera aktiboa erakutsiz eta interpretazio kritikoa eginez, gai zientifikoei buruzko informazioa eskuratzea eskatu eta baloratuko da.

Lehenetsi beharreko ikaskuntzak planteatu ondoren, bigarren erabakiak ebaluazioa egiteko moduarekin du zerikusia. Lehenik eta behin, kontuan hartu behar da ebaluazio jarraituan ikasleek egiten dituzten lanen eta haien ikaskuntza-prozesuaren ebidentziak jaso behar direla. Bigarrenik, komeni da ebidentzia horiek tresna jakin batzuen bidez jasotzea, zer irizpideren arabera ebaluatuko diren zehaztuz. Eta hirugarrena, eta garrantzitsuena, aurkezten dugun atazak egoera horretan egin ahal izateko ezaugarri jakin batzuk izatea da.

Proposamena da ikasleei proposatzea ikerketa-lan bat edo erronka bat egin dezatela, ekoizpen bat sortzeko edo arazo-egoerari irtenbidea emateko.

Nola eraiki ikerketa-lana? Faseak honako hauek izango lirateke:

1: Arazo- edo erronka-egoera bat aurkeztea, ikasleengandik gertu dagoen testuinguru batean,

motibazio gisa. Hori guztia etxean egiteko baldintzak kontuan hartuta. Une honetan oso hurbileko gaia koronabirusa bera da.

2. Ikerketako galdera argi eta labur zentratzea. Zehaztu zer ataza edo erronka egingo den eta zer ekoizpen espero den, zer epetan eta zer irizpideren arabera ebaluatuko den.

3. Ikerketa gidatu bat proposatzea, esperimentalak edo dokumentalak izan, eta beharrezko orientabideak eta estekak ematea. Metodo zientifikoarekin lan egin behar den tarteko jarduerak planteatzea (hipotesiak formulatzea, aldagaiak kontrolatzea, diseinu-plana, etab.)

4. Ikasleek amaierako produktu zehatz bat egin behar dute ikerketa honen emaitzekin, txosten bat lan pertsonalaren ebidentziekin batera: esperimentu baten emaitzak, benetako datuekin egindako lan bat, kontzeptu-mapak, argazkiekin osatutako lanak, kasuen analisia, iritzi-artikuluak, etab.

5. Sakontzeko edo aplikatzeko gai batzuk planteatzea.

Edozein ikerketa-lanaren zailtasuna graduatu egin daiteke irakasleek emandako laguntzaren bidez (laguntza-orrien bidez, jarraitu beharreko prozedurari buruzko iradokizunak emanez, etab.).

Jakintzagai zientifikoak [ebaluatzeko ideiak](#), bai lehen hezkuntzarako, bai bigarren hezkuntzarako (gaztelaniaz).

Kompetentzia sozial eta zibikoa, lehen hezkuntzan, garatzeko eta baloratzeko, bizi garen gizartearen eta bere antolakuntzaren ezagutzaren adierazpena ingurune hurbilenetik hartuko da kontuan, giza ekintzak planteatzen dituen arazoekin loturik positiboki jarduteko ahalmenaz jabetuz. Atal honetan bizitzen ari garen ezohiko egoera testuinguruan jar dezakegu eta horri lotutako proiektu motaren bat egin dezakegu.

Giza Eskubideak erreferente unibertsal gisa erabiliz, zailtasunak modu positiboan konpontzeko behar den konpromisoa eta jarrera solidarioa azpimarratu ahal izango ditugu.

Bigarren hezkuntzan, Historia eta Geografia, Ekonomia, ekintzaitza- eta enpresa-jardueran hastera, Balio etiko, Kultura klasiko eta Filosofiaren bidez garatutako **kompetentzia sozial eta zibikoaren** lana eta balorazioa finkatzeko, euskal gizarteko kideak bereizten dituzten ezaugarri kultural eta historikoen ezagutza hartuko da kontuan. Horretarako, euren ingurune fisikoa eta honen eragina bereizten duten oinarriko elementuak identifikatuko dira, eta gertatzen diren gizarte eta ingurumeneko arazoekiko sentsibilitatea erakutsiko da.

Funtsezkotzat jotzen da ere hurbilen dagoen esparrutik hasi eta mundu zabaleraino gertakari historiko garrantzitsuak identifikatzea, denboran eta espazioan jarrera kritikoarekin kokatuz.

Halaber, antolakuntza-egiturak eta gizartearen funtzionamendua ezagutzea ere funtsezkoa dela pentsatzen da.

Ekonomia-jardueraren oinarriak, terminologia eta oinarrizko magnitudeak eta hauek garrantzi txiki eta handiko eguneroko egoeratan duten eragina landuko dira, jarrera ekintzaile bat indartuz eta norberaren zein besteen konturako lan-jarduerari lotutako kasuak identifikatuz.

Egun dauden arazoen ezagutzan sakonduko da, gogoeta sustatuz, baita, hala badagokio, arazo horiek hobetzeko ekimenetan parte-hartzea ere.

Dimentsio morala landuko da banako diferentziak, pribatutasun-espazioa eta norberaren eta besteen ikuspegi doitua errespetatzeko.

Halaber, kultura klasikoaren dimentsioa landuko da, gertakari geografiko, historiko, sozial, politiko eta artistiko nagusiak ezagutzuz eta haiek gure kulturari izan duten eragina balioetsiz.

Tresna intelektualak eta epistemologikoak erabili eta balioetsiko dira filosofiaren baliabide espezifikoen bitartez, eguneroko egoerei ikuspegi kritiko-burutsutik ekiteko.

Datuak biltzeko eta komunikaziorako, Giza Eskubideak babesteko gaitasunak eta estrategiak erakutsi beharko dira, eta norberaren eta besteen ondarea baloratu eta errespetatu.

Konpetentzia artistikoak eta mugimenduari lotuak, lehen hezkuntzan, funtsezko erreferenteak izan behar dute konfinamendu-garai honetan ekintza ludikoak, sormenezkoak eta fisikoak egiteko.

Mota askotako adierazpen artistikoak sortzea eta baloratzea, eta elikadurari eta ariketa fisikoari lotutako ekintza osasuntsuen jarraipena hiruhileko honetan lan egiteko funtsezko erreferentziak izango dira.

Bigarren hezkuntzan, **Arterako konpetentzia**, hezkuntza plastikoaren, bisualaren eta ikus-entzunezkoaren bidez garatua; musika, arte eszenikoak eta dantza funtsezko erreferenteak izan beharko dute konfinamendu-garaian jardura ludikoak eta sormenezkoak gauzatzeko, hizkuntza artistikoen teknika, baliabide eta konbentzio nagusien inguruan nahikoa ezagutza eta kontrola erakutsiz.

Ideien, sentimenduen eta bizipenen adierazpena eta komunikazioa landu eta baloratuko dira, arteak eta kultura ezagutzen, erabiltzen eta haietaz gozaten laguntzeko arte-ondarearen adierazpenak errespetatuz eta baloratuz.

Arte-hizkuntzen eta ezagutzaren beste esparru batzuen arteko erlazioak ezagutuko dira, baita ikus-entzunezko eta komunikazioko hedabideekin ere. Produktu artistiko propioak landu eta baloratu, baita proiektu artistiko bat gauzatzeko eta bertan parte hartzeko prozesuak ere.

Gorputz Hezkuntzaren bidez landutako **mugimenezko kompetentziak**, une berezi honetan, nutrizioaren eta ariketa fisikoaren inguruan ohitura osasuntsuak jarraitzeko balioko du. Ohitura horiek funtsezko erreferentziak izango dira hiruhileko honetan egingo den lanerako.

Jarduera fisikoak modu autonomoan planifikatzea, antolatzea eta praktikatzea landu eta baloratuko da.

Teknologiaren, eta informazioaren eta komunikazioaren teknologien bidez garatutako **teknologiarako kompetentzia**, hiruhileko honetan, inguruneko egoeren hobekuntzaren aurrean ekintzailatza lagunduko duten problema teknologikoak hautematean eta ebaztean oinarrituko da.

Esparru teknologikoko objektuen eta sistemen funtzionamendua ulertu beharko da eta haiek erabiltzeko eta kontrolatzeko modu egokiena erakutsi. Mezuak sortu beharko dira, hizkuntza eta notazio- eta ordezkartza-sistemak zuzen erabiliz, modu zehatzean komunikatzeko. Segurtasuneko eta ergonomiako arauak hartuko dira kontuan.





Azkenik, eta egungo egoera kontuan hartuz, ikasleek beraiek emandako edo garatutako baliabide digitalak erabiltzea baloratu eta landuko da.

ERANSKIN III





IKASLEEN LANA BIDERATZEKO ETA EBALUATZEKO ZENBAIT TRESNA DIGITAL

IKASTE-PROZESUAREN JARRAIPENA EGITEKO


Portafolioa

 Google Sites	 Wix	<p>Portafolioa ikasleak egiten duen ikaskuntza- eta ebaluazio-tresna bat da: bere lanak eta ekoizpen guztiak biltzen joateko aukera ematen du.</p> <ul style="list-style-type: none">• Edublogs: Hezkuntza-helburuetarako edo ikaskuntza- inguruneetan erabiltzen den weblog bat da, bai irakasleek bai ikasleek erabiltzen dutena. Bere helburu nagusia ikaste-irakaste prozesua bultzatzea da hezkuntza-testuinguru batean, eta ez da blog bat egiten ikastea.• Google Sites, Weebly, eta Wix: webguneak sortzeko lineako plataformak bat da, dokumentuen gordailu gisa balio dezaketena.
 Weebly	 Edublogs	





Ikaskuntza Egunkaria

 Google Sites	 Wix	<p>Ikaskuntza-egunkariaren bidez, ikasleak bere ikaskuntza-prozesuari buruz ikasgelan nahiz ikasgelatik kanpo bizitako esperientziei buruz idazten du. Aurreko tresnak ere baliagarriak izan daitezke horretarako.</p> <ul style="list-style-type: none">• Edublogs: Hezkuntza-helburuetarako edo ikaskuntza- inguruneetan erabiltzen den weblog bat da, bai irakasleek bai ikasleek erabiltzen dutena. Bere helburu nagusia ikaste-irakaste prozesua bultzatzea da hezkuntza-testuinguru batean, eta ez da blog bat egiten ikastea.• Google Sites, Weebly, eta Wix: webguneak sortzeko lineako plataformak bat da, bildutako lanen inguruan gogoeta egitea eta esperientziak kontatzea balio dezaketena.
 Weebly	 Edublogs	

Kontratu-didaktikoak

 Kontratu Didaktikoa	<p>Kontratu didaktikoak: ikasle eta irakaslearen arteko ikaste-prozesua bideratzeko akordioa da, bien artean adostutako helburuak lortzea helburu duena. Eredu askotarikoak aurki daitezke interneten. Hemen azalpena: https://labur.eus/kontraturpedagogikoa</p>
--	---

Errubrikak




 CoRubric	 Google Inprimakiak	<p>Errubrikak: Errubrikak irizpideetan oinarritutako ebaluaziorako tresnak dira. Irizpide multzoa aukeratu, bakoitzerako hainbat maila deskribatzaile zehaztu eta Maila horietako bakoitzari zenbakizko balorazio bat ematen zaio.</p> <ul style="list-style-type: none">• CoRubric: Ikasleek elkarrekin errubrikak egiteko erreminta.• Google Inprimakiak: Aukera ematen dizu ekitaldiak planifikatzeko, inkesta bat bidaltzeko, zure ikasleei galderak egiteko edo beste informazio-mota batzuk modu erraz eta eraginkorrean biltzeko.• Moodleko errubrikak eta Rubistar: hezitzaileei kalitatezko errubrikak sortzen laguntzeko doako tresna dira.
 Moodleko errubrikak	 Rubistar	

IKASLEEKIN HARREMANA MANTENTZEKO




Bideo-konferentziak

 Jitsi	 Hangouts Meet	Bideokonferentziak egiteko, hauek dira tresna ohiko eta erabilienak: <ul style="list-style-type: none">• Jitsi• Hangouts Meet• BigBlueBotton• Zoom
 Zoom	 BigBlue Botton	

Gela-birtuala





 Google Classroom	 Moodle	Gela-birtualak egiteko, hauek dira tresna ohiko eta erabilienak: <ul style="list-style-type: none">• Google Classroom• Moodle• Microsoft Teams
 Microsoft Teams		

Foroak, blogak


 Moodle Foroak	 Google Groups	Foroak, blogak: ikasleen arteko elkarlana eta elkarrekintza bultzatzeko, hauek dira tresna ohiko eta erabilienak: <ul style="list-style-type: none">• Moodle Foroak• Google Groups• WordPress
 WordPress		

JAKINTZA ADIERAZTEKO





Buru-mapak

 Buubl.us	 Mindmeister	Buru-mapak (kontzeptu- edo diagrama-mapa bat) kontzeptuen arteko erlazioak irudikatzeko ikusizko tresna bat da, kontzeptuen arteko lerroak trazatuz, kontzeptuen arteko erlazioa adierazteko. Ondoko tresnek elkarrekin lan egiteko aukera ere ematen dute: <ul style="list-style-type: none">• Mindmeister• Buubl.us• Concept map -Moodle• Coggle
 Concept map - Moodle	 Coggle	





Eskemak

Diagrams.net		Diagrams.net : tresna hau eskemak eta diagramak egiteko Google Drive-n integratuko aplikazioada.
--	---	--

Bideo-aurkezpenak


 Kdenlive	 OpenShot	Bideo-aurkezpena egiteko, hauek dira tresna ohiko eta erabilienak: <ul style="list-style-type: none">• Kdenlive• OpenShot• Avidemux• Animoto
 Avidemux	 Animoto	

Audio-grabaketak





 Audacity	 Vocaroo	Audio-grabaketak egiteko, hauek dira tresna ohiko eta erabilienak: <ul style="list-style-type: none">• Audacity• Vocaroo• Podomatic• Spreaker
 Podomatic	 Spreaker	

ELKARREKIN IKASTEKO


Horma-irudiak

 Padlet	Padlet : funtsean oihal huts bat eskaintzen die ikasleei lankidetzazko proiektuak sortu eta diseinatzeko. Idazteko aukera bikaina.
---	--

Buru-mapak





 Buubl.us	 Mindmeister	Buru-mapak (kontzeptu- edo diagrama-mapa bat) kontzeptuen arteko erlazioak irudikatzen dituzten tresna da, kontzeptuen arteko lerroak trazatuz, kontzeptuen arteko erlazioa adierazteko. Ondoko tresnek elkarrekin lan egiteko aukera ere ematen dute: <ul style="list-style-type: none">• Mindmeister• Buubl.us• Concept map• Coggle
 Concept map - Moodle	 Coggle	

Eztabaidak





 Google Groups	Google Groups : elkarrekintzarako eta eztabaidak bultzatzeko tresna eraginkorra.
--	--

AUTO-ERREGULATZEKO


Portafolioa

 Google Sites	 Wix	<p>Portafolioa ikasleak egiten duen ikaskuntza- eta ebaluazio-tresna bat da: bere lanak eta ekoizpen guztiak biltzen joateko aukera ematen du.</p> <ul style="list-style-type: none">○ Edublogs○ Weebly○ Wix
 Weebly	 Edublogs	





Ikaskuntza Egunkaria

 Google Sites	 Wix	<p>Ikaskuntza-egunkariaren bidez, ikasleak bere ikaskuntza-prozesuari buruz ikasgelan nahiz ikasgelatik kanpo bizitako esperientziei buruz idazten du. Aurreko tresnak ere baliagarriak izan daitezke horretarako.</p> <ul style="list-style-type: none">○ Edublogs○ Weebly○ Wix
 Weebly	 Edublogs	





Horma-irudiak

 Padlet	<p>Padlet: funtsean oihal huts bat eskaintzen die ikasleei lankidetzako proiektuak sortu eta diseinatzeko. Idazteko aukera bikaina.</p>
---	---

Errubrikak





 CoRubric	 Google Inprimakiak	<p>Errubrikak: Errubrikak irizpideetan oinarritutako ebaluaziorako tresnak dira. Irizpide multzoa aukeratu, bakoitzerako hainbat maila deskribatzaile zehaztu eta Maila horietako bakoitzari zenbakizko balorazio bat ematen zaio.</p> <ul style="list-style-type: none">● CoRubric: Ikasleek elkarrekin errubrikak egiteko erreminta.● Google Inprimakiak: Aukera ematen dizu ekitaldiak planifikatzeko, inkesta bat bidaltzeko, zure ikasleei galderak egiteko edo beste informazio-mota batzuk modu erraz eta eraginkorrean biltzeko.● Moodleko errubrikak eta Rubistar: hezitzaileei kalitatezko errubrikak sortzen laguntzeko doako tresna dira.
 Moodleko errubrikak	 Rubistar	

Galdetegiak




 Kahoot	 Socrative	Galdetegiak egiteko, hauek dira tresna ohiko eta erabilienak: <ul style="list-style-type: none">• Kahoot: Ikasleek ikasgai batean ikasitakoaren 30 segundoko bideo labur bat egiteko aukera ematen die ikasleei.• Socrative• Edpuzzle• Exelearning
 Edpuzzle	 Exelearning	

AZKEN PROBAK EGITEKO

Galdereren bidezko probak

 Moodle Galdeketak	 Microsoft Forms	Galderen bidezko probak diseinatzeko, hauek dira tresna ohiko eta erabilienak: <ul style="list-style-type: none">• Moodle Galdeketak: Ikasleek ikasgai batean ikasitakoaren 30 segundoko bideo labur bat egiteko aukera ematen die ikasleei.• Microsoft Forms• Hot Potatoes• Kahoot
 Hot Potatoes	 Kahoot	

Proiektuen ekoizpenak eta txostenak aurkezteko

 Sway	 Glogster	Ikasleek proiektuen edo erronken bidez ekoiztutako lanak aurkezteko hainbat bide daude. Hauek batzuk dira: <ul style="list-style-type: none">• Microsoft Sway• Glogster• Screencastify• OBS Studio
 Screencastify	 OBS Studio	